

AZKEN AFARIA

XABIER MONTOIA



XABIER MONTOIA

Azken afaria

 **Susa** narratiba

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2013 Xabier Montoia

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2013ko azaroa

Edizio hau: 2013ko azaroa

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

...a last mute gesture of love and contempt
for a world that had betrayed him so pro-
foundly that he could not endure in it.

JOHN WILLIAMS, *Stoner*

Nós - diante do escândalo da morte.

CLARICE LISPECTOR, *Água Viva*

Bazkaria

Euria. Goian-behean ari du azaroko eguerdi hotzean. Ari du Guggenheimen gainean, ari du San Mamesen gainean, ari du Arriagaren gainean, baita Uribarri, Txurdinaga, Begoña, Santutxu, Irala, Errekalde, Indautxu, Abando, Basurtu, Zorrotza eta Bilbo inguruko gainerako auzuneen gainean ere. Euri zaharra da Zazpi Kaleetako etxeen harria iluntzen duena, beste garai batekoa, itsasadarra oliotsua zenekoa, ontziolateko garabi ugertuek ur zikina han-hemen urrekara bihurtzen zutenekoa; eta kale horietako batean bada leku bat, hara biltzen direnek txoko esaten diotena, non entzun ere egiten ez den kanpoan zarra-zarra ari duen euria, non giroa gozoa den, sutan dauden eltze, kazola eta zartaginen epeltasunean.

Bi gizonetzko dira traste horiek guztiak gobernatzen dihardutenak, amantal urdinetan letra zuriz EAJ/PNV inprimaturik. Burusoilak biak, baina ezberdinak garaieraz eta gorpuzkeraz: luzea eta zabala bat, txikia eta ihar samarra bestea.

Felix Goñi da iharra. Abokatua, ezkondua, Beran jaioa baina egun Durangoko bizilaguna.

Kosme Astoreka da zabala. Hau ere ezkondua, baina ikasketez bakarrik abokatua. Aurreko mendean Dimatik iritsitako familia baten seme bilbotarra.

Astoreka berakatzatza zuritzen ari den bitartean, ma-haia janzten dihardu Goñik. Lau plater paratu ditu zamau txuri-gorriaren gainean; eta lau edalontzi ipintzera doala, lagunarengana itzuli da itaun egiteko: Noiz etortzeko erran zenien?

Berakatzatza xehatzeari utzi eta lauburu itxurako or-dulari paretakoari begiratu dio Astorekak: Ordu bietan azaltzekoak ziren.

!a ordu bi eta erdiak dira!

Ezagutzen dituzu horiek biak, Cantábricon egongo dira oraindino, zurrut eta berba, mundua zabaldu eta arteztu guran beti.

Solasturi apartak, bai: poeta eta komunista.

Hori lehen, orain idazlea eta abertzalea.

Idazlea Samuel Salaberria da, beasaindarra, azken urteetan Kalifornian bizi dena. Arrakastatsua eta lau-datua. Pare bat egun barru emango dioten sari bat dela medio dabil egunotan Euskal Herrian.

Juanjo Roder da laugarrena, gaur abertzalea eta noizbait komunista. Madrildarra sortzez, Deuston Zuzenbidea ikastera etorri eta betiko geratu da Bilbon.

Astorekak ez du Roder gonbidatu nahi izan, baina laurak egotea, *garai batean bezala*, jarri dio Salaberriak bazkarira joateko derrigorreko baldintza; eta etsi egin behar, idazlea omentzeko antolatu baitu bazkaria.

Poeta ganorabako hori!

Lurak ikaskideak izan ziren jesuiten unibertsitatean eta, hortaz, laurak abokatuak dira, lauretatik bik (Astorekak eta Salaberriak) oso aldi laburrean izan bazuten ere lanbidetzat.

Baldres horrentzat ari gara lanean.

Harentzat ari dira, bai, funtsean; Roder Salaberriak ekarrita etorriko baita. Aspaldiko lagunak, orain den ospetsu bilakatu aurretiko gaztetako lagunak egin nahi dioten omenaldi modukoa da bazkaria, maitasun eta esker oneko agerpena, Euskadi eta euskal kultura munduan zehar zabaltzeagatik.

Nobel sarirako zerrendan ei dago ganorabako deitu duzun gure Samu maitea.

Zuk deitu diozu, ez nik, kexu da Goñi.

Lapiko artetik sukaldariak: Berba egiteko modu bat baino ez da izan.

Eta Goñik, labanak plater aldamenetan banatzen ari dela: Juanjo ere gurekin izatea ongi etorriko zaigu, nahiz eta biok badakigun nolakoa den.

Katedraleko kanpaiek hiru bider jo dute. Laster agertu dira, mela-mela eginda.

Usain ederra!, loriatu da Salaberria, bere inguruan euri putzua sortuz.

Bikaina!, goretsi du Roderak, hari ere ura tantaka dariola.

Xirak erantzi aurretik, eskuetan dauzkaten zorroatatik botilak atera dituzte. Kaliforniatik ekarritako Napa Mountain batzuk Salaberriak, Beramendi nafarrek Roderak.

Gorria behintzat izanen dugu!

Barre txikiak egin dituzte ateraldiarekin.

Mesede itzela egingo dizue salda bero batek, Astorekak katilu lurruntsu bana eman die. Ea bazkaltzeari ekin aurretik barrenak epeltzen eta lasaitzen dizkizuen.

Salda suspertzailearen ondoren, zigarreta bat isiotu du Roderak.

Errieta ironikoa egin dio Salaberriak: Ez zenuke horrenbeste erre behar; itzali hori, sukaldetik datorren usain zoragarria ez kaltetzeko besterik ez bada.

Eta Salaberriak muin egin dio Astorekari bekokian: Barkatuko diguzu gure berandutze luzeegia, baina, mesedez, erakutsi egiguzu behingoagatik usain miragarri horiek nondik datozen.

Begitarte argitu zaio Astorekari, eta hots handiz iragarri ditu otoruntzaren osagaiak: Udagoienean gaudela kontuan hartuta, sasoi busti eta malenkoniatsu honetakoak izango dira jaki guztiak. Lehenik eta behin, ondoak, hiru modutan gertatuak: arrautzekin nahasita, txapelak labean erreta eta xaflak plantxan. Ondoren, gutizia nagusia: usoak saltsan. Eta amaitzeko, klasiko bat: bakailaoa bizkaitar erara. Postrerako: gazta eta pastel gozoak.

Mundiala!, Salaberriak.

Txalo bero bat!, Roderak.

Salaberriaren botiletako bat zabaldu dute mahaira eseri baino lehen.

Zuek ederto bustita etorri zarete, baina hemen egon gara gu, lehorrean, kexatu da Astoreka, Goñiri keinu eginez.

Laurek edan dute ardo kaliforniarretik, eta bat etorri dira: Polita.

Astorekak onddoz betetako hiru erretilu atera orduko, Athleticen egoeraz solastatu dira. Athletic zale porrokatuak dira Goñi eta Astoreka, San Mamesera sarri joaten direnetakoak. Muzinduta daude taldearen azken hilabeteetako ibilbide pattalarekin. Salaberriak eta Roderak, aldiz, ez dute futbola maite.

Herriaren opio berria da!, edozein sineskeria baino okerragoa.

Ondo, Juanjo, ondo, xaxatu du Salaberriak. Zuretzat ez da denbora pasatzen, gaztetan bezain borrokalari jarraitzen duzu.

Gaztetan bezain dogmatiko, zehaztu nahi izan du Astorekak.

Tira, beste askok beren burua merke saldu eta gero, miresgarria iruditzen zait oraindik ere gure Juanjo bezalako norbait egotea.

Harrigarria baliteke, miresgarria ez nuke esango, Salaberriari kontra egin dio Astorekak. Sasoiak eta kontuak aldatu egiten dira, gero eta arinago gainera, eta horiekin batera aurrera egiten ahalegindu behar genuke denok. Ez al zaizu iruditzen?

Aurrera egin, bai, baina ideia batzuei fidel izanik.

Ados. Kontua da zein ideiari fidel izan. Klase borrokari? Komunismoari?

Besteak beste, horiei behintzat bai!, tematu da Roderá.

Antigoaleko kontuak..., Goñi bat dator Astorekarekin.

Hori nahiko zenukete zuek. Baina noizbait atzera esnatuko da Trotskik sator gorria deitzen zuena eta ikusiko dugu orduan.

Zenbat urte daramazu horrelakoak esaten, hogeitá hamar, berrogei... eta begira non gauden.

Kaka zaharraren erdian.

Juanjo, mesedez, eskatu dio Astorekak, utzi demagogia sindikaturako; lagunen arteko bazkari batean gaude.

Zuek hasi zarete.

Goñik ez du etsi nahi: Ez gaude kakaren erdian. Sekula baino hobeki bizi gara.

Batzuk.

Batzuk ez, gehienok.

Hemen beharbada bai, baina mundua ez da bertón bukatzen.

Gu hemen ari gara, hauxe da guk ezagutzen duguna, hauxe da gure lurraldea.

Horixe, poztu da Astoreka.

Salaberriak: Auzi honetan burgesekin nagoela uste dut (Astorekari eta Goñiri begiratu die). Gazteak ginenean, langileak benetako langileak ziren. Oraindik gogoan dut CAFen lan egiten zutenak nola irteten ziren arratsaldean, zein itxura iluna zuten. Gehien zuenak, garai hartan, bizikleta bat zeukan. Zoaz orain hango aparkalekua ikustera eta ikusiko duzu ze auto puskak dauden. Erdia baino gehiago 4x4ak. Horiek ote dira gaurko proletarioak, garai bateko klase iraultzailea?

Eta New Yorkera eta Londresera eta Mexikora joaten dira oporretan, aberatsak legez.

Onartu beharko duzu, Juanjo, horiek ez dutela inoiz iraultzarik egin nahi izango, ez zaiela komeni; batez ere, gizarte sozialista batean nekez biziko liratekeelako orain baino hobeto. Ez duzu uste?

Rodera ez da sekula uzkuertzen: Ez dakit hala den edo ez den. Ondo dakidana hauxe da: norbait ondo bitzeko beste norbaitek bizi behar duela gaizki. Hori hala da eta hala izan da beti. Lan egiten ez duenak beste baten lepotik bizi behar du derrigorrez. Edo ez?

Hori ezin ukatuzkoa da, onartu dio Salaberriak; eta berehala solasgaia aldatzeko aukera baliatu du: Oso

gozoak onddoak, Kosme; denbora eta dirua galtzen ari zara politikan. Sukalde famatu bateko erregea izan behar zenuke, Arzak, Arbelaitz, Aduriz... eta horiekin batera zu: Astoreka!

Gauza bera erraten diot nik.

Alferrik ari zara, Felix, honek politikan segituko du beti. Odolean darama.

Roderari beltzuritu egin zaio Astoreka: Zuk legetxe, beraz, horretan jardun duzu-eta ezagutzen zaitudanetik.

Ez, ni bezala ez. Ni militante soila izan naiz bizitza osoan.

Ba, ea ikasten duzun, adarra jo dio Salaberriak. Kosmeri begiratzea baino ez duzu. Zuzendari nagusia da, egunkariak diotena sinestera.

Madrilgo egunkariak sinestera...

Zu omen zara Alderdiaren benetako gidaria, saka-tu dio Salaberriak.

Eta zu datorren urteko Nobel saria! Hori ere sine-tsi egin behar al dugu?

Gauza bera iragarri zuten iaz, eta duela bi urte, eta begira.

Ezin zara kexatu. Inoizko euskal idazle arrakasta-tsuena zara.

Baina, ze arraio, nork nahi du ba sari hori, Celak jaso eta gero?

Nik dakidala, inork ez dio muzin egin.

Sartre izan zen sariaren historia osoan uko eginda-ko bakarra, gogorarazi die Roderak: Komunista bat!

Eta onartu izan dutenak zer dira, kapitalistak?

Zu zara literaturan aditua, Samu, nik sindikatuez eta langileez baino ez dut konprenitzen.

Bai, eta Felixek nagusiez eta jauntxoez...

Et, et, et, datozkidan bezeroei kasu egiten dien abokatu bat baizik ez naiz, ez ditut nik hautatzen.

Ez, noski, haiek aukeratzen zaituzte. Baina zergatik zu eta ez beste edozein?

Ez dakit ba.

Amantaleko EAJ/PNV hizkiei begiratu die Salaberriak.

Ez, ez, ni ez naiz Alderdikoa, nahiz eta mandil hau jantzi eta hauteskundeetan bozka haiei eman. Alderdiaren hurbilekoa naiz, baina ez militantea. Kosme da hemen militante bakarra.

Eta segituan Astorekak: Neu bai, baina Juanjo ere bai.

Oker zaude. Euskadiko Ezkerra izan zen nire azken alderdia. Harrezkero, akabo.

Eta Herri Batasuna?

Felixen antzera, hurbilekoa bai, baina ez militantea.

Susmoa dut hurbilago zaudela zu HBtik Felix gungandik baino.

Esplikaziotan trabatu da Goñi: Aspalditik ezagutzen nauzue, badakizue niretzat politika ez dela zuentzat bezain inportantea, ezta hurrik eman ere. Emaztea, semea, Athletic, horiek dira nire kezkak eta ardurak. Abertzalea naiz, noski, sortzetik ia, aita jeltzale porrokatua baikenuen; baina politikaren saltsa ez dut egundo sobera maite izan...

Astorekak: Zuk beste saltsa bat duzu gurago... usotxoena!

Salaberriak: Nire ustez, antz handiagoa du Felixek nirekin, zuekin baino. Zuek borrokalariak zarete, gu ez bezala. Guri geure txokoan egotea atsegin zaigu, goxo, bakean. Honek nik ez dudan familia zaintzen du; nik, aldiz, nire baitatik ateratako pertsonaiak eta sujetak. Eta aski dugu horrekin. Gu koldarrak gara, malenkoniarako jaidura dugu, nahi baduzue.

Kontra egin dio Roderak: Zuk izango duzu, ez Felixek. Gizon praktikoa da Felix, langilea. Ez du ameskeriatarako astirik.

Nik bai, ala?

Zu idazlea zara, xelebrea.

Hemengo batzuek baino ordu gehiago lan egiten duena.

Niri ez begiratu, esan dio Astorekak. Begoña murtuta edukitzen dut, haren ustez ez naizelako etxean batere egoten. Dibortziorako mehatxua eta guzti egin ez dit ba.

Barre egin dute batzuek eta ardoa edan besteek.

Ezkondu ez denak ezin dibortziatu, harrotu da Salaberria.

Argi ibili, gauza bera erran ohi zuen Juanjok, gogorarazi dio Goñik.

Ezkondu izan ez banintz, ez nintzatekeen orain nabilen moduan ibiliko, dibortzioaren gorabehera astu-netan katigatuta.

Harrigarriena ez da zure dibortzioa, zure ezkontza baizik. Oraindik oroitzen naiz nolako errietak egin zenezkidan Maiterekin ezkontzera nindoala kontatu nizunean. Aitzin mendeko zer edo zer zen ezkontzea, zure orduko ustean; arrunt atzerakoia eta abar.

Zuzen zinen, Felix. Zuk diozun bezala izan zen eta barkamena eskatu behar dizut. Dena den, antzera pentsatzen jarraitzen dut, zuentzat harrigarria edo

etsigarria izanagatik ere. Ezkontza, are bikotea, edozein delarik ere kidea, kartzela da.

Eta hala eta guztiz zuk kartzela eta kateak aukeratu zenituen.

Ulertu behar duzu maiteminduta nengoela. Eta maiteminean ez dago kate astunik. Maitasuna droga bat da, gogorra gainera; ez dagoena ikusarazten digu eta dagoena ezkutatu. Horregatik sartzen gara hor jauregi zoragarri batean sartuko bagina bezala, eta ez kartzela batean.

Astorekak: Maitemintzen garenean ez gara konturatzeko ez ezartzen dizkiguten kateez, ez ezertaz.

Gustura dago Salaberria: Uste nuen politikaz baino ez zenekiela, gainerako guztiak bost axola zizula; baina oker naiz, antza denez.

Goñik: Zuek uste baino anitzez gehiago daki Kosmek. Baita maitasun kontuez ere.

Kosme beti izan da gauza asko dakien gizona, onartu du Salaberriak. Serio ari naiz, adarrik jotzeko asmorik gabe. Deuston ere asko zenekien eta, egunkariei kasu eginez gero, orain ere guk denok baino gehiago dakizu...

Berriz egunkariak?

Ahantz ditzagun egunkariak! Nik dena barkatzen dizut ondo zoragarri hauen ondoren.

Gustura ahaztuko nituzke, zaude seguru. Egunkariak dira, baina, nitaz (eta gutaz) ahazten ez direnak. Batez ere Bergaretxerenak.

Benetan ikaskide loriagarriak izan genituen, gogoratu da Salaberria: Bergaretxe, Mario Conde, Almunia... eta Juanjoren gainerako lagun sozialista haiek guztiak. La crème de la crème.

Hemen gaudenok baztertu gabe, gaineratu du Roderak: Samuel Salaberria, Kosme Astoreka... La crème de la crème.

Gure Astoreka, intelektuala eta ekintza gizona!, esan du Goñik.

Eta zuek zer zarete ba?

Hori zuk erran beharko duzu, zu zara hobekien ezagutzen nauena.

Zure Maitek bezain ondo. Gizon on bat zara, behargina eta familia ondo jagoten dakiena.

Gizon on bat? Susmagarria, Felix, oso susmagarria, zirikatu du Salaberriak. Beharbada, gizajo bat zarelaren esan nahi izan du.

Esan dudana esan dut, ez gehiago, ez gutxiago, azpimarratu du Astorekak.

Eta Juanjori buruz, zer duzu esateko?, ziztaka berri Salaberria.

Gaitza da Roderak definitzea. Argia da, baina batez ere berezia. Inork espero ez dituen gauzak egiten ditu, eta gutxien espero litekeen momentuan. Deustoko sasoian nork esango zigun noizbait gurekin euskaraz berba egingo zuenik. Madrildik etorritako señorito bat euskaraz!

Zure Alderdiko señoritoek inoiz egingo ez dutena...

Samu, eten egin dio Roderak, utzi egiozu Kosmeri bukatzen, jakin-minez nago eta.

Juanjok ezustekoak emateko abilezia itzela dauka, osterak hasi da Astoreka.

Badaki garai berrietara egokitzen, Salaberriak.

Aldakorra da, bai, jarraitu du Astorekak. Baina bertiko ildotik inoiz atera barik.

Komunismoaren ildotik esan nahi duzu?

Jakina.

Egoskorra da: Alderdi Komunista, Euskadiko Ezkerre, eta orain, antzinako lagunak sozialdemokrata bihurtu eta boterearen ezta dastatzen dabiltzanean, Juanjo aurrera beti bide artezean barrena, Neguko Jaurregia hartu arte.

Idealista bat da, ondorioztatu du Goñik.

Salaberriak Astorekari: Zuk aspaldi ahaztuta izango duzu hori zer den.

Astorekak ez entzunarena egin du, ardoa basoetara isurtzeko aitzakiaz.

Ez zara bakarra, azaldu dio Salaberriak. Literaturaren mundua, politikarena ez bada ere, diruaren menpe bizi da berdin-berdin eta, zoritxarrez, politikarenari darion bezainbesteko kiratsa dario ia.

Astoreka poztu egin da: Hara!, ez naiz, hortaz, hemengo txerri bakarra.

Bakarra ez, baina agian handiena bai, barre egin du Salaberriak.

Roderak ere bai.

Goñik protesta moduko zerbait egin du: Zuekin ados ez egoteak ez du erran nahi urde bat denik. Txantxa gutxiago, lagunak!

Bizkarrean jo dio Roderak: Ene, Felix, ikasi behar zenuke gauzak hain serio ez hartzen. Begiratu niri, denetarik deitu dit Kosmek eta, hala eta guztiz, oso lasai nago.

Lehen ere nahikoa laudorio egin diogu Kosmeri, baina onddo festa honen ondoren edozer gauza bar-katu beharko diogu.

Ea ba bide batez Arzalluzek ere barkatzen duen.
Zer dauka ba horrek barkatzeko?

Samu, zu Kalifornia eguzkitsuan bizi zara, loredun alkandorak janzten dituzu eta, idazten ez duzunean, hondartzan egoten zara, garagardo izoztu bat esku batean eta zigarreta bat bestean, emakume gazte bikiniidunei begira...

Bai, halaxe egoten naiz, patxada ederrean.

Kexatu egin da Goñi: A ze tema politikariekin, Juanjo! Denetarik izanen da horien artean ere...

Noski. Txarrak eta okerragoak. Denetarik.

Astorekak Salaberriari: Beraz, Kalifornian ez zara Euskadiz eta Euskadiko lagunez akordatzen?

Nahi baino gehiagotan gogoratzen naiz. Modu obesiboan batzuetan. Eta kezkatu egiten naiz, kezkatzekoa baita milaka kilometrotara egon eta buruan Euskal Herria baino ez erabiltzea egun osoan. Gaixotasun bat. Hara joanda hango kontuez pentsatzen hasiko nintzela uste nuen, baina justu kontrakoa gertatu zitzaidan. Idaztera esertzen banintzen, hona nindekarten nola edo hala istorio guztiek. Eta sekula baino ugariago etortzen zitzaizkidan. Uko egiten nion haiek idazteari, seguru asko aurreiritzi ergel baten edo us-tezko kosmopolitasun ustel baten ondorioz. Ordura

arte izan nintzen idazleari muzin eginda, beste bat bilakatu nahi nuen, oso bestelakoa eta, horretarako, ezinbestekoa iruditzen zitzaidan atzean utzitakoa erretzea. Garbiketa antzeko zerbait, askapen moduko bat. Makina bat buelta eman nion kontu horri eta denak alferrik, etsi egin behar izan nuen arte: aurrerantzean, nahi nukeena ez, ahal nuena idatziko nuen. Azkenean, neure buruari ezina aitortzeko kemena bildu nuenean, orduan hasi nintzen nobela idazten. Sei hilabeteren buruan osatuta neukan lehendabiziko bertsioa.

Hortik aurrerakoa egunkarietan irakurri dugu, esan dio Astorekak. Benetan ondo atera zaizkizu gauzak, eta pozten gara. Topa egin dezagun!

Salaberriaren alde!

Goñik erretilu eta plater hutsak jaso eta garbiak ekarri ditu, usoa saltsan zerbitzatzeko.

Eskuak igurtzi ditu Salaberriak, irrintzi antzeko zerbait botatzearekin batera: Gauza eder eta miresgarri asko dago Kalifornian, piloa, baina hau bezalakorik...

Alabantzak errepikatu dituzte Astorekarentzat.

Ze usaina! Ze itxura!

Utz ezazu politika behingoagatik. Neuk lagunduko dizut jatetxea zabaltzen, esan zio Salaberriak. Idazlea bazina eta ez sukaldaria, Joseph Roth izango zinateke!

Ez dakit hori nor den, ez diot ezer leitu.

Honek *El Correo* baino ez du irakurtzen, Roderak.

Deia ere bai, Goñik.

Arzalluzekin egindako elkarrizketa irakurriko zenuen, Salaberriak. Kontu interesgarriak aipatu ditu: Lemoiz, makina txanponjaleak, GAL... Izenik eman gabe ere, uste dut zutaz diharduela batzuetan.

Aspalditik dakit zer pentsatzen duen nitaz, haren ahotik sarritan entzunda. Badakit zer dioen orain, baina baita lehen ere, Garaikoetxeak eta bere adiskideek Alderditik alde egin zutenean. Burukide eredugarria nintzen orduan, leiala eta behargina, Alderdiaren berreraikitzeari erabat emana.

Traizionatu egin zenuen arte.

Nik ez nuen inor saldu. Ni Alderdiarekin izan nintzen leiala. Alderdiak bere kideen gaineratik egon behar du beti.

Eta zuk, Felix, galdetu dio Roderak, zer deritzozu?

Athleticen adibidearekin aise konprenituko duzu: klubak edozein jokalariren gaineratik egon behar du, salbuespenik gabe.

Baina nik Arzalluzi buruz galde egin dizut.

Badira urte anitz ezagutzen dudala, baina ez dut sekula traturik izan harekin.

Ari garen auziaz jakin nahi dut, ez zuk Arzalluzi buruz, orokorrean, uste duzunaz.

Ni ere Alderdiarekin nauzu.

Kosmek aipatu duen haustura gaitz hartan, Garai-koetxearen kontra zinen, nafarra izanagatik ere. Zer esaten zizuten Beran? Zer esaten dizute hango batzokian sartzen zarenean, hango lagunekin egoten zarenean?

Beran ez dago batzokirik.

Batzokian edo tabernan, berdin dio.

Gurasoak zendu zirenetik urtean behin baizik ez naiz hara joaten. Eta nire gaztetako lagun gehienak ezker abertzalekoak dira, ez EAkoak.

Eta zer esaten dizute?

Ez ditut ikusi ere egiten.

Utzi bakean, Felixek ez dizu inoiz esango zuk entzun nahiko zenukeena. Jai daukazu.

Deuston ere halakoa zen. Akordatzen zarete Burgosko prozesuaren kontra Bilbon egin zen manifestazioan gertatu zitzaionaz?

Denak oroitzen dira; ez agian Goñik egun hartan egindakoaz, baina bai manifestazioaz, laurentzat izan baitzen estreinakoa. Galdera erretoriko batez hasi duen istorioa burutu nahi du Salaberriak, ordea, eta hari horri jarraitu dio ahal bezain laster. Fakultate guztietako jendea bildu zen abenduko eguerdi hartan. Institutuetatik ere azaldu ziren ahoz aho zabaldutako hitzordura. Ikasleak Gran Vian pilatu ziren, harik eta astiro espaloi batetik ibiltzen hasi ziren arte. Jendetza zen, eta, denak isilik ibilita ere, kale zabal osoa betetzen zuen isiltasun astuna ozenagoa zen autoen eta autobusen zarata baino.

Gogoan du Goñik: Kosmek eraman ninduen, eta uste dut han ikusi zintuztedala lehen aldiz.

Deuston ikusita ezagutzen zintuztedan nik. Harritu egin ninduen zuek han topatzeak. Baina Samurengandik espero nuen, Bertolt Brechten poemak leitzen baitzituen.

Bizkor mintzo da Goñi: Han ginen, jendetza haren gibelaldean egoteagatik kontent, eta orduan, auskalo nola, jende guztia batera itzuli eta manifestazioaren aitzinaldean ikusi genuen bat-batean geure burua. Ikaragarria izan zen. Zangoak dardaraka neuzkan eta, nire gibelaldekoek pixka bat bultzatu izan ez banindu-

te, han egonen nintzen oraindik, izoztuta bezala geratu bainintzen, ibiltzeko gauza ez nintzela.

Erremuskada Astorekak: Grisak azaldu zirenean arrapataka atera zinen, ipurdia sutan bazenu lez.

Egia. Bizi nintzen pentsiora heldu nintzen arte ez nintzen gelditu. Gure amaren ezaguna zen Lesakako andere baten etxean nengoen, eta, hark ni ikusirik, gaixo nintzela pentsatu eta ohatzera bidali ninduen agudo. Beharbada egun hartan ohartu nintzen ez neukala politikarako behar dena, sobera koldarra naizela...

Denok ginen kakati hutsak Francoren sasoian, onartu du Astorekak.

Franco zaleak izan ezik, zehaztu du Roderak. Haiek harro ibiltzen ziren Deuston, ezereen beldurrik gabe. Edo ahaztu egin zaizue?

Ez zaio inori atzendu.

Astorekari begira Roderak: Zuekin hain ondo konpontzen diren horiexek...

Bere burua defendatu du Astorekak: Hori da demokrazia. Adostasunetara, akordioetara heldu beharra dago. Haiek ere herriak aukeratutakoak dira, nahiz eta guri ez gustatu.

Demokrazia..., kopeta ilundu zaio Roderari.

Demokrazia, bai. Edo gurago duzu Kubakoa?

Kuba duintasun adibide bikaina da. Inperiotik milia gutxi batzuetara egonda, inguratuta eta enbargo zital horrek zigortuta, kapaz dira medikuak eta irakasleak bidaliz beste herri batzuei laguntzeko.

Ez didazu erantzun. Non bizi gurago zenuke, han edo bertan?

Hemen bizi naiz, Kosme, hemen lan egiten dut, hemen ezkondu nintzen, gurasoa naiz. Hemen bizi nahi dut eta, hainbeste urte eta gero, hemengotzat dut neure burua. Baina gauzak diren bezalakoak dira, eta Kubak urtetan egin duena ez dute ustezko estatu demokratikoek inondik ere egin, askoz aberatsagoak izanik ere.

Argi dago. Ez duzu erantzun gura.

Zuk nahi zenukeen moduan, seguru asko, ez. Kuban akatsak egin dituzte, ugari; baina herriaren alde, gutxien dutenen alde ahalegindu dira beti, kosta lain kosta, beste inon ez bezala.

Herriaren alde? Begiratu zelan duten orain herria, miseria gorrian.

Astorekari laguntzen beti Goñi: Prostituzioa desgerrarazi behar omen zuten eta uharte osoa putez gainezka dago.

Hori egia da, esan du Salaberriak. Han egon nintzenez, jineterak egun osoan segika neuzkan. Munduko lanbide zaharrena desagerrarazi nahi izatea, marka da gero! Hori eskuindar bati ez litzaioke burutik pasatuko. Ezkertiarrak, ordea, halakoak dira, moralista hutsak, apaizak baino okerragoak batzuetan.

Roderari ez zaio argudiorik falta: Eskuindarrak, aldiz, prostituzioaren kontrakoak omen dira, baina laster baztertzen dituzte beren eragozpen moralak, horrekin dirua egin ahal izanez gero. Ikusi, bestela, zer egiten duen *El Correok*.

Trufarako dago Salaberria: Horiek ama ere salduko lukete, norbaitek erosiko balie. Defuntuen eta puten kontura bizi dira.

Athletic atzendu gabe, Goñik.

Horixe: defuntuak, putak eta Athletic.

Prostituzioaren alde zaudete, hortaz?

Mutu utzi ditu, une batez, Astorekaren galderak.

Salaberriak: Ni bai. Erabat.

Zu ere bai, Juanjo?

Ez. Ezkerra beti egon da prostituzioaren aurka, nik dakidala.

Eta zuk, Felix, zer diozu?

Ni kontra nago, noski.

Itxura batean, zu zara puten aldeko bakarra, esan dio Astorekak Salaberriari.

Aurka baldin bazaude, zergatik ez diezu zure alderdikideei esaten, *Deian* argitaratzen diren prostituten iragarkiak kentzeko? Falangisten egunkaria ez baita halakoak argitaratzen dituen bakarra.

Denok ditugu kontraesanak.

Kontraesanak argitu egin behar dira, ordea.

Eta batez ere gainditu, sakatu die Roderak.

Denbora behar da horretarako, Astorekak.

Hara eskuindarren betiko leloa! Azkarregi joateko beti beldur.

Badakizu, Juanjo, gauzak ezin direla goizetik gaue-ra lortu, Goñiren arrapostua.

Hogeitaka urte daramatzazue gobernuan eta zer aldatu duzue urte horietan guztietan?

Salaberriak: Zer edo zer aldatuko zuten, ezta?

Zer baina?

Oilartu egin da Astoreka: Krisi ekonomiko izugarria konpondu genuen. Nahiz eta orain inork gutxi gogoratu.

Herri eskergabea gurea!

Ba bai. Zuk barre egingo duzu, baina hala da, eskergabea eta ahanzkorra.

Eskerrak ahanzkorrak garen, poztu da Salaberria.

Egin dituzuenak egin eta gero, hala hobeto zuentzat.

Zer egin dugu ba guk?

Lemoiz...

Guk ez genuen Ryan hil!

Hil izan ez balute, lehergailu atomiko bat izango genuke orain zuek hainbeste maite duzuen Bizkaiko kostaldean.

Zehaztapena egin du Salaberriak: Hori jendearen protestei eta presioei zor zaie, ez milien barrabaskeriei.

Horregatik bakarrik balitz, Leitzarango autobidea ere bertan behera utzita legoke aspaldi. Ez al duzu uste?

Roderaren hitzak profitatu ditu Astorekak: Ba, zuengatik balitz, dena legoke bertan behera utzita zuen Euskal Herri maitean.

Zuek ez duzue maite, ala?

Guk beti maite izan dugu Euskadi! Eta ez zaigu orain inor etorriko zer maitatu behar dugun esaten. Batez ere, madrildar abertzaletu berri bat...

Ederra bota dizu!, kontent dago Salaberria.

Astoreka eta Goñi irribarrea ezkutatu ezinik dabil-tza. Roderak zer erantzungo, zain daude hirurak.

Eta Roderia ez da isilik egotekoa: Esan gauzak argi, Kosme, esan español alua!

Barre egin dute berriro. Laurek oraingoan.

Salaberriak: Politikari bati argi hitz egiteko eskatzea ere...

Kieto hor! Gaur zuen sukaldaria naiz, ez beste ezer.

Berdin dio, sukaldari jeltzaleek ez dute sekula argi hitz egiten.

Baina sukaldari onak direla onartu beharko duzu, Goñik.

Ez dago dudarik, saltsa hau prestatu duena, ona ez, bikaina da. Nola demontre egiten duzu usoa horren dotore?

Bost minututan ez behintzat.

Ez diguzu azaldu nahi?

Ordubeteko lana da...

Badugu pazientzia pixka bat. Konta iezaguzu.

Arranoa!, nik bai galduko dudala pazientzia zuekin. Tira... erosi lau uso; tipulinak, azenarioak eta porruak bina; tomate heldu bat, erramu orria eta berakata; salda baso bat, koñak kopa eta ardo txuri botila osoa; gatza eta piperbaltza. Aurrena, barazkiak oliotan eztitu; gero, usoak bota eta gardostu; likidoak

isuri, dena tapatu eta ondo egosi. Azkenean, usoa azpilean ipini; eta lapikoan geratu denarekin purea egin eta usoei gainerik bota.

Baina, Kosme, guk sekretutxoak jakin nahi ditugu...

Idazleei ez zaizkie sukaldeko sekretuak kontatu behar. Eta abokatuei ere ez.

Baina Roderak isilik egoten ez dakienez: Jeltzaleak adituak dira saltsetan; berdin prestatzen dute sozialistekin, EAkoekin edo beste edonorekin.

Eta Astorekak beti erantzuten dionez: Zuekin izan ezik, edozeinekin!

Ez zenuen azpimarratu beharrik. Argi dago: zuek beti demokratekin, noski; ez terrorista kuadrilla batekin.

Nik ez nuke hala esango, baina esateko modu bat da, onartu dio Astorekak.

Sozialistekin ez duzue batere arazorik, GAL haiek sortu zutela beste inork baino hobeto jakin arren.

Roderari lagundu dio Salaberriak: Saltsan ibiltzeko ez dute eragozpenik, ez sozialistekin, ez Franco zaleekin. Horiek ere demokratek direnez...

Orain bai.

Eta haien menpeko txapelokerrak ere bai?, Roderak.

Txapelokerrak txapeloker beti.

Beraz, txapelokerrak ere terroristak dira?, Salaberriak.

Txapelokerrak eta kito, Astorekak.

Eta torturatzailleak..., Salaberriak.

Gura duzuna.

Orduan, Ertzaintza bezalaxe, Roderak.

Ertzainek ez dute torturatzen!, pipertu egin da Goñi.

Egonarri txikikoa da Astoreka ere: Zuek beti kaka zabaltzen. Beste ezertarako ez duzue balio. Kaka ezker-eskuin bota eta alde guztietan bazterrak nahastu. Artistak zarete horretan.

Salaberriak: Artista asko dago hemen... gehiegi.

Ez zara zu bakarra izango.

Hoberena bai, baina ez bakarra, sardexka altxatu du Goñik. Gaur marka guztiak hautsi dituen artista Kosme izan da.

Jatetxe bat zabaldu beharko dizugu!, aldarri egin du Salaberriak.

Topa egin dezagun artearen eta artisten alde, proposatu du Roderak.

Osasuna!

Ardoak giroa baretu eta gaiez aldatzea ekarri du. Familiako kontuez hasi dira, seme-alabez. Denak dira guraso, Salaberria izan ezik.

Emakumeak gehiegi maite ditut, betiko bakar bategin egoteko, esan du Salaberriak.

Ibili kontuz, bakarrik aguretu nahi ez baduzu.

Zaharrak garela ezin ukatu. Bakardadea, ordea, ez da zuek uste bezain ikaragarria. Alderantziz, gozoa ere izan liteke. Inork ezagutzen ez nindueneko bakardade guztizkoarekin amets egiten dut orain. Askatasun osoa ematen zidan bakardade harekin...

Ze askatasun?

Edozer egiteko askatasuna. Gau osoan idaztekoa, goiz osoan lo egitekoa.

Guk ez dugu idazten. Guk ordutegi zorrotzak ditugu eta horiexek bete behar. Egunero lanera joan, egunero familiari jaramon egin...

Eskerrak denek ez dioten familiari zuek bezainbeste kasu egiten. Zer egingo nuke nik bestela!

Zer esan nahi duzu?

Senar guztiak zuen modukoak izango balira, ez nuke maitalerik aurkituko. Beren senarrez nazkatuta

dauden emakume ezkonduekin izaten dira nire abenturak gehienak.

Alua, Roderak.

Zorionekoa zu, Astorekak.

Ba, niri ez didazu batere inbidiarik ematen, Goñik.

Ez da harritzekoa, Salaberriak.

Astorekak dena jakin nahi izaten du: Ezkongabe-koekin ere egingo duzu.

Batzuetan, unibertsitateetara joaten naizenetan. Hor beti egoten da idazle famaturen bat seduzitu nahi duen neska gazteren bat.

Berdin dizu?, galdetu dio Goñik: ezkonduak, ezkongabeak, zaharrak, gazteak.

Aukeran, ezkondu gazteak nahiago. Arazoak beren senarrentzat uzten dituzte eta niri beren onena baino ez didate ematen.

Sexua, alegia, Astorekak.

Gutxi iruditzen al zaizu?

Norberak erabaki behar du.

Nik aspaldi erabaki nuen emakumeak direla mundu honetan merezi duen bakarra.

Emakumeak eta... Athletic, erantsi du Goñik.

Eta literatura?, jakin nahi izan du Roderak.

Literatura ere gaztetatik dudan beste grinetakoa bat da. Ia orduan bezainbeste gozaten dut liburu on bat irakurtzen. Idaztea, aldiz, ezberdina da; nekeza, gero eta nekezagoa, gainera. Amorragarria da egun osoa idazten pasatzea eta biharamunean irakurri, txarra dela ikusi eta bota egin behar izatea. Eta ekin berriro berridazteari. Oso gogorra da.

Ez da horrenbeste izango, Roderak.

Hasperen teatral bat egin du Salaberriak: Emakumeekin bai, emakumeekin dena da gozotasuna!

Zuk ezagutzen dituzunekin izango da dena gozotasuna, purrust egin du Astorekak. Niri sarritan haserretzen zait andrea.

Begoña gajoa, ihes egin dio Goñiri.

Emakumeekin, ohean, esan nahi nuen. Txortan! Ondorengoa aspergarria da. Ondorengoa beren senarrentzat.

Gu bezalakoentzat, alegia.

Bai.

Oi, Itziar hemen egongo balitz...

Roderaren esaldia osatu du Salaberriak: Matxista zikin bat naizela izango litzateke esango lidakeen gauzarik gozoena. Badakit. Baina zorionez laurok bakarrik gaude hemen.

Emakumerik onartzen ez duen txoko batean, Astorekak.

Lau gizon bakarka, poetak esango lukeen moduan.

Hemen kazoletan dago poesia, esan du Goñik, usoa jateko erabili dituzten platerak jasotzeko jaikitzean. Presta zaitetze, beraz, hurrengo poemarako: bakailaoa Bizkaiko eran. Klasiko bat. Gorenetan goren.

Bai, baina jarrai dezagun emakumeen kontuarekin, eskatu die Astorekak. Sukaldaritzaz askotan berba egiten dugu eta inoiz ez sexuaz. Aprobetxatu behar dugu gaur aditu bat dugula. Idazle handia izateaz gain amorante itzela delako gure Salaberria.

Andrezale eta limurtzaile sonak ez du oinarririk. Nitaz esaten diren gehienak esamesak besterik ez dira, etsaiek zabaldutakoak.

Hortaz, idazleek ere badituzue etsaiak; eta ni, horiek politikarion kontuak zirela sinistuta.

Zuen modukoak gara idazleak. Ez dago alde handirik.

Ederto izorratuta zaudete zuek ere orduan, esan du Astorekak.

Bai.

Gutxi asko, denok gaude antzera.

Baina Goñik: Denok ez. Ni, bederen, ederki bizi naiz.

Zorionekoa zu, kezka larri bakoa. Bufetea ezin hobeto doakizu, maite duzun eta maite zaituen andre batekin ezkontuta zaude, semea ikasle ona duzu eta futbolari profesionala izango da urte gutxi barru...

Zu ere ez zaude kexatzeko, Kosme, esan dio Salaberriak. Felixek duen guztia daukazu zuk ere.

Bufeterik ez baduzu, nahi ez duzulako da. Politika gustatzen zaizu, boteretik hurbil egotea... Eta ondo joan zaizu, nik dakidala. Emaztearena beste kontu bat da, eta hortaz ezin nik ezer esan; eta berdin zuen semeaz.

Andrearena utz dezagun, baina semearena...

Aitatxi bilakatuko omen zara laster. Ez al zaude pozik?

Jakina.

Hona hemen, aitona Kosme!, adarra jo dio Salaberriak.

Berriz topa egin behar dugu, ez al duzue uste?

Aho batez onartu dute Roderaren proposamena. Kaliforniako ardoa bukatuta, berak ekarritakoa zabal-

du du: Kanako ezteietan ez bezala, berezia agortuta-koan arrunta atera behar.

Aitona Kosmeren alde!, edalontziak altxatu dituzte laurek.

Ez, nire alde ez. Bilobaren alde hobeto.

Sukaldariaren lehen bilobaren alde!

Roderak Astorekari: Aurrena izan zinen ezkontzen, aurrena seme-alabak izaten, eta aurrena aitontzen.

Gure abangoardia, Salaberriak.

Jarraitzaile bako abangoardia, herri bakoa, bere burua gutxietsi du Astorekak.

Abangoardia zu zara, esan du Goñik, Europako literaturaren lehen lerroan!

Abangoardia joan den mendeko kontua da, jendeak literaturan sinesten zuen garaikoa. Joyce, Faulkner, Beckett eta haien garaikoa. Antigoaleko gauzak. Politikan bezala, oker ez banago.

Roderak ez dio ulertu: Zer esan nahi didazu?

Badakizu, Lenin, Alderdi Komunista masen aitzindari eta gidari, eta gure gaztaroko gainerako zera guztiak.

Txorakeria guztiak esan gura duzu, Astorekak.

Bai, hori esan nahi nuen, baina iraindu nahi izan gabe. Zuk oraindik kontu horiek sinesten dituzu, ezta, Juanjo?

Ez denak.

Baina komunista zara oraindik.

Alderdi Komunistarik gabeko komunista.

Nahi duzun bezala, baina komunista, egoskortu da Astoreka.

Salaberriak, aldiz, amets egin du: Komunismoa!, ederra izan behar du komunismoak...

Edengo baratzeak ere bai, Goñik.

Zer?

Zerua, alegia, paradisia.

Felix, ezagun duzu seminarioko mutikoa zarela.

Beharrik handik pasaturikoa naizen. Handik pasatu izan ez banintz, ez nintzatekeen hemen zuekin gozo-gozo egonen. Seminarioari esker heldu nintzen Deustora; hara baino lehenagoko ikasketa guztiak Elizari esker egin nituen, etxean anitz ginelako. Eta gurasoak, egun osoz lan egiten zuten arren, aski po-break.

Zu ez zinen Deustoko pobre bakarra, eten dio Salaberriak. Nik bekei esker egin nuen batxilergo osoa, eta beka izan nuen Deuston ikasteko ere.

Eta osaba jesuita bat ere bai, bota dio Roderak.

Hori ere bai, baina urteetako nire ahaleginari esker lortu nuen Zuzenbideko lizentzia.

Goazen, Juanjo, esan dio Astorekak: hauek bietako zein den pobreena eztabaidatzen duten bitartean, postreak ekarri eta kafeak egiten hasiko gara.

Gazta, irasagarra, pastel koloretsu txikiak eta kafeak azpil batean paratuta itzuli direnean, Salaberria lezioa ematen ari da: Liburu gogoangarria da. Baina, niretzat, Manifestuak balio literarioa du, beste edozein gainera baino. Mamu bat dabil Europan barrena, komunismoaren mamua. Sublimea da. Inork ez du hasiera hain indartsua sekulan idatzi. Lepotik hartzen du irakurlea eta irakurtzen segitzera derrigortzen, mamu ustez izugarri horren berri jakin nahian. Zoragarria da hasiera hori, *Gerra eta Bakea* eta *Moby Dick* nobelak bezalaxe.

Ados. Baina Marxek ez zuen horretarako idatzi, munduko langileak batzeko eta kapitalismoa suntsitzeko baizik, esan dio Roderak.

Goñik: Hagitz solas interesgarria duzue, baina gin-tonic batzuk egitera noa, zintzur-mingainak freskatzeko bertzerik ez bada.

Astorekak: Bi hauei ez ekarri. Behar baino gehiago edan dute eta.

Gogaitu egin zaituztegu?, Salaberriak.

Hor nonbait.

Desenkusatu egin da Roderak: Zaudete lasai, ez dugu berriz aipatuko. Buelatu gaitezen emakume kontuetara, Kosme irrikatan dago eta.

Aukera politika edo andreak badira, andreak gura-go, nahiz eta betidanik politikan buru-belarri jardun. Ezelango duda barik.

Denok ados, Roderak.

Zer duzu emakumeez esateko, ba?

Astorekak: Gutxi. Begoñaren ondoan pasatu dut bizitza ia osoa.

Zerbait ikasiko zenuen berarekin.

Begoñarekin ikasi? Ez duzu ezagutzen.

Emakume ona da, Goñik.

Bai, oso ona, baina...

Baina zuk beste zerbait behar duzu, ondorioztatu du Salaberriak.

Ez dakit zer behar dudan.

Irakasle bat behar duzu, beharbada.

Kosmek dirudiena baino anitzez gehiago daki emakumeez.

Goñiren hitzak entzundakoan kopeta zimurto zaio Astorekari, baina kosk egin dio mihiari.

Baliteke, onartu du Salaberriak. Politikariak hala-koak dira leku guztietan; dakitena baino askoz gehiago edo gutxiago dakitela sinetsarazi nahi izaten digute. Halaxe gertatzen da Kalifornian ere.

Erran dizut, Kosmek ongi ezagutzen ditu emakumeak.

Mozkortuta zaude, Felix!, moztu dio Astorekak.

Larregi edan dugu denok, Salaberriak.

Ez kezkatu, Kosme, diotso Roderak, zuk eta biok ez dugu gidatu behar. Okerrenean, taxiz joango gara etxera.

Ni ere oinez joango naiz, esan du Astorekak; ea euriarekin eta haize hotzarekin burua argitzen zaidan.

Ez dugu berehala alde egingo, ezta?

Ez, jaunak, ez dago presarik.

Astorekari hitzaldirako gogoia piztu zaio: Niri mundu errealean bizitzea gustatzen zait, ez alegiazko batean. Eta errealitate horretan eragin eta, ahal dela, aldatu. Errealitatearen zati txikerrena ere gurago dut, egia esan, edozein fikzio baino, nahiz eta ipuin hori sano liluragarria izan.

Salaberriak adoretu egin nahi izan du: Ekintza gizona zara, beraz. Liburu sail oso bat idatzi behar nuke zutaz, eta zure balentrien berri eman, Barojak senide batekin egin zuen bezala. *Ekintzaile baten oroitzapenak*, liburua ikus dezaket, azal eta guzti...

Samu, ez duzu inoiz ulertuko zer esan gura dudan.

Nik ulertu dut, esan dio Roderak, eta errealitateari buruz esan duzuna musika iruditu zait, Marxek berak sinatuko zukeena.

Baina nire begiek jasotzen duten errealitatea eta zurek jasotakoa ezberdinak dira, nahiz eta biok gauza beraren aurrean egon. Hala ere, biok gura dugu errealitate horretan eragin eta hobetu; zuk suntsitzen, eta eraikitzen neuk; zu utopia ustez eder eta benetan hiltzaile bati begira, eta aurrerapenari begira neu; zu inora ez heltzeko arrapataka, eta urrats beharbada as-titsu baina sendoez neu.

Algaraka hasi da Roderak.

Baina Astorekak jarraitu egin du: Edozelan dela, batzen gaituena interesatzen zait, ez bereizten gaituena. Eta batzen gaituena grina da, munduan eragiteko grina. Hauek (Goñiri eta Salaberriari begiratu die) ez dute halakorik sekula sentitu. Ez dakite zer den.

Guk ez dakizkigun beste gauza batzuk jakingo dituzte!, zuzendu nahi izan dio Roderak.

Samuk nobelak egiten daki, liburu onak. Bada zer-bait. Ze, onartu gura ez badu ere, enpresa gizon bat da izatez, torlojuak barik kultura-edo egiten duena. Eta bide batez, gure herriaren eta hizkuntzaren izen ona munduan zehar zabaldu. Gure ordezkaria da, zelanbait.

Eta zer esan behar diguzu Felixi buruz?

Gizon ona da, baina grina falta zaio...

Politikarako, esan nahi duzu?

Gizon lasaia dela esan gura dut. Beharrerako eta familiarako du berezko grina.

Bai, familia da niretzat garrantzitsuena, onartu du Goñik. Baina zuretzat lana da nagusia.

Gauza bera dira niretzat beharra eta zaletasuna. Familiarena, oster, beste kontu bat da.

Bortz seme-alaba dituzunez, zeu zara horretan maisua. Juanjok pare bat, nik bakar bat baizik ez, eta Samuk deus ez.

Bi neskato zoragarri ditut!, esan du Roderak.

Salaberria ere sentimental ipini da: Ez dut haurrik eduki nahi izan, horrek maite nituen bizpahiru emakume galtzera bultzatu baninduen ere. Zorigaitzokoa ni.

Barre egin dute denek.

Idazle handia zara; Euskal Herrian ez ezik, mundu erdian ezaguna. Ez esan emakumeen faltan zabiltzanik.

Gauzak diren bezalakoak dira, eta ez uste dugun edo nahi genukeen bezalakoak. Idazten hasi nintzenean ametsetan ere espero ez nuena eta gehiago lortu dut, bai; baina horrek ez du esan nahi desiratzen dudan guztia eskura dudanik, batez ere emakumeez ari bagara.

Kopla gutxiago. Ez dizugu sinesten.

Egia esan, jarraitu du Salaberriak, orain arte ez, baina orain gustura izango nintzateke aita.

Gehiegi edan duzu!, Roderak.

Zaharregia zara aita izateko, Astorekak.

Zuzenean aitatxi bilakatuko zinateke, Goñik.

Gomendioa egin dio Roderak: Ni ere berandu samar izan nintzen aita eta, sinets egidazu, behin ere ez zait damutu.

Bat etorri da Goñi: Gizon batentzat ez dago aitatasuna bezalakorik. Maitek eta biok dugun pena handiena da haur bakarra izatea.

Eta orduan Salaberriak Astorekari: Zer moduz dabil zuen zaharrena? Ez-egitekoren bat egingo zuen orain ere...

Ganoraz dabil. Esan dizuet ume baten esperoan daudela.

Erabaki al dute izena?

Oraindik ez.

Juan Jose deitzen ahal diozue, iradoki du Salaberriak.

Rodera legez?

Ez, Ibarretxe bezala.

Lehendakaria...

Harritu egin da Salaberria: Ez al duzu Ibarretxe atsegin?

Zoaz pikutara!

Ez duzu batere maite, bistan da.

Alderdi gizona naiz ni. Alderdia edozein kide baino inportanteagoa da. Alderdia Garaikoetxea baino inportanteagoa zen, eta Ibarretxe baino inportanteagoa da orain ere Alderdia.

Etxera bidaliko duzue, beraz, Gorordo bidali zenuen bezala?

Ibarretxek ez du zerikusirik Gorordorekin. Zorionez.

Baina etxera bidaliko duzue, edonola ere.

Guk ez dugu inor bidaliko. Hura joango da etxera, lehendakari izateari uzten dionean.

Arzalluz joan zen bezala...

Arzalluz ez zen sekula lehendakaria izan.

Joder, Samu, emazu bakea behingoz. Ez gaude zure nobela horietako batean.

Inoiz irakurri al duzu baten bat?

Ez, noski. Denbora pasatzeko badauzkat beste gauza batzuk.

Maitaleren bat akaso?

Roderak ironiaz: Hauek kristauak dira; kontzientziak eragotzi egiten dizkie zuri hainbeste gustatzen zaizkizunak.

Kristauak dira, baina ez ergelak.

Astorekari gustatzen zaio kontrakarrean aritzea: Zuek zarete argiak eta bizkorrak! Ezkertiarrak!

Roderak: Alderantziz da. Argiak eta bizkorrak zuek zarete, eskuindarrak; zerbait esan eta, gero, esan duzuenaren aurkakoa egiten duzue.

Salaberriak: Horixe egiten dute politikari guztiek, eskuinekoek zein ezkerrekoek.

Ez naiz politikariez ari, ezkerreko eta eskuineko jendeaz ari naiz, gu bezalako jendeaz, alegia.

Inor ez da perfektua, esan dio Goñik Astorekari zeharka begira. Ziur aski horrexek egiten gaitu gizon eta emakume, horrek egiten gaitu benetan garena, izan eskuineko edo izan ezkerreko.

Oso ikuspuntu literarioa zurea, nobela bat idatz dezakezu.

Abokatu apal bat bertzerik ez naiz.

Ez hain apala, Felix, diotso Astorekak.

Salaberriak: Zu apala baldin bazara, zer da Juanjo orduan?

Roderak ez dio inori iritzirik ematen utzi: Ikasketaz abokatua den militante bat naiz ni, horixe izan naiz beti eta horixe naiz gaur egun ere.

Definizio ederra, txalo jo dio Astorekak. Neuk ere horixe esango nuke, inork neure burua definitzeko eskatuz gero. Lagako didazu erabiltzen?

Jabego pribatuaren aurkakoa naiz.

Erraz esan dezake hori zentimorik ez duenak.

Juanjo santu bat da. Laikoa, baina santua...

Isildu zaitezte, mozkor zikin horiek! Zuek uste baino gaiztoagoa naiz. Galdetu Itziarri bestela. Harenztzat deabrua bera naiz. Edan duguna edan dugunez, zerbait aitortu behar dizuet: sarritan desiratu dut diru

pixka bat, amets egin dut diruak nola erraztuko lida-keen bizimodua. Oso tentagarria da.

Tentagarria!, ahotsa goratu du Salaberriak. Santu hizkera, inondik ere.

Roderak ez dio idazleari jaramonik egin eta diruaz segitu du berriketan: Batzuetan hain eskura egonda... Ezer ez da musu-truk izaten ordea. Zerbait ematen di-zunak beste zerbait eskatuko dizu, zuk uste baino lehenago.

Ez zaizu Marx ahaztu, Salaberriak.

Hori jakiteko ez da ez Marx ez Engels ez Lenin ez Trotski irakurri behar. Bizitzearekin nahikoa da. Itziarrek ez du inoiz horien libururik irakurri eta ezin hobeto daki edozeren prezioa.

Ez dut zure Itziar ezagutzen, baina arras maitemindurik zaituela erranen nuke.

Salaberriak abisatu dio: Ezagutuko bazenu, erraz ulertuko zenuke. Emakume aparta da!

Asmatu duzu, Felix, zeharo maiteminduta nauka.

Zuk ere maiteminduta edukiko duzu bera, Astorekak.

Hor dago koska. Lehen maite ninduen, orain auskalo. Bigarren alaba izan genuen arte seguru nengoen, ondoren ez hainbeste.

Emakumeak!, hasperen egin du Salaberriak.

Ezin haiekin bizi, ezta haiek barik ere, Astorekak.

Salaberriak: Zergatik ez gara behin eta betiko maitemintzen? Zergatik ibili behar dugu emakumez emakume?

Astorekak: Denok ez gara Felix bezain zoriontsuak...

Zorionsua al zara ba?

Bai, oso zorionsua, onartu du Goñik. Gaztetan beste maite dugu elkar.

Bizkarreko bat jo dio Salaberriak: Zu ere bakana zara, Juanjo bezala.

Xelebrea erran nahi duzu, ezta? Baina normalagoa al nintzateke, maitalaren bat izanen banu?

Baietz Salaberriak. Eta baietz Astorekak ere.

Dibortziatuta egongo bazina behintzat, esan du Roderak.

Nahiago dut orain arte bezala jarraitu, horregatik jendeak xelebrea deitu arren.

Zeinen polita, iseka egin dio Salaberriak.

Astorekak irri: Erromantiko bat zara, Felix.

Eta Goñik: Erromantiko xelebre bat, nonbait.

Horixe, xelebre erromantiko bat.

Amultsu Salaberriak: Zu bezalakoak maite dituzte emakumeek, gizon leial, fidel eta erromantikoak.

Astoreka saskarra da: Ez gezurrik esan. Gizon bo-teretsuak maite dituzte emakumeek, dirudunak, ospe-
tsuak.

Emakumeak!, hasperen egin du berriro Salabe-
rriak.

Eta berriz ere emakumeei buruz solasean segitu
dute; maitasunaz, seme-alabez, politikaz, negozioez,
diruaz, saldukeriaz, inbidiaz, irrikaz, harreman arrisku-
tsuez, adiskidetasunaz. Eta edan egin dute, asko, de-
netik, harik eta botila gehienak hustu eta txokoaren
goxotasuna utzi behar izan duten arte, udazkeneko
gau euritsuan murgiltzeko. Zazpi Kaleetan galdu dira.
Eta alkoholak blaitutako haien hitzak lausotu egin ditu
etenik gabe erortzen segitzen duen euriak.

Gaua

Ateko txirrina. Begi bat ireki du erdizka. Burua mugitu du iratzargailuaren aldera. Ahal moduan egin dio kirik. Oihaneko goibeltasunetik begiratzen duen tigre baten begiak erlojuaren zenbaki berdeak. Ordu biak doi-doi. Albiste larrien garaia. Izerditan ditu esku-ahurrak. Emaztea lotan dago oraindik. Txirrina sakatzeari utzi gabe, atea jotzeari ekin diote mezulari oldarkorrek. Aldarrika ari dira. Diotena ulertu ez eta bizkor jaiki da Felix Goñi.

Orduantxe esnatu da emaztea.

Eneko?

Harekin topo egin du korridorean, etxeko aterantz doala.

Semea izututa dago bere gelako ate ondoan.

Ertzaintza! Abran!

Trumilka sartu dira, zalapartan, eta ezer adierazi ahal baino lehenago baztertu dute Goñi. Goitik behe-ra beltzez jantzita, agerian begiak besterik uzten ez dieten txano moduko bana buruan. Haietako batzuek, gainera, argi txiki bana daramate txanoetan edo fusi-

len muturretan. Guztien burua dirudienarengana jo duenean, haren mespretxuarekin tupust egin du bat-batean. Lasaitzeko eskatu dio, iseka silaba bakoitzean nabarmen. Bere menpekoei eskatu behar lieke hori, haiexek direlako asaldatuta dabiltzanak. Hala ere, kasu egin nahi izan dio eta sakon hartu du arnasa, gertatzen ari denaren azalpena exigitu aurretik.

Abokatua naiz, jakinarazi dio.

Ertzainburuak eskua praktetako albo sakela batean sartu, papera atera eta irakurri egin du:

Eneko Goñi?

Semea duela esaten hasi da, baina ez du esaldia bukatu. Paretaren kontra daukate Eneko. Lepotik heldu dio ertzain batek eta eskuburdinak jarri dizkio beste batek.

Edonor atxilotzeko edo edozer miaketa egiteko paperak behar dira, ordea, epaile baten baimena. Horixe gogorarazi dio polizien ustezko buruzagiari. Paperak eta lekukoak.

Por supuesto, esan dio hark, por supuesto. Gerri-kotik zintzilik daraman walkie-talkie modukoa hartu eta está todo hecho errepikatu du bi bider. Hori besterik ez. Nahikoa.

Ertzain gehiago etorri da. Epaitegiko idazkaria omen den gizontxo bat ere bai. Jakaz baina gorbatarik gabe jantzita, esku-hartzea baimentzen duen agiri legala erakutsi dio. Lekuko bat behar da miaketa haste-ko. Emazteari begiratu dio. Negarrez dago semearen aldamenean.

Yo seré el testigo.

Idazkaria konforme.

Atxilotuaren gelan hasiko da miaketa. Ohe azpian begiratu dute lehenik eta behin. Ondoren koltxoia haztatu dute kontu handiz. Armairuaren txanda heldu da gero. Zentimetroz zentimetro arakatu dute eta ohe gainera bota dituzte han gordetakoak. Gauza bera egin dute mahaiko tiraderak hustutakoan. Erabatekoa da nahaste-borrastea. Kartoizko kutxatan sartu dituzte eraman beharrekoak. Afixak erauzi dituzte hormatik, politikoak nahiz Athleticenak, eta kutxa haietako batera bota. Liburuak, bideoak eta paperak beste batean ipini dituzte. Bakoitzaren izena irakurri du ertzain batek, kutxan sartu aurretik: *ETAren historia*, *La Cloaca Vasca...* Txalapartak argitaratutakoak gehienak, guztiz legalak. Horri buruzko gaztigua egin die Goñik ertzainei. Umorez hartu diote oharra. Gainerako gelak ere taxuz arakatu dituzte, baina ez dute haietatik ezer

eraman. Gelaz gelako ibilbide horretan, etxea (Izur-tzarako bidean eraikitako txaleta) inguratuta dutela jabetu da, pertsianen zirrikituetatik ertzainen zigarreten puntutxo gorriak kanpoko ilunpean keinuka nabaritutakoan. Azkenean, miaketa burutu ostean, idazkariak paper bat sinatzeko eskatu dio. Sinatu egin du. Emaztea negarrez ari da oraindik ere, lasai dadin semeak egindako eskaerei men egin ezinik.

No hable. No puede hablar.

Atxilotuak, aldiz, amarekin hizketan segitu du: Trankil, ama, trankil.

Amarekin mintzo da, harik eta zaintzen duen ertzainak saihetsetan ukalondoaz jo duen arte. Arnasa hartzeko lanak dituela, nekez irtengo da hitzik Eneko Goñiren ahotik. Ama ari zaie semearen partez. Negar zotinari utzi gabe, hark ez duela ezer egin, aldarrika ari, bakean utzi behar dutela.

Komunerako premia duela adierazi die atxilotuak bere zaintzaileei. Entzungor egin diote hasieran, baina, Enekok amore eman ez duenez, haraino lagun-du diote. Han eserita, ertzain bat izan du aldi osoz bainugelako atetik begira. Komedia ero baten pasartea dirudi. Laburra, ordea. Ozta parentesi motz bat, luze gabe dira-eta ertzainek prestatutako dramaren er-

dian. Batez ere, semea eraman dietenean, senar-emazteak bakarrik geratu direnean.

Dardaraka ari da emaztea senarraren besoetan, negar egiteari utzi ezinik. Kaleko ate ondoan daude. Noizbait egongelaraino eraman du senarrak poliki-poliki eta bertako sofan utzi. Zergatik galdezka ari zaio nekagaitz. Jakin baleki.

Senarra sukaldera doa, ura berotzera. Egongelara itzuli delarik, erretilu bat eskuetan, malkoei eusteko ahalegin betean aurkitu du emaztea. Astoreka hitza osatu du, ahal moduan.

Telebista gaineko ordulariari so egin dio senarrak: laurak eta bost. Sobera goiz inori hots egiteko, esan dio emazteari, hil ala biziko kontu bat izan gabe tarteko.

Zer da ba gure honako hau, hori ez bada?, horra emaztearen begirada etsituak egin dion galdera. Bai, hala da, nola pentsatu besterik, sofan hondoratutako emakume horren bistan.

Pixka bat geroago deituko diot, egunabar aldera, hitzeman dio senarrak. Ohatzera itzuli behar duzu orain, atsedeen hartu. Neu arduratuko naiz guztiaz.

Ezetz emazteak, etxea apur bat txukundu arte ezetz.

Badugu lan puska bat.

Berehala ekin diote. Bada zer jaso eta zer bildu. Luze jardun dute lanean. Eta hizketan aldi berean, gertatu zaiena ulertu nahian. Ezin. Astorekak dena argituko dielakoan daude. Horretan bat datoz biak. Horregatik, emaztea oheratzea lortu orduko, haren telefono zenbakia sakatu du.

Luze jo du telefonoak aspaldiko lagunarenean, istantean ezagutu duen emakume ahots mesfidati batek nor ote den galdetu dion arte. Barkamena eskatu dio hain goiz hots egiteagatik, eta azaldu, hain kontu larriagatik ez balitz sekula ez zela tenore horretan deitzera ausartuko.

Felix!, ia oihu egin du Kosme Astorekak. Zer jazo da?

Kontatu egin dio.

Egon trankil, enteratuko naiz, segituan deituko dizut.

Telefonoa utzi ondoren, whisky botila eta edalontzi zabal bat jarri ditu egongelako mahai baxuaren gainean. Zurrut bat behar du kirioak laxatu eta errazago pentsatzeko. Badu zer aztertu eta hausnartu azken orduetako zurrunbilo zoroaz. Handik aurrerakoak ere ezin bazterrean utzi, gainera. Makina bat gauza dago

aintzat hartzeko, edozein urrats egin baino lehen. Badu horretarako astia, Astorekak ez baitu oraindik deitu. Telefono aldamenean eserita dago badaezpada ere. Noizbehinka jaiki eta logelara hurbiltzen da, emaztea nola dagoen begiratzearren. Kostata hartu du loak, baina noizbait nekeak errenditu du hura ere.

Bederatzi eta erdietan jo du telefonoak. Berri kez-kagarriak ditu Astorekak: Kale borrokako zenbait ekin-tza egotzi dizkiote. Kontu larri samarrak.

Non daukate?

Durangoko Ertzaintzan ez, Arkautin dagoela azal-du dio Astorekak.

Ikusi egin nahi dut.

Gaitza izango da, Audiencia ei dago operazioaren atzean.

Berdin dit nor dagoen. Ikusi egin nahi dut.

Ulertzen dut, baina ez dago zereginik.

Goñik argitasunak eskertu dizkio Astorekari. Eta hala eta guztiz beste ahalegin bat egiteko eskatu dio kartsuki.

Saiatuko naiz, baina... badakizu...

Bakea eman dio. Sukaldera joan da telefonoa utzi-takoan, kafea prestatu eta irratia entzutera. Hamarretako albistegian eman dute gertatutakoaren berri:

Atxiloketak izan dira bart Bizkaiko zenbait herritan; gazteak dira atxilotuak; kale borrokarekin lotu ditu Erztzaintzak; Durangon, Iurretan eta Berrizen atzeman dituzte. Horixe ikasi du kikara kafez bete bitartean. Irratia itzali eta egongelara bueltatu da. Telefono aldamenen eseri da berriro. Bere idazkariari hots egin, semeari gertatutakoa labur kontatu eta egun hartarako dituen hitzorduak bertan behera uzteko manatu dio. Premiazkoa den zerbait sortuz gero, deitu erreparorik gabe.

Etxean igaro du goiza, emaztearen aldamenen. Eguerdian izan du Astorekaren bigarren deia:

Javierregaz beragaz egin dut berba eta lehen esan dizudana esan dit osterara ere. Madrilgoak dagoz denaren atzean eta, hortaz, hark ere ezin du ezer egin.

Barne sailburua da Javier, legegizon bilbotarra: Javier Balza. Kopetilun dago Felix Goñi telefonoa utzita koan. Balza pixka bat ezagutzen duela onartu dio emazteari.

Zuzenean berari dei egiteko moduko konfiantza baduzue?

Zertarako, Kosme bezalako norbaitek ez badu deus lortu...

Lagunarengan jarritako esperantza zapuztuta, bada beste irtenbide baten bila hasteko garaia. Aise erraten da gero: beste irtenbide bat. Zein, baina?

Eskua oratu dio emazteak: Trankil, Felix, aterako gara honetatik ere. Borroka egingo dugu.

Abokatu bat behar dugu, esan du senarrak.

Zer zara ba zeu?, harritu egin zaio emaztea.

Ekonomi alorrekoa naiz ni. Salerosketez eta negozio kontuez arduratzen naiz, ez auzi politikoez.

Juanjo Roderak!, otu zaio bat-batean, eta haren zenbakiaren bila hasi da.

Mesfidati begiratu dio emazteak: Horrek ez al du sindikatu batean behar egiten?

Bai, CCOOn. Han ari zen ikusi zuen azken aldian.

Gurea auzi politikoa dela ulertu dizut. Halako kasuekin eskarmentua duen norbait behar dugu, ez beste inor!

Aditu bat. Ederki, atzera egin du senarrak, aurrera egiteko ondoren: Roderak ezagutuko ditu aditu onenak!

Txistu kirrinkariak besterik ez ditu entzun Goñik hariaren beste muturrean.

Juanjo?

Bai, neu naiz, egunon. Nor zara?

Deika zergatik ari zaion Goñik azaldu bezain laster adostu dute hitzordua arratsaldeko seieterako, Bilbon, gaztetan biek ondo ezagututako Cantábrico tabernan. Goñi bostetarako heldu da hirira. Autoa parkingean utzi eta Gran Vian behera jaitsi da astiro. Zubia zeharkatu eta Somera kalerantz abiatu da. Verdes liburudendan sartu da aurrena, liburuei begira, hitzordua baino hamar bat minutu lehenago arte. Tabernara hurbildu denerako, han dago Roderak, garagardo bat eskuetan duela.

Gertatu den guztia berriz kontatu behar didazu, eskatu dio. Telefonoz baino apur bat lasaiago, aukerarik.

Saiatu da Goñi. Zehaztasun itxuraz hutsalenei ere erreparatu nahi izan die. Noizbait amaiera eman dio kontaktari eta Roderaren iritziaren zain geratu da. Hark, aldiz, mutu jarraitu du; zigarreta bat atera, amnistia aldarrikatzen duen txiskeroaz isiotu eta luzaz gorde du kea biriketan.

Aspertu egin al zaitut?

Ezetz, Roderak, inolaz ere ez. Pentsatzen ari izan dela.

Izutu egin zaitut orduan?

Okerragoak eta sinesgaitzagoak entzuten ohituta nago.

Zu, ordea, kontu laboraletan mugitu izan zara beti...

Baietz, urtetan jardun zuela horretan, baina betiko sindikatutik kanporatu egin zutela eta arloz aldatu behar izan zuela derrigorrean. Gestorentzat lan egiten dut orain.

Orduan Goñi izan da harrিতa geratu dena. Ohartu da Rodera. Egiten duen lana azaltzeari lotu zaio, zailtasun eta ajeak aipatu dizkio, baita noizean behin eragiten dizkion ustekabeak ere.

Ahal dudan guztia egingo dut zuen semearen alde, zin egin dio.

Hizlari trebea da Rodera, erdaraz nahiz euskaraz, hainbeste *eleder* dabilen beren lanbidean ere nabarmentzekoa. Emazteari azaldu dio etxeratu orduko. Eta hala ere, ez naiz fio, aitortu dio. Eneko Gestoretako abokatu batekin epaitegira agertuz gero, horregatik baino ez, badakit begitan hartuko dutela han, eta hori da hain zuzen Enekok gutxien behar duena. Hori alde batetik. Bestetik, mesfidati zaio Rodera abokatu duen erakundeari. Askatasuna kenduko ote dioten beldur

da, haien helburu politikoen mesedetan manipulatu eta txotxongilo baten moduan erabiliko duten. Halaxe aipatu diot Roderari berari, esan dio berarekin bat datorren emazteari.

Eta?

Arazorik ez. Roderak zerbait zirriborrotu du tabernako musuzapi batean: Tori, gu baino gazteagoa da; abokatu bikaina! Eta batez ere, ez da Gestoretakoa, ez eta abertzalea ere. Lasai egon zaitezke.

Isilune bat sortu da orduan gaztetako bi adiskideen artean, Roderak bizkor hautsi nahi izan duena:

Zer daramazu hor?, galdetu dio Verdes dendako zorroari begira, gure Samuren azkena?

Bai, *Itsasargiak* nobela.

Noizbait beste afari bat egin beharko dugu, aspaldiko haren antzekoa.

Ezagutzen duen jakin nahi izan du emazteak, Roderak Cantábrico tabernaren musuzapian idatzitako izena erakutsitakoan.

Ikustez ezagutzen du, esan dio senarrak, baina ziur da onena dela.

Eta besteak?

Zein bertze?

Enekoren lagunak.

Enekoren lagunak, noski, Roderak ere aipatu dizkio. Gorritu egin da, emazteak egunkaria pasatu eta bertan haien izenak irakurrita. Bakarra ezagutu dute: Aritz Zengotita, durangarra, beren semearen lagun mina. Mutil tximadun, ziri bat bezain mehea, Enekoren ikaskidea eta, itxuraz behintzat, baita gogaidea ere. Haren gurasoei deitzea erabaki dute. Ordu erdi geroago bertan dira.

Gestorekin harremanetan gaude, haien abokatuak arduratuko dira gure semeaz.

Gainerako atxilotuen gurasoek ere haien modu berean jokatuko dutela jakinarazi diete. Nahiko laburra izan da zengotitarren bisita; hartu dituzten erabakiak garden eta azkar azaldu, eskainitako edariak bukatu eta ospa egin dute, harremanetan segituko dutela agindurik.

Hobeki ez!, esan du Goñik, atea itxi eta berehala. Hobeki geure kasa! Ikusi orduko jakin dut kontuak ez zuela funtzionatuko. Antzeko iritzia dauka emazteak ere: Eskerrak ez diezun Roderak gomendatutako abokatuaren aipamenik egin. Sofan eserita daude, eskuetik lotuta, Aritzen aitaz eta Gestorez gaizki esaka se-

narra eta bere baitara bilduta emaztea, begirada leihotik kanpo nonbait atxikia. Luze egon dira honela, zeru zati bateko hodei beteei so egiten, emazteari zalantza izpi bat sortu zaion arte:

Ez ote da onena izango denok batera joatea?

Haserretu egin zaio emazteari: Horren gainean so-lastatu gara lehen, eta ados izan gara. Emazteak bereari eutsi dio: Bihozkada bat da. Ezetz senarrak, behin eta berriz ezetz. Emaztea gero eta sinetsiago: Hobeto elkarregaz. Eta senarrak: Seguruago bakarka, ez dugu jendilaje horrekin nahastu behar. Baina emazteak: Batuz gero, indar handiago.

Astorekak lagunduko digu agian, tematu da Goñi.

Horregaz oraindino? Ederra zagoz ba!

Oheratu direnean, elkarrengandik ahalik eta urru-nen etzan dira, eta nork bere ertzari eutsi dio gau osoan.

Doctor Areilza kalean, Gran Viatik hurbil dauka bulegoa Antonio Maizek, Roderak gomendatutako abokatuak. Idazkari batek harrera egin eta hitzordurik ote duen galdetu dio. Goñik bere txartela atera du. Txar-

tel jaso berria esku batean daramala, bere atzeko atea ireki du idazkariak.

Adelante, por favor, Goñi, adelante, gonbita egin dio Maizek, bostekoa eskainiz. No nos conocemos, pero he oído hablar mucho de usted. Horra zer esan dion (gaiztoz?) agurtu eta berehala, bisitaldi goiztiar eta ustekabeko haren zergatiaz galdetu baino lehena-go. Zehatz, argi eta ahalik eta laburren saiatu da horraino ekarri duena azaltzen.

Azkar ulertu du Maizek. Lan handia, lan pilo izugarria duela esan dio eta orain ez dakiela, ezin duela jakin kasua hartzeko gai izango den, ahaleginduko dela, hori bai, baina oraindik ezin diola ezer ziurtatu. Arratsaldean deituko diola eta bere erabakiaren berri emango. Entre colegas, lo que sea, esan dio eskua estutuz, besotik erauzi nahi izango balio bezala. Marrazo ederra Maiz hura. Denean ezagun du, hizketa moduan, mugitzeko eran, barre egitekoan. Halaxe esan dio emazteari, ostera adiskidetu direnean, bezperako haserrealdia ahantzita.

Maiz ona da, hori argi dago, esan dio. Baina ezetz erranen digu.

Zelan dakizu?

Abokatua da. Badakit zertaz ari naizen.

Eta orain?

Zenbaki bat osatu du telefonoan. Juanjo?

Cantábricora bildu dira, beti bezala. Zerbait gertatu al da, jakin nahi izan du, hilabete luzetan elkar ikusi gabe egon eta gero, azken bi egunetan batu izanaz kezkatuta. Enekoren lagunen gurasoekiko bilera aipatu dio; ez, ordea, Maizi egindako bisitaldia.

Enekoren abokatu izan zaitezzen nahi dut, bota dio.

Gestorak aipatu dizkio Roderak. Ezetz, bera nahi duela eta ez beste inor.

Kolektibo bat gara, Felix, talde bat; eta halako erabakiak taldeak hartzen ditu.

Ongi da, baina saia zaitez zu zeuk hartzera, eskatu dio Goñik.

Ahaleginduko naiz.

Gero, etxean, bere egonezina azaldu dio emazteari, Roderari isildutakoaz damu. Traizionatu egin ote duen, Astorekak haiekin jokatu duen bezain doilor ez ote duen Roderarekin jokatu.

Agiraka hasi zaio emaztea: Ezin dira bi kasuak alderatu. Hasteko, Kosme duzu benetako laguna, aspaldikoa, ez Roderak. Eta gainera, ez diozu ezer egin. Kontutxo bat isildu, zer traizio mota da hori? Zuk ez duzu haren semea torturatu gero!

Hurrengo eguna oso luzea izan da bientzat. Enekoren egoeraz kezkatuta, egongelako sofan eserita eman dute, telefonoak noiz joko. Maiz abokatuari hots egiteko komenientziaz eztabaidatu dute. Emazteak deitu egin nahi dio, senarrak ez. Edo, beste modu batera esanda, hark ere nahi du, baina uste du ideia txarra dela, abokatuari utzi egin behar zaiola bakean. Bakean eta lanean. Halaxe utzi dute, jakin-minak amorratuta ere.

Eta egunak pasatu dira. Horietako batean telefonoa entzun da goñitarrenean. Maiz izatea espero izan dute, baina, bien harridurarako, Kosme Astoreka da. Madrilen dago. Enekoz zer dakiten jakin nahi du.

Zain gaude, azaldu dio Goñik. Gero eta ikaratuago gaude.

Lasaitzen saiatzeko aholkatu die Astorekak, eta arin deituko diela agindu.

Nola lasaitu, baina, semea non eta nola dagoen zehazki jakin ezean. Hori da benetan axola diena. Gainerakoa hutsala da. Enekoren falta eta denboraren zama, horra zer sentitzen duten bizien. Egunkariak irakurtzen dituzte muturrez mutur, noizbait Enekoriburuzko albisteren bat nonbait agertuko delakoan. Denbora pasatzen laguntzen diete egunkariek. Minga-

riak ere izan daitezke, ordea. Kale borrokaren aurka-ko editorialak dakartzate eta zigor gogorrak eskatzen dituzte halako ekintzak egiten dituztenentzat. Gauza bera eskatzen da zuzendariari bidalitako zenbait gutu-netan. Enekoren gurasoentzat erdiragarria da.

Errugabetasun ustekizunari muzin egiten diote ka-zetariak eta epaitu aurretik ere edonor kondenatzeko ahalkerik ez dute. Eneko-eta munstro gisakoak dira haientzat, hiltzaile errukigabeak, gizarterako arrisku-tsuak, eta bizi osorako espetxealdia merezi dute gu-txienez; hori edo, herritarren hobe beharrez, basapiz-tiak bezala akabatzea. Halakoak sinetsaraziko dizkie-te *El Correo*, *El País* edo *Deiaren* irakurleei ere. Minga-riak dira egunkariak eta saiutzen da batzuetan emaz-teak irakur ez ditzan.

Jaso du noizbait Maiz abokatuaren deia. Ezetz esan dio, espero bezala, prozesu luze eta korapilatsua izango dela, eta ezingo duela Enekoren alde berak nahi bezala lan egin. Azkenean, oso onak omen diren beste bi abokaturen izenak eman dizkio. Maizek erabi-litako antzeko zurikeria erabili du berak ere, eta go-mendioa eskertu dio. Argia bezain ibilia da Maiz eta badaki galtzeko gehiegi duela. Semearen eta bere la-gunen defentsa hasi berri batentzako moduko lana

da, hasi berri batentzat edo ero batentzat bestela. Juanjo Roderak bezalako ero batentzat.

Biharamunean hots egin die Roderak Madrilgo Auzitegi Nazionaletik: Berri onak eta txarrak ditut.

Txarrak lehendabizi.

Epaileak espetxera bidali ditu denak.

Eta onak?

Astelehenera arte baino ez.

Beste epaile batek hartu behar du Enekoren dosierra, baina, asteburua izaki, astelehenera arte ezin bigarren epailearen aurretik igaro eta horrexegatik espetxealdia. Amorragarria da: arazo burokratiko batenegatik gazte errugabe batzuk hiru egunez preso. Errugabeak direlako, ezta? Baietz, hala adierazi diote epaileari. Enekok bai behintzat. Gezurra da Arkautin sinatutako guztia. Eta, hala ere, barrura.

Bai, barrura.

Zer egin behar dugu orain?

Astelehenera arte ezer ez.

Jo egin al dute?

Bai.

Emazteari isildu egin dio lagun zaharrak esanda-koa. Horren orde, igandean bertan Madrilera joango

direla iragarri dio, astelehenean goizean goiz Auzitegi Nazionalaren parean egoteko.

Negarrez ari da emakumea: Kartzelan daukate, kartzelan!, errepikatu du, kontsolagaitz. Antzera ari dira beste atxilotuen amak ere, Karlos Zengotitak kontatu dionez. Haiek ere Madrilera joango dira eta denak batera abiatuko ote diren jakin nahi izan du. Eskaintza eskertu dio Felix Goñik, baina beren kasa joatea nahiago dutela erantzun dio, elkartuko direla Auzitegiaren bertan. Jendakiak ditugu Madrilen eta haiengana joanen gara, gezurra esan dio Zengotitari. Aurreikusitako bezala, igande goizean abiatu dira Madrilera eta Auzitegitik hurbil dagoen hotel batean lo egin dute.

Goizeko zortzietarako Auzitegiaren aurrean daude, Eneko noiz ekarriko zain. Geroago, beste atxilotuen senide, emaztegai eta lagunak iritsi dira, denak minibus berean. Haiekin etorri da Leire ere, Enekoren neska. Gehienek beraiek bezain larrituta dirudite, logura eta oinazea betzuloetan nabarmen. Aurkezpenak Zengotitak egin ditu. Nola mugitzen den ikusita, bistan da Auzitegia ezagutzen duela, behin baino gehiagotan egon dela han. Dagoeneko norbait ekarri duten

galdetu diote. Ezin erantzun. Orduan Zengotitak, Auzitegiaren garajeko ateari begira, berriz galdetu: Guardia Zibilaren furgonetaren bat sartu al da hortik? Nik ikusita ez, behintzat. Ate haren aldera mugitu dira, furgoneta edo autobus berde baten esperoan.

Ordu erdi geroago heldu da, dena zarata, lehena. Mercedes furgoneta bat da, leiho gabea. Telebistan hamaika aldiz ikusita ondo ezagutzen duten eszena bat gertatu da, oraingoan beraiek antzeztua: Poliziak zaindutako hesi beilegi metalezkoaren atzetik *Gora Euskadi askatuta* deiadar egin dute, furgoneta beren paretik abaila bizian igarotzean. Eszena beste hiru aldiz errepikatu da, beste hiru aldiz *Gora Euskadi askatuta* aldarrikatu eta beren senitartekoen izenak oihukatu dituzte, jakin gabe haiek furgoneten barruan doazen.

Duda egin du Goñik. Baietz Zengotitak, aditu dituztela eta badakitela hemen kanpoan lagunak dituztela.

Itxaron egin behar izan dute Juanjo Roderak Auzitegiko atean agertu den arte. Jaka eta gorbataz jantzita, eskuan paper-zorro bat dakarrela agertu da. Berehala inguratu dute atxilotuen senide eta lagunek.

Bostak Sotora!

Isiltasuna erabatekoa da abokatua inguratzen dutenen artean.

Arin pasatu ahal izango zarete ikustera.

Eta Goñirengana itzuli da gero: Hauteskunde giroan gaude. Zorte txarra gurea.

Ba al da hemen zorte onik?

Ez, euskaldunentzat ez behintzat. Eta berdin dio epailea nor den; denak, justizia egiteko baino, beren ibilbidea edertzeko daude hemen. Hori besterik ez dute helburu eta kezka.

Eneko Goñi Belategi, irakurri du polizia batek. Sonustedes los padres?

Baietz. Nortasun agiriak eskatu dizkie poliziak. Ordenagailu batean zerbait idatzi ondoren, aurrera segitzeko baimena eman die. Beste polizia baten atzetik joan dira, eskailera batzuetan behera. Ate baten aurrean geratu da polizia. Ireki eta argia piztu du. Sartze-ko esan die. Gela huts eta estu batean daude. Kristal bat ikusi dute eta bi aulki kristalaren parean. Kristalaz beste aldean ozta antzeman daiteke ezer. Poliziari begiratu diote.

Siéntense. Enseguida lo traen.

Muturik jarraitu dute, ikusi barik sumatzen dituzten mikrofonoen edo kameren beldur balira bezala.

Hala egon dira, eskutik helduta, urrunean zarata bat entzun uste izan duten arte. Elkarri begiratu eta, hitzik trukatu gabe, batera jaiki dira. Zarata gero eta hurbi-lagoa da. Ixten eta zabaltzen diren ateena. Kristalaz beste aldean argi bat piztu da halako batean. Eserita dauden aulkien antzeko bat dakusate, eta atzean ate bat. Hari josita begiak, luzetsi dute zabaldu arteko tar-tea. Polizia bat sartu da aurrena. Ondoren zerbait gorria antzeman dute: Enekoren anoraka. Kristal zikina ukitu dute, semea ukitu nahian. Irribarrea agertu da Eneko Goñiren ahoan, gurasoak ikusi orduko. Une ahantzezina hirurentzat. Elkar ukitu gabe ere, inoiz baino batuago daude, inoiz baino trinkoago uztarturik. Hunkituta daude. Negarrez gurasoak. Negarrik ez egiteko eskatzen ari zaien semeak ere malkotuta dauzka begiak. Ziztuan igaro dira Espainiako Justiziak oparitutako hamar minutuak. Vayan despidiéndose, se ha acabado el tiempo.

Eneko libre ikusi arte ez dut bakerik izango, esan du mutilaren amak. Azken odol tantaraino borrokatuko direla zin egin diote elkarri, etxerako bidean. Aurre-ra egiteko asmo sendoa dute, horixe baita egin dezaketenen bakarra.

Itxura eskasa zeukan, arranguratu zaio emaztea. Seguru torturatu egin dutela. Denak torturatzen dituzte.

Ez dut uste, gozatu nahi izan du senarrak. Itxura kaskarra zuen, jakina, baina aurreko egunetako nekearengatik. Laster etorriko da bere onera, sinetsarazi nahi izan dio. Zaila, berak ere ez baitu sinesten. Batez ere, handik hiru egunetara Juanjo Roderak Cantábricoko hitzorduan kontatutakoa entzun ondoren.

Gogorra izan da, Felix. Arkautin pasatu zuen okerrren. Oso estu hartu zuten...

Goñik dardaraka dauzka eskuak.

Besteak baino apur bat hobeto erabili zuten, lasaitu nahi izan du. Baina denetarik egin zieten bostei: burua urpean ia ito arte sartu, elektrodoak lotu gorputzaren zenbait ataletan, ostikatu... denetarik.

Bertzeak baino hobeto? Zergatik? Astorekagatik izan dela uste duzu?

Baliteke.

Eta orduan, zergatik segitzen du kartzelan?

Sinatu zuenagatik.

Ez al dizkiote epaileari torturak salatu?

Salatu dizkiote, bai. Eta entzun egin ditu. Baina Sotora bidali ditu denak, ezer aditu izan ez balu bezala.

Hara Justizia!

Badakizu zer esan zion epaileak zuen semeari Sotora bidaltzean? *Zuk ulertuko ez zenituzkeen arrazoiengatik kartzelatu behar zaitut.*

Kartzelan sartu zutenetik isolamenduan dute semea. Isolatuen moduluan, alegia, berarekin atxilotutako gainerakoak ikusten utzi gabe. Denbora gehiena ziegan edo txaboloan (hangoek dioten moduan) igarotzen du, gimnasia egiten ero baten antzera. Bestela, eraman ohi dizkioten liburu eta futbol aldizkariak irakurtzen ditu eta lagunei eskutitzak idazten. Patiora, berriz, beste euskaldun batekin batera ateratzen dute, Eneko baino hogeita hamar urte zaharragoa den Jokin izeneko tolosar batekin. Horren gaineko hitz bakoitzean nabaritzen zaio Enekeri zein miresmen handia dion, zein eredugarri zaion. ETAkoa izan da hogei-taka urtez, zenik ere sekula inork susmatu gabe. Zoria kontra ipini zitzaion aldi bakarrean harrapatu zuten, beste norbaitek egindako akatsa zela medio. Enekok

kontakutakoaren arabera, mekanikari bikaina da, eta ETak erabilitako hainbat trepetan asmatu omen zuen. Horixe zuen eginkizun bakarra erakundean eta horretan jardun zuen isilpean urtetan, jendeak ETaren kontrako amorratua zela sinesten zuela. Hiru seme-alaba dauzka, kontatu die Enekok, Aitite esaten diogu.

Aitite horren inbidiatan nago, aitortu dio emazteari. Zer naiz ni semearentzat? Burges puta bat baizik ez, herriari bizkarra emanda, bertan gozo bizi den halako berekoi alaien bat.

Ez, Felix, Enekok ez dizu sarri esaten, baina maite zaitu, zagoz seguru.

Zorioneko Aitite horrek jasotzen duen maitasunaren herenarekin ere, ni kontent.

Ez esan txorakeriarik...

Txorakeria iruditu zitzaizun batzokioa ere eta orain badakizu nik azaldu bezala izan zela.

Behin, Ezkurdiko batzokian eguerdiro bezala sartu eta bertan zeudenek hitz beste egin zuten, Goñi ikusi orduko, haien begitartek eta barre-argara gehiegizkoek aditzera eman ziotenez. Ezer susmatu izan ez balu bezala jokatu zuen: bermut bat eskatu, Athletici buruzko hiruzpalau ergelkeria esan eta, emaztea bazkaltzeko etxean zain zuela aitzakia, alde egin zuen

handik. Harrezkero, negoziok behartu dutenean soilik agertu da hara.

Durangotik Soto del Realera eta handik Durangora buelta, joan-etorri horretan mamitzen da senar-emazteen bizitza. Guztira lau hilabete luze eman ditu Enekok kartzelan.

Tarte horretan maiz egon da haren aita Juanjo Roderarekin. Cantábricora elkartzen jarraitu dute, baina askotan, bertan geratu ordez, trago bat hartu eta beste taberna batera jo izan dute eta, ondoren, beste batera, gazte zireneko ibilbidea oharkabean errepikatuz. Hitz aspertu galantak egin izan dituzte. Beste aldi batzuetan, berriz, lanpetuegia ibili da Roderahorretarako. Hala ibiltzen da nahi baino gehiagotan, Gestoretako beste abokatuen modura. Poliziak euskal gazteak atxilotzen bezain lanpeturik ia. Gogor dihardute eta rren kumeak omen direnen aurka, kale borroka deritzatenarekin behin betiko bukatzeko ahaleginean. Fiskalak eta epaileak bezalaxe. Etengabe ari dira euskal gazteak presondegietara igortzen.

Honela segituz gero, diotso Roderak, kartzela gehiago egin beharko dute. Beharbada leku faltan utzi dute Eneko libre. Nolanahi dela ere, haren kontrako epaiketa hasi arte etxean egon daiteke.

Roderak eta Leirek lagundu diete Sotoraino. Enekok itxura on samarra du, eta izugarrizko poza sentitu du bere burua kalean ikusi duenean. Denak pozez ezin kabiturik daude, aparretan, hainbeste non barrez hasi baita askatu berria. Familia zoriontsu bat. Elkar besarkatuta, bat dira, batasun hautsezin bat. Horrek emandako indarrari esker onik irtengo dira edozein atakatatik, baita gaiztoen eta petralenetatik ere.

Goazen hemendik lehenbailehen, eskatu die Roderak, norbait zuen semea askatzeaz damutu eta ostera atxilotzeko agindu baino lehen. Erokeria dirudi, baina gerta daiteke, edozer gerta baitaiteke Espainiako Erresuman eta, bereziki, hango epaitegietan. Nahikoa da norbaitek zerbait idaztea egunkariren batean, epaile batek atzera egin eta ozta egun batzuk lehena-go hartutako bere erabakiaren kontrakoa hartzeko, Estatuak asmatutako *alarma social* delakoa aitzakia. Edozerk eragin dezake alarma hori, nahieran sor dezake Estatuak, inork ez duela salatuko guztiz seguru. Nork salatu behar du, kazetariak, abokatuek akaso? Nekez. Beldurragatik batzuei edo egoerari etekin ederra ateratzen diotelako beste batzuei, denei komentatu zaie orain arte bezala jarraitzea.

Eta besteak, Aritz eta?

Barruan jarraituko dute oraingo, azaldu dio Ene-
kori bere abokatuak; baina arin egongo dira kalean.
Hala uste dugu behintzat.

Asmatu du Roderak, Enekoren atzetik beste laurak
ere askatu baitituzte banan-banan hurrengo aste eta
hilabeteetan. Luzeen egon denak zazpi hilabete eman
ditu kartzelan, Eneko Goñik baino hiru hilabete gehia-
go.

Durangon egun gutxi batzuk igaro ondoren, Eneko
mendira joan da Leirerekin, Erronkari aldera. Soton
zegoela, askatasun aginduak eragin zion aztoramen-
du alaia, urduritasun amultsua denboran luzatu da eta
nahiko lukeen sosegua eragozten dio. Oraindik ere
sentiberegi dago. Lan du kartzelatik kanpoko mun-
duari egokitzeko, bertan laketzeko. Bere baitako zu-
rrunbiloa baretzearen joan da mendira.

Handik itzuli denean, aldiz, kolore oneko itzuli da,
atxiloketa eta gainerako guztia aspaldi ahaztutako
amesgaizto bat izan balitz bezala. Entrenatzeari eta
ikasketei jarraitzekotan da gainera. Inondik ere, albis-
te pozgarria gurasoentzat. Haiek ere ahaleginak egin
dituzte azken hilabeteetako lokamutsa ahazteko. Gel-

dialdi zoritxarreko baten ondotik biraka segitu dezake bizitzaren gurpilak. Eta hala segitu du, menperagaitz. Zoriontasuna posible eta eskuragarria dela iruditzen hasi zaie atzera. Elkarrekin daude berriro, lasai eta gozo.

Zoriontasuna, ordea, brau zapuztu zaie, semeari zerbait gertatzen zaiola jabetu orduko. Etxeratu eta gurasoekin geratu ordez, berehala bere gelan sartu eta handik irten gabe ematen ditu orduak. Jateko eta Leirerekin hitz egiteko baino ez du irekitzen ahoa. Solasaldi bukaezinak izaten dituzte telefonoz, eta apal solastatzen dira inork entzun ez ditzan. Gurasoak kezkatuta ditu eta nola jokatu behar duten asmatzen saiatzen dira. Ama mintzatu zaio azkenean. Semea mintzeko beldur, arreta handiz aukeratu du hitz bakoitza:

Ez dut zure bizitzan sartzeko asmorik, baina triste samar ikusten zaitut.

Ahalik eta modu gozoenean erabili badu ere, ezer gutxi atera dio semeari. Ondo dagoela eta alferrik ari dela kezkatzen esan dio hark, hobe duela bere kontuez arduratzea. Mina eragin dio horrek amari, baita egindakoaz nahiz egin gabeaz damua ere. Hamaika buelta eman diote semearen egoerari, eta beren ezi-

nareskin topo egin dute beti. Irteerarik gabeko kale batean daude, ilunpe gotor batean. Eta hor egon dira emazteari irtenbidea bururatu zaion arte: Leiregaz berba egingo dugu.

Hark adierazitakoaren arabera behintzat, gezur, laido izugarri baten erruz dute semea hain makur, hain ilun eta erorita. Norbait herrian zabaltzen ari dena sinetsiz gero, Enekoren aurkako frogak ezari baino beste arrazoi nabarrago bati zor dio askatasuna bere lagunak baino lehen lortu izana. Luze gabe ohar-tu da senarra bera dela Durangalde osoan zehar hedatzen ari diren esamesen funtsa, bera eta bere ustetako lagunak, noski. Ia batzokian bizi delako eta Atutxaren lagun mina delako jakin izan du jo beharreko atek jotzen eta egin beharreko telefono deiak egiten, semea aska dezaten, beste atxilotuen gurasoek ez bezala.

Nekez egin du lo gauez. Amorruek eragotzi dio. Ohetik jaiki da azkenean eta gaiztakeria hura zabaltzen diharduenarengana berehala joateko gogo bizi bezain zentzugabeari eutsi behar izan dio. Norengana jo ez dakielako, batez ere. Lo egiteko arazoak dituen emazteari galdetu dio.

Ez dakit. Esan dizut.

Aspertuta du emaztea, baina berriz ekin dio: Galdetu al diozu Leireri?

Bai, baina hark ere ez daki.

Ez dut sinesten. Baldin eta erraten ari dena badauki, jakinen du nor erraten ari den. Ez duzu uste?

Haserretu egin zaio emaztea, dakien guztia kontatu diola eta berak berba egiteko Leirerekin, nahi izanez gero.

Zuri kontatu ez dizuna ez dit niri esango, argi dago. Eta hori bezain argi, Eneko eta Leire, biak, ikaragarri sufritzen ari direla ere.

Jira eta bira jardun dute ohean, begiak itxita eta korapiloa nola askatu asmatu ezinik. Makina bat astakeria pasatu zaio senarrari burutik. Gezur saltzaile eta mihiustel posibleen zerrenda osatu du. Laburra da. Izen bakar batek osatzen du: Karlos Zengotita. Izen bakar horrek, ordea, mundu oso bat ordezkutzen du Felix Goñirentzat, ezker abertzale edo dena delakoa-rena. Betidanik mesfidantza eragin izan dion mundua. Mesfidantza eta beldurra. Gauzak zuri-beltzean dakuskite eta areriotzat jo ohi dute haiekin bat ez dato-rrena. Erraz irudika dezake Zengotita Herrikoan, bere kontura gaizki esaka: Goñi fatxa hori!, burges alu hori! Horrelakoak eta okerragoak ere jarri ditu haren aho-

tan, gau eternalean. Eta madarikazioez gain, haren barre algara ozenak ere entzuten ahal ditu ohetik. Arinduta geratuko zen Zengotita, zabor hura guztia haien gainean botatakoan, baiki. Kosme Astoreka ere etorri zaio gogora. Lagunak!, hasperen egin du Goñik. Eta antzeko zer edo zer esan beharko luke Enekok ere; azken batean, bere lagun *handiengatik* dago dagoen bezala, hain errukarri.

Emazteak eta Leirek Enekori buruz hitz egiteko biltzen jarraitu dutenez, semearen egoeraren berri nahiko zehatza daukate: gero eta paranoikoago dago. Denbora gehiena Leireren etxean ematen du eta handik irteten den gutxietan kale bakartienak aukeratzen ditu, inorekin topo ez egitearren. Gaizki begiratzen diotela uste du, eta, Leirek dioenez, ez dabil guztiz oker, nahiz eta Enekok susmatu bezain ugariak ez izan bere kontrarioak. Direnak direla ere, gehiegi dira goñitarren semearentzat. Aski bizipoza eragozteko. Horregatik baketu dira gurasoak, Durangotik alde egin eta Bilbora bizitzera joango dela iragarri dienean. Leirek eta biak elkarrekin bizi nahi dutela jakinarazi die, Bilbo Durangotik hurbil baina nahiko urrun ere bada-goela, eta hiri handia dela, inork ezagutu gabe trankil bizitzeko aproposa. Aspaldi espero izan duten eraba-

kia azkenean hartu dutela jakiteak alaitu egin ditu. Leirek iradokia zion emazteari eta horregatik ez ditu erabakiak askorik harritu edo ustekabeen hartu. Ados dira denak.

Enekok eta Leirek etxebizitza txiki baina eroso bat alokatu dute Santutxun eta bertan itxarongo diote epaiketarako deia. Noiz izango den galdetzen dio Goñiri semeak, abokatu izanda, jakingo duelakoan. Ez daki eta Roderari galdetu behar izaten dio. Eta hark ere Goñik bezainbeste daki. Auzitegi Nazionalan sekula ez dago jakiterik.

Lan kontuez arduratzen ahalegintzen da Felix Goñi. Esku artean darabiltzan aferei bakarrik kasu egin nahi die. Semea kalean da, ia bukatu da lokamutsa. Izan dezakeen defentsaririk onena du eta itxarotzea baino ez dago. Horretan daude. Bitartean telebista ikusten dute. Auzitegi Nazionalarekin zerikusiz zuzena duten berriei erreparatzen diete bereziki. Izaturik entzuten dituzte hango epaileek euskal gazteei jarritako zigorrak. Ez dago eskubiderik!, amorratu egiten dira, beste nonbait isun bat baino merezi ez duena Euskal Herriko edozein herritan gertatuz gero urte askotako kartzelaldi bilakatu ohi dela konturatuta. Eta

haserretu egiten da Juanjo Roderak: Dirudienez, horretarako ez gara espainolak.

Ez dago berdintasunik!, horixe esango lioke Felix Goñik Kosme Astorekari, harekin mintzatzeko parada izango balu. Bertatik bertara esango lioke, baina telefonoz esan behar izan dio, ozta hilabete batzuk lehenago arte buruz buru adieraziko liokeena.

Elkartu egin behar genuke, Felix!, horra Astorekaren leloa azken aldian. Elkartu egin behar dugu, baina betiko adiskidearekin egoteko ezin astirik inoiz hartu. Alderdiko kontuak, badakizu. Badaki, bai. Aitzakia ederra Alderdiarena, kokoloak garela uste al du horrek?, sutan ipintzen da emaztea. Berriki arte lagun mintzat jo izan dituenen mespretxua ez dezake ulertu. Zerbait egin al diegu Kosmeri eta Begoñari? Senarrak erantzuten ahal dio ez pentsatzeko hainbeste, Roderak berari esaten dion moduan. Aholku amorragarria: dena lasai hartzeko aholkatzen baitio Roderak, baina zalantzetan eta aztoratuta uzten du sarritan Goñi. Horixe gomendatu dio, adibidez, luze gabe hasiko bide den epaiketa salatzeko deitu duten prentsaurrekora ez dela agertuko azaldu dionean. Istant batez kopeta ilundu zaio Roderari, eta gaitzespenik gabe esan dio: Librea zara nahi duzuna egiteko, ez dago arazorik.

Nire ezetzak ez zuen harrituko, azaldu dio emazteari. Azken finean Roderarentzat, gure semearentzat bezala, burges puta bat naiz! Bertzeen gurasoak ere ez ziren harrituko.

Seguru al zagoz hartu duzun erabakiaz?, galdetu dio emazteak Roderarekin elkartu aurretik. Bai, seguru egon da, Roderarekin egon baino lehen bai, baina gero ez hainbeste. Autoa utzi duen lekura doala, zailantza egin zaio bere jarreraz. Dir-dir egiten du itsasadarreko ur nabarrak arratsalde apalaren argitan, eta ur hura bezain nabar dauka Goñik burua, aspaldiko lagunaren hitzen oihartzunez gainezka. Tira, berandu da atzera egiteko: Beharbada isildu beharrekoa esanda dago. Denborak ebatziko du zuzen edo oker jokatu duen.

Zengotitaren eta beste atxilotuen gurasoen ustez, oker jokatu du. Seguru da. Emazteari esan dio. Begi bistan du *Garak* argitaratutako prentsaurrekoaren argazkia: hogeita bederatzik lagun ageri dira, goñitarrak izan ezik, atxilotuak eta haien senide eta lagunak. Bost atxilotuen gurasoetatik laurenak han daude, beraz, *Torturarik* ez dioen karteltxotik hurren. Beste kartel bat ere ikus daiteke argazkian, prentsaurrekoa egiten ari diren gelako goiko aldean, euskal presoak

Euskal Herrira ekar ditzaten eskatzen duena. Argazkia egin dutenean, Juanjo Roderaren aldamenean hizketan jardun du Karlos Zengotitak, irakurtzen, bestela inoiz erabiltzen ez dituen betaurrekoak jantzita baititu eta zenbait paper eskuetan. Leireren antzera jantzita daudenez, atxilotuen neska-laguntzat jo dituenak ere hortxe daude, besoak antxumatuta eta bekozko.

Enekok ez ditu sekula torturak aipatu. Ezin. Gurasoek ere ez diote ezer galdetu, ez dira ausartu. Jakin dute hala ere: hogeit hamar minuturo galdekatu zuten, inoiz lo egiten utzi gabe; kokoriko ipini zuten, harik eta, zorua guztiz bustita zegoenez haren izerdiaz, beste gela batera eraman behar izan zuten arte, istripuren bat izango zuten beldur; beste gelan orkatiletan jo zuten etengabe, Enekoren garrasiei sorgor; paretaren kontra eduki zuten denbora gehiena, eta uzkitik makila bat sartzeko itxurak egin zituzten. Denetarik egin zioten konortea galdu zuen arte. Ospitalera eraman behar izan zuten pare bat alditan. Bosgarren egunean izenpetu egin zuen aurkeztu zioten gezur zerrenda, beste lau atxilotuek egin zuten modu berean. Zer sinatu zuten? Y talde bat osatzen zutela, besteak beste.

Zer da hori?, galdetu zion emazteak, beren gurutzebidearen hasierako egun jadanik urrun haietan.

Juan Maria Atutxa Mendiola, Ardanzaren gobernuko Barne sailburu txit prestuari galdetu behar, azaldu zion Roderak, haren asmakizuna izan zen-eta Y taldeen kontu osoa. Alkoholak eragindako eldarnio baten ondorioz bururatu ote zitzaion, ezin esan. Kontua da behingoan txalotu ziotela burutapena, haren ahotik ateratako edozer txalotu ohi zutenek. Komunikabideez ari da Roderak, Madrilgoez nahiz Bilbokoez. Horixe azpimarratu nahi izan dio. Zure lagun jeltzalearenak nahiz gure lagun Bergaretxerenak, gaineratu du Roderak. Ondo ezagutzen dituzu guztiak, edo ahaztu zaizu Bergaretxek gurekin ikasi zuela?

Gogoan du Pito Bergaretxe. Roderari onartu dio: Eskuindarra zen noski, baina horixe ginen han geunden gehientsuok.

Oligarken eta 36ko faxisten kumeok!

Gogorra da Roderak bere buruarekin, gogorregia herra ironiaz gozaten duenean ere. Eskerrak eman beharko genizkioke, segitu du, hari esker jakiten dugu zer gertatzen den munduan. Galdetu Aritzen amari, bestela. Karlos Zengotitaren emazteaz ari da Roderak, semea atxilotu ziotenean *El Correokoek* egin zioten

deiari esker jakin izan baitzuen, eta ez Ertzaintzari esker.

Elkarrizketa hartatik sortu zitzaion ideia, eta, Roderaren iritziarekin etsi ordeztu, biharamunean ordenagailuaren aurrean jarri eta ikaskide zahar eta botere-tsuari idatzi dio. Eskutitz nahiko laburra bidali dio, baina lanak izan ditu hura nahi bezala moldatzeko. Idatzi eta ezabatu eta berriz idatzi eta berriz ere ezabatu, horrela jardun du ordutan, konforme samar geratu den arte. Nahi izan duen giroa lortzea izan zaio zailena. Zirriborro askoren ondotik, edozein harrokeria bazter uztea hobetsi eta apal baina duin idaztera deliberratu da. Lehenik eta behin, oso lanpetuta ibiliko delakoan dagoela adierazi dio eta barkamena eskatu, hain urri izango duen bere asti preziatua lapurtzeagatik. Gazte zireneko garaia aipatu dio jarraian, biak Deuston zebiltzanekoa. Aspaldiko adiskidetasun hori dela medio ausartu zaio idazten, haren komunikabide ugariak semeaz eta haren lagunez adierazitako okerrak, mesedez, zuzen ditzaten. Horretarako, benetan gertatutakoa laburtu dio, ahalik eta modu zehatz eta argienean, semearen erabateko errugabetasuna aldarrikatzeko laguntza eskatzearekin batera.

Inoiz irakurri ote duen, auskalo. Beharbada idazkari-
ren batek zabaldu, gainbegiratu eta zaborrontzira
bota du, Bergaretxe jaunari egunero heltzen zaizkion
beste eskutitz batzuk bota ohi dituen bezala. Terroris-
ta baten aita histerikoa, pentsatuko zuen, behinolako
ikasleen jaietan jende guztia itzuri dabilkion gizontxo
gogaikarria ziur aski. Edo beharbada bere nagusiaren
eskuetara heldu eta hark bururik buru irakurri eta era-
baki du ozta gogoratzen duen Goñi hark ondo merezia
duela gertatzen ari zaiona, terrorista baten aita iza-
teagatik. Nolanahi izan dela, harrezkero Goñik ez du
ikaskide zaharraren albisterik izan.

Damututa dago. Emazteari aitortu dio. Bistan da
Juanjo Roderen zuzen zegoela eta bera, aldiz, oker.
Ahal balu, hamaika pusketatan txikituko luke eskuti-
tza. Beranduegi.

Ez larritu, laztana, esan dio emazteak. Egin duzu-
na, zuzen edo oker, semearengatik egin duzu, eta hori
nahikoa da edozein bekatu garbitzeko.

Atxilotu duten bigarren aldian egun argiz eta leku-
ko askoren aurrean egin dute. Entrenamenduan atxi-
lotu dute, denen bistan. Uniformerik gabeko hiru er-

tzain hurbildu zaizkio eta eramaten saiatu dira. Eneko-
ren kideek urrundik ikusi dute gertatutakoa eta, itxu-
ra txarra hartuta, lagunarengana jo dute, zer pasatzen
ari den jakin nahian. Orduan agertu dira uniformedu-
nak.

Kamerak ikusi ditugu, baina ez diegu hasieran ja-
ramon handirik egin, sarritan egoten dira-eta kamerak
Lezaman, lehen taldeagatik. Horra Josu Muñoa duran-
gar aurrelariak telefonoz kontatu diena.

Roderaren zenbakia osatu du Goñik. Badaki zerga-
tik deitzen didazun, esan dio semearen defentsariak;
besteak ere eraman dituzte. Ez dakigu besterik. Han-
dik ordu batzuetara jakin da: Madrildik dator agindua,
Ertzaintzak Eneko Goñiri eta bere lagunei egotzitako
ekintzagatik. Trankil, Felix, utzi dena nire kontu, lasai-
tu nahi izan du Roderak, leporatzen dietena ez dago
batere argi.

Hark esandakoa sinestera, ertzainak harrotuta da-
biltza azken boladan eta nahi duten guztia egiten
uzten diete. Utzi? Nork utzi? Haien nagusiek, nork bes-
tela?; horregatik ari dira gero eta ausartago eta zaba-
rrago. Gogoratzen al zara Labaienez eta hark esanda-
koaz? Gogoan du, bai, Labaien jeltzaleak Ertzaintza
sortu aurretik egindako promesa, kaleak *bobby* lagun-

koi eta zibilizatuz betetzekoa. Hogei urte baino gutxiago behar izan dira txapelokerrak bezain gorrotatuak izateko, segitu du Roderak; sekulako marka!

Ez dakite ezer, galduta dabilta, horra lagun zaharri errepikatu dizkion semearen hitzak. Bitxia, esan dio, itsumustuan jardun eta, hala ere, gero eta oldar-korrago. Partida honetan gezurretan ari da baten bat. Ertzainek hagitz seguru izan behar dute jokatzeko ari diren gisan jokatzeko, telebistan ongi ikusi den bezala. Kamerez inguratuta aritu dira: aurpegiarik gabeko hainbat itzal osotoro beltz, zenbait gazteren albo banean.

Leporatu dizkietenak eta delitu haietako bakoitzari dagokion zigorra jakindakoan, Goñiri areagotu egin zaio hura guztia norbaitek asmatu eta antolatutako operazio bat delako sentipena: Norbaitek karta markatuak darabiltza hasieratik. Beste zerbaitek ezkutatu nahian dabil agian, eta horregatik begi guztiak nahi ditu gazte haiengan. Iritzi horretako da Rodera ere: *Quid pro quo*. Aipatu gabe ere, jeltzaleren batzuei egozten ari zaie bere defendituen gurutze-bidearen errua, horiexek baitira, bere ustez, mutilen sufrimenduari etekina ateratzen ahal diotenak.

Ez dut Astorekaren deirik espero, esan dio emazteari. Eta aukeran, nahiago dut ez deitzea.

Nolanahi dela, noizbait, Astoreka Enekogatik arduratuta omen dagoela jakin dute, hala jakinarazi die berriki harekin hitz egin duen emaztearen aspaldiko lagun batek. Barre egin nahiko luke. Putakumea. Nola liteke hain gizatxar, hain ipurtxuri? Alderdiaren sekreturik aitorrezinenak ere badakizkienak nola ez du hau guztia zertara datorren jakinen? Inoiz baino nahastua go dago. Makina bat buelta emanda ere, ezin taxuzko erantzunik aurkitu. Galdera horiek guztiek torturatzen dutela esaten ausartuko litzateke, benetako tortura zer den ez baleki. Baina, hilabete batzuk lehenago ez bezala, orain badaki. Egonezinak loa eragozten dio. Emazteari ere bai. Nekatuta, urduri, loaren premia inoiz baino handiagoa dutela, somniferoak hartzeko egokitasuna gero eta nabarmenagoa da bientzat. Batez ere, gauez jasotzen hasi diren deien ondoan.

Ordulariari begiratu dio telefonoa jaso aurretik: ordu bata. Semea bizi osoan egongo dela kartzelan, esan dio dei-egile ezezagunak, haiek hil eta gero ere han jarraituko duela. Uko egin dio gehiago entzuteari. Telefonoa utzi eta zenbakiz erratu den norbait izan dela azaldu dio emazteari, nork deitu duen jakin nahi

izan duenean. Antzeko galdera egin dio Roderak, bezperako deia aipatutakoan. Ez dakiela erantzun dio hasieran, baina ondoren, elkarrizketak hainbat jira eta bira izan ondoren, izen bat etorri zaio gogora: Bake-roa, Enekoren eta bere lagunaren itaunketa zuzenduzuen ertzaina, torturatu zituena. Ezizena, eskumuturrean lotuta zerabilen zapi gorriagatik jarri omen zioten, cowboyek erabili ohi zuten eta *bandana* derizaten horietako batengatik. Buruan txano bat omen zerabilenez, zertzelada horri heldu behar izendaezina izendatzeko.

Baliteke, onartu dio Roderak, ez litzateke lehen aldia izango.

Baina zer dela-eta herra itsu hori? Inoren gibeletik halako tema gaiztoz ibili behar hori, batez ere deus egin ez duen gure Enekoren gibeletik.

Absurdoa da, baina horrela jokatzeko dute poliziek. Denek.

Eneko errugabea da ordea. Abertzalea da, jakina; baina hori delitua al da demokrazia batean?

Demokrazia eta Espainia nekez uztartzen diren hitzak dira, oximoron argia. Inkisizioaren asmatzaileez ari gara, Felix, vivan las caenas aldarrikatu zituztenez.

Eneko lehen aldiz atxilotu zutenean, gertatzen ahal zitzaizen zorigaitzik handiena huraxe zela uste zuten. Bigarrenaren ondoren oso bestelako iritzia dute: dena joan daiteke okerrago. Aurreko aldian bezala, pare bat kutxazain automatiko erretzea ezer gutxi iruditu non-bait eta guardia zibilen Durangoko kasernaren aurka molotov koktelak jaurtiki izana egotzi diete oraingoan.

Hiru urte lehenagoko kontua da, Balzaren gizonek antolatutako beste pailazokeria bat!, Roderaren araberak. Bere defentsariaren hitzak berritu dizkio semeak, egin ahal izan dioten estreinako bisitaldian. Berriz ere Soton bakartu dute; eta gaitz-erdi, badirelako Cadizeraino joan behar dutenak; zengotitatarrak, adibidez.

Puerto de Santa Marian daukate haien semea. Ia bi mila kilometro egiten dituzte hamabostero. Beste preso batzuen gurasoekin Bilbon elkartu, autobus batean sartu eta iberiar penintsula zeharkatu behar dute mutur batetik bestera.

Karlos gaixoa!, irten zaio Goñiri, Roderaren kontakizuna entzun orduko.

Zure ironia horietako bat, ezta?

Ez. Egia da Zengotita ez dudala bereziki maite, baina zintzo eta inongo asmo ironikorik gabe erran dut. Aise para naiteke haren tokian eta pasatzen ari direna ere aise irudika dezaket.

Gupida dio. Miresmen pitin bat ere bai. Gustu txarra izanen du janzteko, halako egoskor petrala izanen da, baita aski sektarioa ere, ezker abertzaleko beste anitz bezala, baina badaki bere semearen alde borrokatzen, etsaiaren tamainari erreparatu gabe.

Ostiralero Ezkurdi plazan izaten da, seme-alabak preso dituzten beste hainbat gurasorekin batera, haien herriratzea aldarrikatzen duen oihal zuriaren atzean. Horregatik saihesten du Goñik Ezkurdi ostiraletan, eta beste bide batetik joaten da etxera, haien paretik igarotzean botako lizkioketen erruki begiraden beldur.

Zerbait aldatzen ari da Goñirengan. Emazteari aitortu dio. Bide bat aukeratu beharra dagoela hasi da ulertzen: semea defendatzeari utzi eta etsi nahi ez badu behintzat, ezin du erdian geratu eta orain arte bezala jarraitu, bakarka eta itsumustuka. Zergatik ari zaien kontra jakin gabe ere, ondo daki etsai indartsua dutela eta bikote bakar baten borrokak ezer gutxi ahal duela bitarteko guztien jabea den Estatuaren aurka.

Hori dena begi-bistakoa zaionez, ahaztu egin nahi ditu ezker abertzaleak eragiten dizkion beldurra eta ezinikusia, beren benetako egoeraz jabetzea eragozteaz gain, semearen defentsariaren arrazoiak aintzat jotzea ere eragozten baitiote sarri. Errealitatea bera eta bere aurreiritziak baino gogorragoa da, eta berriki arte ziurtzat izan duena auzitan jartzera derrigortu du.

Betiko gure lagunak jokatzen ikusita, esan dio emazteari, beste aldera pasatu beharra dugula pentsatzen hasi naiz.

Ados nago zurekin, baina ez dakit nahikoa gertu ote gauden.

Ez dugu beste biderik, ez dugu-eta beste lagunik. Horrenbestez, argi dago: Juanjo Roderak dute orain adiskide bakarra.

Senar-emazteak Ezkurdira azaldu dira hurrengo ostiralean. Pitin bat mesfidati hurreratu dira, txarra izango delakoan herriko presoek senide eta lagunek egingo dieten harrera. Logikoa da: orain arte beti saihestu dituzte eta haiek badakite. Zalantzat bilatu dute taldearen atzealdea. Espero izan dutenaz oso bestela jokatu dute bertakoek, ordea. Kopeta goibeldu beharrean haien bistan, onartu egin dituztela iruditu zaie biei. Eskutik oratuta egon dira. Gero oihala bildu

eta hurrengo ostiralera arte sakabanatu da taldea. Karlos Zengotita hurbildu zaie, Goñiri bostekoa eskainiz. Bostekoa estutu eta esker oneko azaldu zaio Arizzen aitari, bera eta emaztea hartu duten moduagatik.

Etixerako bidean, inoren belarrietatik urrun, elkarri kontatu diote senar-emazteek zer sentitu duen bakoitzak. Begirada non jarri jakin gabe egon dira biak hasieran. Gogorra egin zaie mundua talaia hartatik begiratzea. Bertan bizi beharrean, beste planeta batetik iritsi berriak balira bezala. Eskerrak ingurukoen lasaitasun erabatekoak adoretu dituen. Urteak daramatzate haietako gehienek Ezkurdira ostiralero agertzen. Harro ez, duin egoten dira, seme-alaben nozitzeak emandako duintasunaz. Isilik egoten dira, eta hitz egiten duten aldi bakanetan apal eta labur egiten dute, ia eliza batean bezala.

Konturatu al zara gure paretik igaro direnek ahotan hartu gaituztela?, galdetu dio emazteak. Gehienek ez digute jaramonik egin.

Ni ez naiz lotsatu, esan dio senarrak.

Ezta ni ere, laztana.

Kasu pitin bat egin dietenak bi multzotan sailka litezke beren iritziz: erruki dietenak alde batetik, eta gorrotoz begiratu dietenak bestetik. Gehientsuak,

noski, lehen multzokoak lirateke, baina bigarrenekoak ere izan dira, eta batzokira sartzen ikusi dituzte haie-tako batzuk. Batez ere horien begiradek mindu dute Felix Goñi: Aspalditik ezagutzen ditut eta aspalditik ezagutzen naute, baina ez dugu atzera egiterik; egina dago aukera!

Biei pozgarri zaie Karlos Zengotitaren jarrera. Orain arteko guztiak ahaztuta daude, adierazi bide die, hitzik gabe ere. Seguruen, sekula ez gara lagunak izanen, iragarri du Goñik, baina burkideak izanen gara bederen. Hala behar du, bien ustez, aurreiritziak baz-ter utzi eta, aurrerantzean, elkarrekin bultzatzea egin. No-lanahi ere, ahaztu gabe dituzte Enekeri buruz hark za-baldutako esamesa maltzurak, baldin eta benetan hark zabaldu bazituen. Haren galtzak ez ditut oraindik maite, ziurtatu du Goñik.

Gau hartan, aspaldiko partez, ondo lo egitea lortu dute.

Inor ez da perfektua eta hark ere izanen du zertaz damutu, esan dio Juanjo Roderari, Zengotitarekin no-labait adiskidetu izana txalotu dionean. Beste presoen senideekin elkartzea ere onetsi dio: Etsai gaiztoak di-

tugu eta batasuna behar dugu beste edozeren gaine-
tik. Nahitaezko zaigu haiek bezain baturik egotea, gu-
reak egin du bestela. Zuzen da Roderak. Elkarri lagun-
du behar diote, elkarri bihotz eman. Zoritxarrez, esan
dio Roderak, zuen semea ez da preso dagoen duran-
gar bakarra. Beste durangar bat dago Soton bertan:
Txomin Andueza. Urteak eman ditu kartzelaz kartzela.
Kalean behar zuen aspaldi, baina, legearen zenbait tri-
kimailu bitarte, preso jarraitzen du. La democracia es-
pañola!, arbuiatu du Roderak, la puta democracia es-
pañola...

Txomin Anduezaren gurasoak zaharrak dira, eta
gogotik eskertu diete Sotora elkarrekin autoan joatea
eskaini dietenean. Haien bila joan eta Madrilerantz se-
gitzen dute laurak, bisita eguna argitu baino lehen.
Baserriko ataurrean izaten dituzte zain, semeari era-
mateko zumezko saski bat dutela oinetan. Beste bat
ere prest dute, baina bueltarako uzten dute, beren
esker ona erakuste aldera. Garaian garaiko fruitu eta
barazkiak ematen dizkiete; eta ezer zor ez dietela sa-
rritan errepikatuta ere, berdin segitzen dute eman eta
eman: sagarrak, patatak, porruak, gereziak edo pi-
kuak. Errespetua eragiten die kaletar jator horien auto
handiak nonbait, eta kontuz sartzen eta esertzen dira,

zikintzeko beldurrez bezala. Isilak dira. Eskerrik asko esateko ez bada, kostata irekitzen dute ahoa; erreze-loa dute ez ote duten traba egiten eta mutu joaten dira autoaren atzealdean, begiak errepide ondoko eremuetan finko. Semea bisitatzeko urte askotan egindako bidaia luze, aspergarri eta, batez ere, nekagarriak ahaztu ezinik, zinez preziatzen dute goñitarren mesedea. Zer arin!, harritzen dira Madrilera helduta-koan. Itzulera, aldiz, oso ezberdina izan liteke; egun batzuetan nahikoa lasai irteten dira Sototik, baina beste batzuetan urduri eta ezkor.

Ez dugu semea osteria libre ikusiko, arranguratzen dira. Hura libratu baino lehen hilko gara.

Anduezarrei halakoak entzundakoan galdua daude; goñitarrek ez dakite zer esan, zahar pare maitagaria nola kontsolatu. Une batez Enekorekiko kezka baztertu eta bikote zahararentzako hitz mesedegarriak asmatzen saiatzen dira. Gezurrik esan nahi ez eta, nola asmatu haiengan esperantza pitin bat pizten? Hala ere, gogorrena etxeratutakoan hasten da goñitarrentzat, bikote zaharra bere baserrian utzi eta haiek eskainitako saskia jaso ondoren. Horien antzera egongo gara gu inoiz? Hogeitaz urte barru Eneko kartzelan bisitatzen jarraituko dugu, aitona-amona horien

gisan? Galdera aztoragarriak inondik ere, durduzatzekoak. Eta logikoak. Enekoren eta beren lagunen aurkako gezurrak asmatzen segitzen ahal dute ertzainek, nahi bezain luzaz. Kutxazain automatikoak erretzea egotzi zieten lehendabiziko aldian, guardia zibilen kaserna bati erasotzea bigarreanean, ia edozer egotzen ahalko diete hurrengo batean, norbait hiltzea edo. Zentzuzko galderak dira horiek, beraz, ez beldur hutsak eragindako pentsamendu paranoikoak. Batzuetan baietz uste dute, gai izango direla urtetan semearen aldamenean segitzeko; beste batzuetan, aldiz, ezetz iruditzen zaie, anduezatarrak baino makalagoak direla.

Bezero onenak galtzen hasi da Goñi (jeltzale edo jeltzaleen ingurukoak denak) eta begi-bistakoa da gero eta lan gutxiago duela, pikutara doala.

Bankuetan duen diruari begiratu dio eta, idazkariari eman beharko liokeena kenduta, lasai antzera biritzeko adina duela ondorioztatu du. Aski lan egina naiz, gogorarazi dio emazteari, eta badut atsedeen pixka bat hartzeko eskubidea. Denbora faltan nabil

gainera, eta behar izanen dut Enekoren defentsaren prestaketan Juanjori laguntzeko.

Hark ez dio inoiz laguntzarik eskatu, baina Goñi etxeko ganbarara igo, ikasle garaiko liburuei hautsa kendu eta langelako mahaiaren gainean utzi ditu, berriaz zabaltzeko prest.

Bitartean, presoen aldeko zeregin ugariei lotu zaizkie senar-emazteak: senideen biltzarretara joan dira, manifestazioetara, salaketa ekintzetara; afixak kolatu dituzte paretetan eta dirua bildu dute kartzelan direnentzat. Ostiralero agertzen dira Ezkurdira. Eta Sotora joaten ere segitu dute, batzuetan Txomin Anduezen gurasoekin eta beste batzuetan bakarrik. Andueza zaharra mengel dabil azken aldian.

Eneko Goñi, aldiz, ondo dago. Hala dio behintzat eta hala dago itxuraz. Zer gisa, aitak galdetu; eta ondo, ondo hark erantzun, gauza bera beti. Kartzelako bizimoduaz hitz egitean, haren alde mesedegarriak aipatzen dizkie gurasoei, beste presoei esker ikasten ari dena. Txomin Andueza da semearen *irakasleetako* bat. Nabarmena da Enekok dion estimua eta are mi-resmena. Hark esan eta egindakoak gorai patzen dizkie, haren izaera apal eta xaloa laudatzen. Gizon oso

bat, horrela definitu du. Haren gurasoak ezagutzea nahikoa hura sinesteko.

Gizon osoak ere gaixotzen dira, ordea, gainerakoen modu berean. Hori gertatu zaio Andueza zaharrari. Ohean sartu da egun batean, nekatuta dagoela esanez eta ez da handik berriro jaiki. Hiru aste egon da hala, eta haren heriotzak benetan nahigabetu ditu goñitarrak. Alarguna izan dute bereziki gogoan: Senar eta semerik gabe bakarrik egongo da aurrerantzean baserrian. Atso maitagarria da, bizia, zakur deslaiden moduan hiltzea inolaz ere merezi ez duena. Haren aldamenean egon dira senar hil berriarekiko beharrianetan laguntzen, baita hileta elizkizun eta hilerrian ere, ertzainek ekarri eta ertzain berek eraman dioten semearekin batera. Eskuburdinez lotuta egina-razi diote joan-etorria eta elizako sakristian baino ez dizkiote hamar minutuz kendu, ama besarka dezan. Erdiragarria izan da, Txomin Andueza ama malkoetarraino hunkituaren beso indargeetatik erauzi eta kartzelara bueltan eraman duteneko unea. Oihu eta negar egiteko gogoari eusteko lanak izan dituzte. Eta beren burua madarikatu dute, ezer egin ahal ez izateagatik. Beraienara joateko erregutu diote alargunari, egun haietako emozio biziak eragindako abail-

dura pitin bat pasatu arte behintzat. Eskertu die eskaintza, baina uko egiteko, inori enbarazurik egin nahi ez diola argudiatuta. Txomin nire premian dago, esan die, egiten dituen ahalegin guzti horiek argituko balute bezala eta bere burua hilezin bihurtu, Urkiolako ama birjinaren laguntzaz. Zeinatu eta aitarena egiten du santutegiaren paretik Sotorako bidean igarotzean, behin ere ez baitio semea bisitatzeari utzi, senarra galdu ondoren ere. Goñitarrengana tiriki-tarraka datorrela, senar-emazteek elkarri begiratzen diote: Behar izanez gero, hainbeste maitatzeko gauza izango ote gara gu ere? Felix Goñi ez da bere buruaz fio. Emazteaz bai, hark edozer egingo du semearen alde. Ezagun du begiradan. Eneko nire premian dago, esango du, Anduezaren alargunak nola.

Eneko ez dabil gurasoekin oso berritsu azken al-dian. Leire eta Roderaren bitartez izan ohi dute bere kezken berri. Haiei esker jakin dute, adibidez, irain eta mehatxuz betetako *christmas* bat jaso zuela Gabonetan, izenpetu gabea eta, zigiluari kasu eginez gero, Gasteiztik bidalia. Postala irakurrita, seguru da Eneko: Bakeroa, zalantza barik.

Zer dela medio gorroto hori? Horra goñitarrek elkarri egiten dioten galdera. Erantzun bakarra dute:

Sadiko hutsa da Bakeroa, besteen oinazearekin gozatzzen duen gizatxarra, psikopata anker bat.

Sadikoa..., harritu egin da Rodera, Enekoren torturatzaillearen nortasunaz haren aitak botatako hipotesia entzundakoan. Baliteke, baina funtzionario soil bat ere izan daiteke, gizontxo itxuraz maitekor bat.

Baina gorroto hori...

Beharbada ez dago gorroto berezirik, beharbada plan bati jarraitzen diote eta gaiztoaren papera egokitu zaio Bakeroari, beste norbaiti zintzo eta onberarena egokitu zaion modu berean.

Roderaren usteari errazegia iritzita, berea azaldu dio emazteari: Estatuak gazte abertzaleak, eta abertzaleak oro, suntsitzeko plan zehatz eta luzaz oldozturiko bat du, bistan da. Bakeroari dagokionean, ostera, beste zer edo zer ere badago, zerbait pertsonalagoa, Goñiren aburuz.

Horregatik telefonoak gauerdi batez jo duenean, dei-egilea madarikatu eta iraindu ordez, aurreko aldietan bezala, arnasa bete-betean hartu eta ahalik eta modu soseguzkoenean hitz egin dio: Hola Vaquero, cuánto tiempo sin tener noticias tuyas. Baietz hark, aspaldi dela azkenekoz hots egin zionetik, baina aspertuta dagoela eta Enekoz gogoratu dela. Te com-

prendo, ironikoa izaten saiatu da Goñi, yo también suelo acordarme de tu puta madre. Y de la de tu jefe, claro está. Hori guztia ahotsa goratu gabe esan dio, baina Bakeroari gustatu ez nonbait eta zarataka hasi zaio, betiko sarkasmoa behingoz alboratuz eta ordura arteko dei guztietan Goñik jokatu izan duen moduan jokatuz. Ah, y muchos recuerdos a Balza, gehitu du baretasunez Enekoren aitak. Telefonoa uztean irribarritsu dago.

Karlos Zengotitari ere kontatu dio, astebete geroago Bilbon presoan alde egingo den manifestaldi nazionala iragartzeko afixak Berrizko paretetan kolatu dituzten bitartean. Harridurarik gabe entzun dio hark, berak ere antzeko deiak jaso baititu, beste guraso batzuen antzera.

Ez gara psikopata horren biktima bakarrak, azaldu dio emazteari geroago. Eta bada bertze zerbait pozgarria ere, jarraitu du, Eneko ez da, irudiz bederen, ero baten obsesioa. Juanjo Roderak uste bezala, plan oso bat dago hor, eta litekeena da Bakeroa plan horren peoi bat baizik ez izatea, esku anker batek mugituriko peoia, amarruz beteriko xake-partida batean. Balzarena da begi-bistako eskua, baina horrena nahiz gainerrako txotxongiloak mugitzen dituen Astorekarena.

Bisita egun batez, lepoko ortopediko bat daramala aurkitu dute semea. Ezer larririk ez duela esan die. Zelan ez duzula okerrik!, ez ibili guri ezer ostentzen, mesedez. Lepokorik ez balu, ziur daude gertatutakoa ezkututzen saiatuko zela. Aurreko astean Auzitegi Nazionalera zeramatela izan zuen istripua aipatu behar izan die gurasoei. Garrantzi handirik gabeko kontu baterako eraman zuten, baina guardia zibilen furgoneta errepidetik irten eta zilipurdika joan zen olibondo sail batean barrena, haietako bat jo eta bertan geratu zen arte. Eskuburdinak zeramatzan Enekok eta, beraz, bere burua babesteko beso-eskuak erabili ezinik, kolpe ugari jaso zuen, buruan eta lepo aldean batik bat. Zauri txikiak dauzka aurpegian, ubelduak gorputz osoan.

Istripuan, Eneko zaintzen zutenetako batek furgonetako txaparen aurka buruz jo zuen, eta istantean hil zen. Gainerako guardia zibilak minduta izateaz aparte, amorru bizian zeuden. Bertan garbituko nindutela sinetsi nuen, hiltzeko mehatxuak egin zizkidaten behin eta berriz. Beren kidearen heriotzaren errua egotzi zidaten, ni epaitegira eraman behar izan ez ba-

nindute, bizirik segituko bailuke. Horregatik hil behar zuten, beren zoritxarreko kidearen heriotza mendekatzearren. Gorpuaren aurrean belaunikaturik iraindu eta jo zuten. Hildakoak zauri gaitza zeukan buruan, eta handik isuritako odolak ilea, aurpegi-samak eta uniformeak blai egin eta iluntzen zizkion. Ondo begiratzeko esaten zidaten, haren moduan bukatuko nuela laster, hantxe akabatuko nindutela. Inguruan begiratu zuen Enekok, ez zebilen hegaztirik ere. Bakarrik zuek dela esan zioten zaindarien, eta bertan lekukorik gabe hiltzen bazuten, istripuaren ondorioz izan zela ebatziko zuela edozein epailek. Olibondoak izango zituen bere heriotzaren lekuko bakarrik, lekuko isilak. Izerdi hotzetan eta dardaraka zegoen. Nireak egin du, esan zuen berekiko, haien eskuetan zegoela ulertu zuegan. Leirez eta gurasoez gogoratu zen azkentzat jo zuen une izugarri hartan. Eskerrak sirena bat entzuten orduan. Anbulantzia batena zen! Anbulantziakoek salbatu ninduten! Hiru egun igaro nituen Madrilgo ospitale batean, kartzelara itzuli baino lehen. Ezin izan nuen beldurra berehala uxatu. Ospitaleko gelan hildako guardia zibil haren aurpegia agertzen zitzaidan amesgaiztoan.

Goiz batean, ogi bila joan eta gauez etxeko hormak zikindu dizkietela ikusi du Goñik: Gora España. Aquí vive un terrorista. Etarra bueno, etarra muerto. Bi spray mota erabili dituzte, beltza bata eta gorria bestea. Lehenago sinbolo naziak utziak zizkioten autoan markatuta, baina oraingo hau ezberdina da, larriagoa. Etxean sartu zaizkie!

Maite, zu sartu etxean eta egon trankil. Ni Durangora noa pintura zuria erostera. Segituan naiz bueltan.

Durangotik etxeratu denean, beste Maite bat aurkitu du: emakume lasai bat. Eutsi egin behar diogu, Felix, ezin gara orain kikildu, ezin diegu poz hori eman, ezta pentsatu ere.

Bai. Aitzina eginen dugu, kosta lain kosta.

Aurrera egitea nekagarria da ordea. Oztopoak egon daitezke bidean, eta edonon agertuko dira. 18/98 izendatu duten epaiketa, esate baterako. Ezker abertzalearen kontrako inoizko epaiketarik handiena izango omen den horretan, denetarik dago auzipetuta: politikariak, abokatuak, unibertsitateko irakasleak, militante soilak, are ezker abertzalearekin batere loturarik ez duen zenbait lagun. Eskatzen dizkieten zigo-

rrak gogorak dira, urte askotakoak. Haien kontrako frogak, osterak, barregarriak, edozein demokrata lotsatzeko modukoak. Horixe aipatzen du *Garak* ia egunero argitaratzen dituen epaiketaren gaineko artikuluetan. Eta antzera uste dute nazioarteko giza eskubideen aldeko erakundeek ere. Hain nabarmena da kontua, non askoren arabera prozesua bertan behera utzi beharko baitute edo, bestela, egin bai, baina gehienak asketsiz. Iritzi horretakoa da Juanjo Roderak. Gu eskolatzeko amorratuta daude, dio, baina beldur dira betiko estatu demokratikoek errieta egingo dieten. Eskandalua eragingo luke edozein kondenak, ez duzu uste? Ezetz Goñik, bost axola diola Espainiari horiek guztiek esan dezaketena, eta Amnesty International, Human Rights Watch, are Nazio Batuen urteroko salaketak oroitarazi dizkio. Entzungor egiten du Espainiak beti, ezikusiarena, esan dio, la democracia española. La puta democracia española, gehitu du Roderak. Oraingoan ez dira ausartuko, jeltzaleak ere kontra azaldu dira, *tripartito* osoa. Hitz hori entzunda, bekozkoa ilundu zaio Goñiri eta are gehiago goibeldu, asteburuan Bilbon egingo den manifestaldi nazionalera elkarrekin joateko lagunak gonbidatu duenean: Ez dut semea torturatu zigutenen nagusiekin batean ibili nahi. Ezi-

nezkoa zaio, eramangaitza, sobera higuigarria. Goitik behera burua mugitzen ari da Rodera, Goñik Gobernua eta hura osatzen duten hiru alderdien kontra amorrua asaskatzen duen bitartean. Hala ere, saiatu da Goñiren hitz jario etengabea eteten. Hala ere, hala ere... Gu halaereka beti, Eneko eta bertze anitz kartzelan errurik gabe direlarik.

Eneko Goñi bi hilabete geroago irten da Sototik, egun sargoritsu batean, eguerdi aldean. Hiru ordu lehenagotik bere zain izan ditu kartzelako atean gurasoak eta neskalaguna. Urduri, egonezinik, aztoratu egin dira ate hura zabaldu den bakoitzean. Zabaldu eta itxi behin eta berriz, zainak harrotzen dituen karranka astuna, baten bat sartu, besteren bat irten, sekula ez Eneko. Goizeko hamarretan irtengo zelakoan, ate horretan izan dituzte begiak iltzatuta, bakoitza bere baitara bilduta, hiru txorimalo alfer.

Autoa utzi duten tokiraino iritsi direnerako, labe bat bihurtuta dago hura. Goñik, ahal moduan martxan ipini eta noizbait joan ahal izan dira handik, ihes egin ahal izan dute azkenik. Madril atzean utzi duten arte segitu du Goñik gasolindegi bateraino. Bertako tabernan freskagarri bat edateko egin duen gonbitari ezezkoa eman dio semeak, eta ezezkoa berritu dio Lerma

paretik igaro eta bazkaltzeko garaia dela jakinarazi dionean. Ahaztu arkume errea eta emaiozu gasa, aita. Semeak eskatutakoa egin du. Euskal Herriraino heldu arte mokadurik ez. La Pueblan gelditu dira. Bapo bazkaldu dute, egokierak eskatu bezala, jatetxeko kartak eskainitako gutizia gozoenak aukeratuz eta bertako xanpain garestiena edanez. Etorkizunaren alde topa egin dute.

Autoan bueltan, haize girotua itzali du Goñik eta leihatila jaitsi. Handik aurrera askoz polikiago joan dira. Atzealdean Leireren ondoan eserita eta neskaren eskua berean duela, adurretan doa Eneko, inguruko zelai eta mendiei begira: Hau edertasuna! Bihar bertan Anbotora!, diotso neskalagunari. Eneko eta Leire bezain aparretan doaz mutilaren gurasoak ere eta, semeak seinalatzen dizkien mendiei begiratu ordez, harentzat baino ez daukate begirik. Erabateko zoriona da laurentzat, aspaldiko amets baten gauzatze harri-garria. Elkarrekin daude, edertasunez inguratuta. Urkiolan, inori ezer esan gabe, Felix Goñik geratu egin du autoa. Inor ez da irten, nor bere tokian geratu dira laurak, mutu, tontor haiek mirestea eta une sorgindu hura poliki gozatzea eginkizun bakar.

Semea askatu duten garaituan irten dira Durangoko Y taldea osatzen omen zuten gainerakoak ere. Haiekin elkartu da berehala. Oraingoan ez zaizkio gaizki esaka arituko behintzat, poztu dira goñitarrak. Arindu ederra bientzat. Herrian ongi-etorria egin diete eta afariz afari ibili dira aldi batean, badute-eta zer ospatu. Haien gurasoek ere bai, noski. Afari bat antolatu dute. Han daude zengotitarrak ere, goñitarrak bezain pozik, topa eginez beren semeen nahiz Euskal Herria osoaren askatasunaren alde. Elkar besarkatu eta elkarrekin kantatu dute, hilabete luzeetan noiz iritsiko zain egon diren eguna merezi bezain egokiro ospatu nahian. Juanjo Roderak gonbidatu dute, baina ez da agertu, lanez gainezka dago.

Roderak berak baieztatu dio, biharamunean hots egin dionean. Itotzen ari da, ezin du gehiago. Segitu beharrean da ordea. Guardia zibilak, ertzainak, jendarmeak, polizia guztiak batera ari dira jo eta ke, bazterretan udazkeneko egun euritsu baten ostean ondoak basoetan bezain ugari sortzen ari bide diren Y talde malapartatuen kontra. Goñi saiatzen da ahal duen guztian laguntzen, batez ere semearen sumarioari dagokionean. Ekonomia kontuetan aditua da bera, baina gogotik ahalegintzen da hala ere. Pozik dago

orain arte egindako lanarekin: zuzenbideari begira behintzat, itxaropentsu egoteko arrazoiak daude. Ezer gutxi da hori Audiencian, errieta egin dio Roderak, modu atseginean. Onartu dio errieta, eskarmentu handiko abokatu baten antzera hitz egin orde, gazte ameslari hasi berri baten antzera hitz egin baitio Goñik. Lotsatuta dago. Nola izan daiteke hain inuzentea? Auzitegi Nazionala epaitegi berezia eta *ad hoc* antolatua izanagatik, epaitegi bat baizik ez da, azken finean, beste askoren modukoa, eta horietan eman dituen urte ugariak aintzat hartuta, jakin beharko luke inork ez duela Justizia deritzan andre itsu eta eder hori inongo epaitegitako korridore eta saletan inoiz topatu. Areago, noizbait han zehar ibiliko balitz, erabat ohar-kabea igaroko litzateke.

Ospakizun guztiak aspaldi atzean utzita, Eneko bere bizitzari segida ematera ahalegintzen ari dela, fiskalaren eskakizuna heldu da Madrildik: bost urte. Pare bat aste lehenagotik ohartarazita egon dira, horren hotsak ailegatu baitzitzazkion Roderari.

Ustekabea harrapatu izan balitu bezala utzi ditu albisteak. Goñi batik bat. Bilbora jo du berehala. Ira-

lan, etxebizitza estu batean bizi dira Eneko eta Leire orain. Heldu denean, bakarrik dago Leire. Sartu ez sartu egon da, baina neskak kafe bat eskaini dionez, onartu egin dio.

Zer edo zer jazo da, ezta?

Roderak kontatutakoa berritu dio, gutxi gorabehera. Neskaren begiak bustitzeko zorian egon dira une batez, baina malkoei eutsi die. Leire burutsua eta lasaia da izatez eta, azkenean ahoa zabaldu duenean, bere buruari ez ezik Goñiri ere kemena emateko egin du, Enekori laguntzeko presta daitezen biak. Horixe agindu diote elkarri agur egitean, igogailuko ate ondoran.

Antzeko hitzak erabili ditu emazteak ere: Adorea eman behar diogu, ezin dugu bakarrik utzi.

Autobus txiki batean joan dira Madrilera, gainerako auzipetu eta haien senide eta lagunekin batera. Poliziek trepetak detektagailuetatik pasarazi eta gero, epaiketa egin behar den salan sartu dira banan-banan. Espainiako erregearen erretratu gaitz batekin tupust egin dute, epaileen mahaiaren gainean. Mahai horren ezker aldean eserita daude Roderak eta bere laguntzailea; eskuinean, Goñik fiskaltzat jo duena. Epai-

lea eta bere segizioa baino ez dira falta antzezpena hasteko.

Haiek eman diete eguneko lehen ustekabea: izendatuta zegoen epailearen ordezkari bat agertu da. Goñitarrak aton jabetu dira Roderaren haserreaz. Ezagun du mugimendu bakoitzean.

Txarto hasi gara.

Iritzi horretan sendotu dira senar-emazteak zenbait minutu geroago, epailearen ahotsa entzun dute-nean, kartzelatik preso ekarri berri bat agurtzen ari direlako semea eta bere lagunak. Epailearen mehatxuek hasieratik argi utzi diete non dauden eta nor den nagusi han. Eskuburdinez lotutako beso-eskuak altxatuz lagunak agurtu nahi dituen Eneko Goñiren adin bertsuko gazte bat da, eta horri zuzendu zaio epailea gogorren.

Idazkariak Aritz Zengotitari hots egin dio lehen-lehenik. Deseroso mugitu dira haren gurasoak goñitarraren aldamenean, burua tente eta adi, semearen etorkizuna arrisku gorrian dakusatela. Errugabetzat jo du bere burua Aritzek, beste auzipetuek egin duten bezalaxe, horretarako txanda heldu arau. Ertzainen eskue-tan bakartuta igaro zituzten egunen berri eman dute, beren defentsarien galderei segika. Salaketa haiek

guztiek bost axola fiskalari eta epaileari: bietako inork ez du hori ezkutatzeko lan handirik hartu. Behin baino gehiagotan ahalegindu da epailea auzipetuen adierazpenak eteten eta, Juanjo Roderaren defentsa bikainagatik izan ez balitz, erabat isilaraziko zituzten. Hala eta guztiz, iritsi da noizbait abokatu defentsariak aurkeztutako lekukoen txanda: salbuespenik gabe zin egin dute gazte haiek, ezin izan zutela Ertzaintzak esandako leku eta garaian egon. Horiek denak, bere etxeko hozkailuaren marruma bailitzan entzun ditu epaileak. Kerman Rojo deritzan presoak adierazitakolari, berriz, ezin epaileak inolaz ere ezentzunarena egin. Ostera, belarriak zolitu eta eskuburdinetara estekatuta ari zaionaren jarduna aditu behar izan du bururik buru: auzi osoa oinarririk gabe utzi duen jarduna. Lehenagoko lekukoen sinesgarritasuna, nabarmena izanagatik, zalantzan jar lezake agian; inola ere ez, Rojorena: guztiz ezinezkoa da fiskalak dioen egunean eta lekuan bera egotea, handik zortziehun kilometro-ra baitzeukaten ordurako atxilo. Bidegabeki preso, Rojok berak epaile erretxinari argitu nahi izan dionez. Barre algaratan da behingoan sala. Aritz eta Enekoren gurasoak ere ezin kontentuago dira: alferrik jardungo

dute ertzainek beraien semeak kakazteko ahalegi-
nean, jai dute.

Gasteiztik bidalitako ertzainei dei egin die idazka-
riak, poliziek Rojo eramandakoan. Epaitegiko langi-
leek ekarritako bi bionboren atzean mintzatu dira ert-
zain ezezagunak. Izena eman beharrean, beren ert-
zain zenbakia eman dute. Hori baino ez. Inor ez da
harritu. *A posteriori* asmatutako pare bat froga txepe-
lez gain, ezer gutxi dute, auzipetuek izenpetutako ai-
torpena izan ezik. Eta hor dago koska. Beren semeen
aitorpenek Rojo akusatzan badute eta akusazio horiek
gezurrezkoak baldin badira frogatu den moduan, zer
sinesgarritasun izan dezake haiek aitortutako beste
edozerk? Areago, torturapean lortu baldin badira, nola
daiteke ertzainen eskuetan eta denbora osoz elka-
rrengandik bereizita egondako mutil horiek guztiek
gauza bera izenpetzea, beren burua errudun egiteko,
gainera?

Fiskalaren galderekin ondo moldatu dira bionboa-
ren atzekoak, baina defentsariak kontraesan oso adie-
razgarrietan erorarazi ditu, urduritzeraino. Hasierako
patxada galdu dute. Zalantzak nagusitu eta modu txa-
rreko erantzunak ematen hasi dira. Defentsaren kon-
tra bihurrituta, irain egitera ere iritsi dira. Abokatuen

galderei taxuz eta egoki erantzutera behartu ditu or-
dura arte dena onartu dien epaileak, eta laidoka ja-
rraituz gero, zigortu egingo dituela mehatxua egin du.

Euforiko irten dira auzitegitik. Juanjo Rodera salbu.
Gehiegizko poza da bere defendituen eta haien seni-
de eta lagunena, arriskutsua hargatik. Autobusean
ere alaitasun beteko giroa izan dute etxerako bidean.
Kantari doaz.

Gora bihotzak, Felix!, diotso Zengotitak.

Abeslari negargarria dela esanez desenkusatu da
Goñi.

Estatuak berean jarraitzen du ordea, kontrarioen
pozaldi bakanak gorabehera. Etenik gabe oldartzen
zaie euskaldunei, nola edo hala. Aitzakia gutxi behar
du horretarako, terrorismo hitz sorgina aipatzea nahi-
koa. *Abrite portas klis klas* esatea modukoa da, istan-
tean irekitzen da edozein ate edo harpe ezkutu ere,
euskal gazteentzat Espainiako espetxeetakoak ireki-
tzen diren bezain erraz. Etsigarria da egunkaria zabal-
tzea, ia egunero ekartzen du zenbait gazteren atxilo-
keta albistea.

Euskaldun guztiok akabatu arte, ez dute bakerik edukiko, asalatu dira goñitarrak, bezperako berrien aurrean.

Etsigarriak ez ezik, mingarriak ere badira egunkariak. Semeak nozitutakoa biziartzen diete hainbeste nahigabetzen dituzten albiste horiek guztiek. Gernikan, Andoainen edo Iruñean atxilotutako edozein gazteren izena irakurri eta ertzainen edo guardia zibilen eskuetan irudikatzen ahal dute, nola zigortzen eta minberatzen eta umiltzen duten, nola xenofobo eta faxista esaten dioten, ertzainek lehendabizi eta guardia zibilek gero semeari esan izan zioten antzera.

Ez nintzateke batere harrituko, baldin eta gazte baten koskabiloetan elektrodoak jartzen dituzten bitartean, Platon edo Hegel irakurriko balute, dio Goñik, Balza Barne sailburuak Henry James irakurtzen omen duen moduan.

Normala da, irakasle bikainak dituzte. Makinatxo bat. Edonon daude, edonon ager daitezke, edozein irrati, telebista edo egunkaritan. Euskaldunak dira estimatuenak, sortzezko bekatu horrekin jaio arren, gauza izan direlako beren askaziaren funtsezko makurraz jabetzeko eta hari muzin egiteko, arrazoiaren eta balore demokratikoen alde. Izen-abizen ondo euskal-

dunak dauzkate denek, noski: Arregi, Arteta, Garcia de Cortazar, Juaristi, Unzueta, Uriarte eta abar. Asko, anitz, elemenia, Santiago Bernabeu estadioa betetze-ko lain, badakizu: *Yo soy español, español, español!* Nazionalistak ez omen direnen hamaikakoa distiratsua da, aberatsa, *crackez* betea. Horientzat anakronismoa dira euskaldunak, zaharkin, aurrerapenak barrerari utzitako kuadrilla malenkoniatsu bat doi, luze gabe Historiaren zabortegian betiko hondoratuko dena, bukatu du bere mintzaldi amorratua Roderak.

Euskaldunak, hala ere, noizbehinka partiduren bat irabazteko gauza dira oraindik, edo golen bat sartzeko behintzat. Eneko eta bere lagunak errugabetasuna halakoa izan da Roderaren iritziz: Zuk esango zenukeen bezala, Felix, gol! Bikaina izan da benetan, Goñik ederki daki. Haren ustez, nabarmen ez geratzeko eman behar izan dute epai hori, beste irtenbiderik ezean. Roderak, aldiz, euforian ez erortzeko abisatu dio, Enekok baduela gutxienez beste epaiketa bat egiteko.

Touché.

2006. urte miragarrian daude dagoeneko; aztertzaile politiko askoren ustez, bakearen atarian. ETAk menia aldarrikatua du, eta horrek aldartea hobetu dio

jende gehienari. Aznarren garai beldurgarria atzean utzita, Zapatero prest omen dago negoziatzen hasteko. Horrek guztiak ere zerikusi handia izan du Eneko eta bere lagunen absoluzioarekin, iritzi dio Roderak. Uste horretakoa da Zengotita ere. Orain bai, diotso, sozialistekin bai. Baina Goñik GAL gogorarazi dio. Orduan Roderak izan da *touché* esan behar izan duena. Zernahi gisaz, segitu du Goñik hizketan, Enekoren askatasuna da ardura didan kontu bakarra. Hura ongi egonez gero, halaxe egonen gara Maite eta biok ere.

Eta zer moduz dago?

Eneko ondo dago, antza. Bilbon bizi da. Unibertsitatera eta futbolera itzuli da. Kartzelara bueltatu behar izateak, ordea, asko kezkatzen du, Leireren ustez.

Leirek eta Felix Goñik ondo hartzen dute elkar. Bien kezka Eneko denez gero, beti dute zeren gainean hitz egin. Nolabaiteko normaltasun batera itzuli nahi dute biek, azken aldian bizi izan duten infernuaren aurreko garaira. Horretan daude, baina poliki doaz, kostata.

Psikologoez mesfidatia izanik ere, horietako batekin hastea onartu du Goñik, baita *positiboa* izaten ahalegintzea ere. Zerbait egin behar eta Zengotitaren

aholkuari jarraitzea erabaki du. Giroak baikortasunera darama gainera, esperantza izeneko sendabelar horretara. Politikari gehienak itxaropentsu ageri dira, nor edo nor mikrofono bat mutur parean ipini orduko. Roder ere antzera ageri da. Esamesak, txutxu-mutxuak azkar hedatzen dira, albisteak (benetakoak zein gezurrezkoak) agudo sortzen eta modu berean desageritzen. Presoak Euskal Herriratzeko balizko data aipatzen da toki batzuetan, ETaren armak suntsitzekoa, autodeterminazio eskubidea gauzatzekoa... Sarea borborka dago, ehunka mezu azaltzen da meniari buruzko berri bakoitzaren azpian. Kalapita latzak gertatzen dira mezuak bidaltzen dituztenen artean, Espainia aldeko giroa ez baita, inondik ere, Euskal Herrikoa bezain itxaropentsua. Ostera, ugari dira azkeneko etsaia ere akabatu arteko gerrari jarraitu nahi diotenak, mendekua xalo-xalo gorai patzen dutenak. Goñiri erabat ulergarria zaion mendeku grina horrez gain, ustez terrorismoaren aurkako borrokari segitu nahi diotenak interesak daude jokoan: milioi askotako negozio ilunak. Horiek guztiak ari dira zaunka. Giro nahasi horretan epaituko dute Eneko bigarrenenez.

Bigarren epaiketaren atarian hobeto daude lehen-dabizikoan baino, semea eta lagunak errugabetuko dituztelakoan. Horixe ziurtatu diote Enekeri, fiskalaren karguei kontra egiteko eta haien errugabetasuna argi uzteko nahikoa frogak badutela. Frogak, baina, agertu eta desagertu egin daitezke, sortu eta ezabatu, lurrundu.

Autobus txiki batean joan dira Madrilera. Betiko kontrolak atzean utzitakoan, auzitegiko sala batean eseri dira epailearen zain.

Gaztea dirudi!

Makurrenak!, esan dio emazteari ahapeka.

Bat dator Rodera: Epaile gaztea edozer egiteko prest egoten da; unean komeni dena, gora egitearren.

Bost urte lehenago Bilbon autobus bat erretzea leporatzen diete akusatuei. Hori gertatu zen egunean etxean zegoen Eneko Goñi, Durangon, aurreko asteburuan partida batean orkatila hautsita beste jokalaribaten kontra. Abokatuak baditu frogak agiriak (Bizkaiako Futbol Federakundearena, medikuena) eta, hartara, erraz moldatu da Rodera. Jakina, Balzak bere mutilak bidali ditu, lehenengoan bezala, eta, orduan bezalaxe, bionbo baten atzetik hitz egin dute. Haiek azaldutakoa sinestera, Eneko gai izan zen, garai har-

tan erabili behar zituen makuluak eta guzti, zortzina kiloko plastikozko bi bidoi laurehun metroko bidean garraiatzeko. Gehiegi, poliziek adierazitako edozer sinesten ohituta dagoen eta, auzipetu guztien abokatuak tortura salatu diotenean, entzungor egin duen epaile gazte harentzat ere. Enekok Arkautin sinatutakoa gezurra bada, argi geratu den moduan, gezurra izan behar dute, gisa berean, haren lagunek sinatutakoek ere.

Nahikoa pozik irten dira Auzitegi Nazionaletik orain ere, Roderak-eta egindako lan bikainaz seguru. Inongo euforiarik gabe, hala ere, ondo gogoan dutelako epaiketarik larriena, hirugarrena, oraindik etorkizun dena. Etorkizun iluna nonbait: ETAren eta Gobernuaren arteko elkarrizketak porrot egitear daude.

Roderak esan dio, eta Zengotitak baieztatu: txarto doaz gauzak, oso txarto. Egunkariek ere horixe diote. Ezkor dira gehienak. Bakearen urtea behar zuen hogeita batgarren mendearen seigarrena bukatzeare dagoenean, Madrilgo Barajas aireportuko T4 zabaldu berria leherrarazi du ETAk, horrela meniaren bukaera aldarrikatuz. Ekuadorretik iritsi behar zitzaizkien herrikide batzuen zain beren autoetan lotan zeuden bi

lagun hil ditu, bostehun kilo leherkari gordetzen zuen Renault Trafic furgonetak eztanda egindakoan.

Zengotitak hots egin die goiz batean: Hil egin da Txomin Anduezaren ama. Biharamunean egin dira haren aldeko hiletak. Eliza beteta dago eta hara bildu dira, ezagutzen ez dituzten lagun ugariez gain, herriko presoen senide eta adiskide ia guztiak. Bertan egon da Txomin Andueza ere, baina urrundik ikusi behar izan dute, ekarri duten ertzainek hurbiltzea eragotzi baitiote presoari; inguratuta izan dute uneoro, korrika eraman dute elizkizuna bukatu orduko, eta abailan alde egin dute auto batean sartuta, inorekin egoten utzi gabe. Txomin eraman duen autoko sirenaren oihartzunak oraindik entzun daitezkeela, etxerako bidea hartu dute goñitarrek, kafe bat hartzeko Rodearak eta Zengotitak egin dieten eskaintzari uko eginda.

Bidean, Txomin Andueزاز jardun dute.

Gurasoak hilobiratuta eta beste senide barik, bere hiletetara joateko baino ez dute gizajoa kartzelatik aterako, esan dio emazteak.

Demokratak kontent izanen dira!

Demokratak legebiltzarrean daude. Han hitz egin du Balza Barne sailburuak. Dotore mintzatu da, legez gizon prestu baten jario oparo bezain joriaz eta, Felix Goñik emazteari esan dionez, Enekoren tankerako gazte errugabeez ari zela jakin izan ez balu, erraz sinetsiko zukeen sailburu txit ohoretsuak adierazitako guztia. Ertzaintzari leporatutakoak gezur laidogarriak direla bota du, erabat faltsuak, tortura salaketa guztiak artxibatuta egoteak argi uzten duenez. Gorritu gabe bota du, lasai, beharbada badakielako han inork ez diola kontra egingo, inork ez duela bere gezurraren gordina agerian utziko. Susmo hori du Goñik, legebiltzarreko saioa telebistaz segitu ondoren. Alferrik politikarien hiztegian tortura hitza bilatzea.

Balzaren saioa ikusi duen besaulki berean irakurri berri du Xabier Arzalluzen *Así fue* liburua. Javier Ortiz kazetariak Azkoitiko politikariari egindako elkarrizketa zabala jasotzen du. Ortiz galderagile abila da, hala nola Arzalluz solaskide distiratsua; eta badakite irakurlea besotik hartzen eta ezarian nahi duten tokira gidatzen. Astorekak bere txotxongiloen bitartez boterea kendu zionetik, Arzalluz Galdakaoko bere gotorlekutik ari da, historiak absolbituko duen esperantzaz agian. Atzera begiratu eta bere etsaien asmakeriatzat

jotzen du liburuan hainbat eta hainbat kontu. Euskadiko independentzia eta azak jan beharra inoiz lotu izana ukatu du. Abertzale zintzo eta independentziaren zale porrokatu azaltzen da liburu osoan. Erdia ere ez dio sinetsi Goñik, batez ere giza eskubideen aldeko nazioarteko zenbait erakundek salatutako Ertzaintza-ren torturak gezurtatu eta, berak Alderdia gidatu zuen aldian behinik behin, egundo ez zela halakorik gertatu adierazteko kopeta baitauka. Hor antzeman dio trikimailua, hor jabetu da gezurretan jardun duela hasieratik. Tortura ukatzeko adinako azala baldin badu, ohartu da Goñi, modu berean uka dezake edozer, izan iruzur ekonomikoa edo agiri legalen faltsutzea edo beste.

Eneko eta bere lagunak bigarren epaiketan errugabetzat jo dituztela jakin eta hilabetera heldu zaie hirugarrenerako deia. Bi epaiketa bizi ondoren, ederki dakite zer duten aurrean eta, epaia beren aldekoa izan arren, zeinen latza izango den. Berriz ere Auzitegi Nazionalea, berriz ere epaileen harrokeria, berriz ere irainak eta mehatxuak, berriz ere jende askoren samina. Eta hala eta guztiz, aurreko epaiketak irabazita eta

hurrengorako gaiak ezin hobeto prestaturik dituztela, itxaropentsu daude: froga sendoak dituzte, Enekoren nahiz haren lagunen errugabetasuna erabat argi uzteko modukoak.

Lanpetuta segitzen dute. Lekukoekin hitz egin beharra dago, paper eta agiriak egiaztatuta daudela ziurtatu behar da... Aranzadiren liburukoteei aspaldiko hautsa kenduta, atsedetik gabe jardun du Goñik, Roderari lagundu nahian. Epaiaketaren zehaztasunik txikiena ere ondo lotuta dutela eta beren frogak ukaezina direla uste badute ere, aztoratuta dabilta, hirugarren garaipen baten aukera (beren ustez) handiak kitzikatuta, fiskal zein epailearen begitarte ilunen bistak eragingo dien poza aurretiaz dastatuz:

Bost axola Balzaren trikimailuak, azpijokoak eta makurkeriak! Menpean hartuko dugu berriro, bihotz ematen diote elkarri, beren hitzak sinesteko lanak babilutuzte bezala.

Ederki daude irabaziko digutela uste baldin badute. Ustekabeko galanta hartu behar dute!

Hain daude seguru, epaiketan berehala erakutsi baitituzte beren kartak. Ezinezkoa da Eneko Goñi Erzaintzak eta fiskalak esandako lekuan eta garaian egon izana, beste nonbaiten egon zelako orduan, Er-

tzaintzak berak jaso zuenez, epaileari aurkeztu dioten agiri batean. Ezin sinetsiz begiratu diote Roderari fiskalak eta epaileak, istorio txar, luze eta, beharbada, korapiloz betetako bat entzutera doazelakoan. Baina zuzen eta labur jardun du abokatuak: El acusado no pudo estar presente en el lugar donde los hechos que se le imputan acontecieron, por encontrarse a la misma hora, a muchos kilómetros de allí, como consta en el atestado que los ertzainas número 02150 y 01662 escribieron y certificaron con sus nombres y apellidos.

Honela dio Roderak aurkeztutakoak: “Asunto: Carretera N1 Irún-Madrid. Termino de Irún. Accidente de tráfico; vehículo BI 8556 DF; Volkswagen Polo. Fecha: 2-2-2000. Hora: 2:30. Día: miércoles. NIF Ocupante: 28358222 J GOÑI BELATEGUI ENEKO. Ocupando parte delantera derecha, utilizando cinturón y resultado ileso”. Ahoa bete hertz geratu da fiskala hura irakurritakoan; sor eta lor geratu dira Balzak bidalitako ertzainak, haiek asmatutako gezurra behera nola datorren ikusita. Denek entzun dute ertzainen harridura: De dónde hostias han sacado eso?

Felix Goñik aurkitu zuen. Semeak eman zion eza-gutzera, fiskalak eskatzen zuen hogeita bost urteko zi-

gorraren jakitun. Txomin Anduezas gogoratuko zen agian, edo Sotoko isolamenduan ezagututako haren moduko beste norbaitez. Nolanahi ere, orduan kontatu zion ordura arte gurasoei ezkutatu ziena: Iñaki Galarraga izeneko lagun batekin Berara joan zen, bien adiskide baten urtebetetze jaira, eta handik bueltan berandu, Behobia pasatu eta gutxira, errepide bazterra jo zuten. Galarraga, autoaren jabea, gidari zihoan. Haren alboan Eneko. Zorionez, biak irten ziren onik istripulik eta horregatik ez zitzaien semeari gertatutakoaren berri gurasoei sekula iritsi. Istripua gertatu eta kasik berehala azaldu ziren ertzainak eta, beraz, agiri-
ren bat izan behar zuten nahitaez. Hura bilatzeari lotu zitzaion Goñi. Noski, agudo baztertu zuen Ertzaintzara jotzea, eta aseguru-etxean arazorik gabe erdietsi zuen epaitegia mutu utzi duen agiriaren kopia. Hortik aurrerakoa Juanjo Roderaren esku utzi zuen.

Lo que este atestado deja meridianamente claro, señoría, es que mi defendido ha sido acusado injustamente de un delito que materialmente no pudo cometer, argudiatu du epailearen aurrean. Lo que este atestado deja meridianamente claro, señoría, es que el acusado es Dios. Nola egon, bestela, bi tokitan aldi berean? Prevaricación hitza ere erabili du Roderak,

Eneko erabat errugabea dela jakinda ere, oraindik gezur ustel hari eusten baitiote ertzainek, beren azpikeria eta krimenak nabarmenegiak direla ulertzeko gai ez balira bezala. Prevaricación eta, batez ere, tortura hitza entzun dira Roderaren hizketaldian: *Cómo, si no, se autoinculpa un inocente de un crimen que no ha cometido?*

Azkar igaro dira hilabeteak sententziaren esperoan. Apirilean indarkeriaren biktimak omentzeko saioa antolatu du Eusko Jaurlaritzak Bilboko Euskaldunan. Terrorismoaren biktimak, ETarenak noski; Meliton Manzanas, Carrero Blanco eta halako beste hainbeste barne. GALenak eta beste talde parapolizialenak ez baitira benetako biktimak. Kronika gehienek *gizartea-ren ordezkaritza zabalaz* hitz egin dute. Ibarretxe buru, han daude denak, Gobernuoak zein oposiziokoak, baina baita enpresariak, kirolariak, artista eta intelektualak ere... Horien ordezkari hitz egin duenak hara bildutako biktimei eta senideei barkamena eskatu die euskaldunen izenean.

Sutan jarri da Goñi: Nor ote da hori gure izenean solastatzeko? Nork aukeratu du?

Nolanahi dela, kontentu daude hirugarren epaiketaren sententzia irakurri ostean. Eneko errugabetzea espero zuten, baina gainerakoen askatasuna zalan-tzazkoagoa iruditu izan zaienez, benetan poztu dira denak kaleratuko dituztela jakitean. Bazkari eta afitan gozatu dira, topa eginik beren semeak bezain zorronekoak izan gabe kartzelan segitzen dutenen alde. Txomin Anduezaren alde, adibidez. Ospakizunetan elkartutakoentzat amaitu dira kartzelak eta epaiketak, bidaia nekagarri eta arriskutsuak (luzea da presoak bisitatzeko joan-etorrietan hildakoen eta zaurituen zerrenda). Kito Auzitegi Nazional beldurgarria. Bide baten bukaeran dakuskite beren buruak eta, atzera begiratzean, ibilitako bidearen malkarraz jabetu dira, arinduta bezain harrituta. Hiru bider utzi dute agerian semeen errugabetasuna, eta Ertzaintzak leporatutako hirurogeita hamar kale-borroka ekintzetatik seirengatik baino ezin izan dituzte auzipetu. Gogobete egoteko moduko *marka* inondik ere, hein handi batean Roderak abokatuari zor diotena.

Harrotasun horrek eraman du Goñi justizia bilatu nahi izatera: Hainbeste jasanarazi digutenek eragindako kaltearen zatitxo bat bederen ordain dezatela nahi dut! Roderak, ordea, apaltzeko aholkatu dio:

Gauza bat da legearen zirrikituak baliatuz semea errugabetzea erdiestea, eta beste bat, zeharo bestelakoa, Estatuaren aurka zuzen jotzea. Txikitu egingo zaituzte! Edo ahaztu egin al zaizu nola jokutzen duten kontra egiten dietenekin? Estatuak azken mehatxu bat gordeta izaten du beti.

Hitz horiexek gogoratu zaizkio, eguerdi euritsu batez, Roderak hots egin dionean: Hedabideetan zuzenbide estatua deitzen duten horrek krimen gehiago egotzi dizkie Eneko eta bere lagunei. Bizitzaren hondarreko absurdokeria!, haserretu da Goñi; ezta Jainkoak edo Halabeharrak (edo biek batera) begitan hartuta ere! Aspaldi artxibatutzat jotzen zuten itxuragabe-ko akusazio bat da semeari eta bere lagunei egin berri dietena, azkena, mendeku bat funtsean. Botereak zigortu egin nahi ditu, bere aurka egiterik ez dagoela argi uzte aldera. Ostera ere Justiziaren barne-bide eta tripetatik igaroarazi nahi ditu. Auzitegi Nazionalera itzuli behar izan dute, beraz, eta han betiko fiskal eta epaileekin topo egin, ertzainek Gasteiztik ondo ikasita ekartzen dutena berriz entzun. Han egon da Bakeroa; nahiko labur hitz egin du, hari ere Auzitegira buelta-

tzea neke balitzaio bezala. Agian horregatik, epaiketa labur bat egin nahi izan du epaileak, denen hobe beharrez.

Frogak izateak edo ez izateak, nori axola dio? Epaileari ez behintzat. Hari sententziaren idazkerak dio benetan axola, hura jaso dutenean ohartu direnez. Prosa jori baten jabea da: Los cuatro acusados deben ser condenados y ello al margen de que ninguno de los agentes policiales deponentes pueda afirmar que en concreto alguno de los acusados lanzara o arrojara piedras o profiriera expresiones amenazantes. Joria, baina aldi berean argia: auzipetuak, frogekin edo gabe, errudun. Harritu egingo da epaia irakurtzen duen edonor, epaileak, frogarik eza onartu arren, nola kondena dezakeen ulertu ezinik. La prueba de cargo que desvirtúa la presunción de inocencia viene constituida básicamente por las manifestaciones serias, firmes, rigurosas y absolutamente convincentes prestadas en el acto del plenario por los agentes de la policía autónoma vasca. Sententziak ez dakartzanak, epaileak erabat isildu dituenak, ertzainen kontraesanak dira, nahiz eta Roderak epai-gelan bertan oso agerian utzi. Lehendabiziko epaiketan eta azkenekoan adierazitakoak bat ez zetozenez, orduko adierazpenak

irakurrarazi zizkion lekukoetako bati. Ertzain ezezagun hura ahal moduan saiatu zen bere kontraesanak gutxiesten, baina epaileak, Roderak eskatuta, ostera irakurrarazi zizkion, aitorpen batetik bestera zegoen tarte gaitza nabarmenduz. Agerikoa zen lekukoa gezurretan ari zela. Epaileak, ordea, faltsukeriengatik auzipetu beharrean, aintzat hartu zituen haren gezurrak, gezurrak zirela jakitun.

Helegitea aurkeztu dute noski, baina alferrik. Handik hilabeteetara, epaile batek ez, hiru epailek idatzi dute helegiteari ezezko biribilena ematen dion epai behin betikoa: El discurso probatorio está razonado y es razonable, lo que conlleva que no sea factible para este tribunal efectuar una nueva valoración de las pruebas personales, pues ello supondría vulnerar las garantías del debate probatorio y atribuir a la función revisoria en el campo factual una dimensión jurídica de la que carece.

Sinestezina!

Ez Roderarentzat. Antzeko epaiak irakurri izan ditu lehenago ere. Inongo lotsa edo disimulurik gabe adierazi dute: Polizia baten adierazpena, erabat gezurrezkoa izan eta epaileek horren berri jakinagatik ere, nahikoa dute edonor erruduntzat jotzeko.

Pozik egon gaitezke, diotso Roderak, Eneko behinik behin ez da kartzelara bueltatuko. Baina Goñi amorratuta dago, fiskal edo epaile bat akabatzeke gogoz. Ez baitauka ahazteko, fiskal batek bi urte eta erdiko zigorra eskatu ziola epaileari, erruduntasuna aitortu eta onartu zuen ertzain batentzat, Galiziatik lanera etorritako mutil errugabe bat hiltzeagatik, ETAkoa zelakoan. Bi urte eta erdi, semeari ezarri dioten zigor bera kutxazain automatiko bat erre zuela egotzirik eta, hara kasualitatea, ordura arte kartzelan emandako denbora berbera.

Pasatu izan dituztenen ostean, ezer gutxi izan da gehientzat azken epaiketa. Ez Eneko Goñirentzat ordea. Besteentzat ez bezala, ondorio gogorak izan ditu harentzat. Haitzulo beltz batean hondoratu eta bertan geratu da, itxuraz betiko. Hori zergatik gertatu zaion semeari eta ez besteei galdetu izan du haren aitak sarritan; baina ez haren amak, ez eta Roderak ere, ez dute jakin zer erantzun.

Bizkor susmatu zuten Eneko gaizki zebilela. Durangora etortzeari utzi zion. Semearen urruntzea mingarria da, amarentzat batik bat. Nahigabea hartzen

du, telefonoz ere hots egiten ez diola ikusita. Ulerkorrak izan behar dutela diotso senarrak, beren kasa bititzen utzi behar dietela semeari eta neska lagunari, gazteak direla eta elkarrekin egoteko gogoz izango direla. Bai bainaka saiatzen da emaztea bere ezinegona azaltzen.

Oroitu ezkonberriak ginen garaiaz, Maite.

Hura beste sasoi bat zen, protesta egin du emazteak.

Beregana erakarri du senarrak eta muin egin dio kopetan.

Goñik semearen neskari deitzen dio batzuetan, Durangon bazkaltzera edo afaltzera gonbidatzeko. Ahaleginduko dela agintzen dio Leirek, baina ez dela lan erraza izango: Eneko bere baitan murgilduta bizi da eta gaitza da harekin komunikatzea. Berba egiten dugu, jakina, baina eguneroko kontu txikiez baino ez, dendan zer erosi behar den eta halakoak. Neskak beste kontu batzuk ere erabili nahi ditu Enekorekin, funtsezkoagoak, intimoak; etxeratu eta hari kontatu nahi dizkio eguneko kontuak, poz eta tristura kozkorrak, ametsak eta zaputzak.

Eneko bere buruaz besterik ez da arduratzen. Nik kontatukoak axola zaizkiolako itxura egiten du, baina

arin jabetzen naiz haren arretea beste nonbait dagoe-
la, nik iristerik ez dudan toki batean. Horixe adierazi
dio elkarrekin bildu direnean, Bilboko Kafe Antzokian.
Goñik negarraren zantzuak antzeman uste izan ditu
neskaren begietan. Beste zerbait nahi ote duen galde-
tu dio, oraindik edan gabe duen garagardoari errepa-
ratu gabe. Azkenean Leirek ez du malkorik isuri eta
bertako musikak bete du bien arteko isilunea.

Zer egin behar ote dugu Enekorekin, nola lagundu
ahal diogu? Inork ez daki zer, baina zerbait egin behar
dute lehenbailehen, semea ikusten duen gutxietan
gero eta okerrago dabilela iruditzen baitzaio amari.
Argal dago, betzulo nabarmenekin, lo nekez egingo
balu bezala.

Aterako da, pasatuko zaio, emazteari bihotz ema-
ten saiatu da Felix Goñi.

Benetan uste duzu?

Denbora kontua da... Laster batuko ditu indarrak.

Itxura penagarriak baino gehiago kezkatzen du
emaztea, mutilaren mututasunak. Asteak dira ezer
esaten ez didala!

Leirek hots egin dio goiz batean, ahalik eta bizko-
rren elkartu behar dutela erreguka. Iruña kafetegira
bildu dira. Neskaren begiradagatik, tabako paketea

eskuetan erabiltzeko moduagatik, ilea kopetatik baztertzeke moduagatik agian, urduritu egin da Goñi, neska berak batere maite ez duen zerbait kontatzera doakiola susmoa hartuta. Mehatxu ezezagun baten hurbiltasuna sentitu du. Trabatuta mintzo da Leire, esan beharrekoa ahanzi egingo balitzaio bezala edo hura nola tolestu ez baleki bezala; aurrera eta atzera doa solasaren harian, jauzika eta zalantzez beteta. Harik eta Goñi aho bete hortz utzi duena kanporatzea lortu duen arte: Eneko utzi egin behar dut.

Semearen azken aldiko mututasun astuna jabetu da Goñiz ere. Begirada kafearen beltzean galduta, mundu honetatik at da gizona. Noizbait hitz batzuk segidan jartzeko gai izan denean, neke handiz osatu du galdera: Ba al da bertze norbait?

Ez. Kontua Eneko eta bion artekoa da, bikote baten kontua besterik ez. Ez dut Eneko maite, Felix, jada ez dut maite. Ez nago maiteminduta, duela hila-bete gutxi batzuk arte egon nintzen moduan. Enekok oraindik ez daki ezer. Zuri esan gura nizun Enekorri baino lehen, badaezpada ere.

Ez dago atzera buelta egiterik orduan?

Hilabeteak daramatzat lagundu guran, baina ez dit uzten. Jota dago. Eta nik ez daukat adorerik...

Larria da semearen egoera, Leirek bere saminaren kontakizunean aurrera egin ahala gero eta ageriagoan uzten ari denez. Eneko dagoen zulo beltzean behera nola lerratu den kontatu dio. Kalera irteteari uko egin zion hasieran, lagunak ikusteari gero. Bakarrik egon gura du. Eta etxean, sofan botata egoten da, aldagailuari saka eta saka, niri jaramonik egin barik, bertan egongo ez banintz legez.

Enekoren uzkurtasuna ankerra da neskarentzat. Bere jokaeraz hamaika zalantza sorrarazi dio, eta duela gutxi arte ziurtzat jo izandako zenbait kontu kolokan ikusten ditu. Enekorenganako maitasuna, batez ere. Nekatuta dago, hainbeste non, azkenean, gertzen zaion indar apurra Enekorekin erabiltzea alferrikaltzea litzatekeela uste izatera iritsi baita.

Hitz egiten utzi dio Goñik, hilabete luzeetan bere baitan eramandakoa ateratzen eta barrua estutu dion korapiloa askatzen. Bukatu duenean, ezer esan gabe jaiki eta joan egin da, masaila banatan Leireri muin egin ondoren.

Ez diogu ezer zor!, esan dio emazteak, Bilbotik ekarri dion albisteak eragindako haserrea ezkutatu gabe. Amorragarria zaio berria. Eta senarraren Leirekiko jarrera ere bai. Eneko inoiz benetan maite izan ez

duela iruditzen zaio, benetako maitasunak ez baitu, haren aburuz, nekerik onartzen.

Ulertu egin behar duzu, Maite; neskak ongi jokatu du, zintzoki, ez diogu deus makurrik leporatzen ahal.

Maitek oso bestela uste du. Amatasunak eragozten dio, beharbada, Leirekiko *enpatiarik* txikiena ere. Berriki arte *adoratu* duen berbera jotzen du orain traïdoretzat, Enekok gehien behar duenean uzteko asmoa duen koldartzat.

Konprenitzen dut emaztea eta konprenitzen dut Leire ere, aitortu dio Juanjo Roderari. Eta, egia erran, ez dakit nola jokatu. Ez dut Maite mindu nahi, orain inoiz baino gutiago gainera, baina ezin dut sinetsi zinez sinesten ez dudana. Eneko kartzelan genuenean bertze ari da sufritzen, edo gehiago agian, ehunka kilometrora gabe etxetik hurbil izaki.

Horixe da okerrena, semearen etengabeko erorketa gelditzeko ezina, horrek nahigabetzen du gehien. Leirek bikote harremana eten duenean, Durangora itzultzeko eskatu dio amak, bertan hobeto zainduko dutelakoan. Ezetz Enekok, makina bat kontu duela lasai hausnartzeko eta bakarrik egoteko premian dagoela. Bilbon geratu da, beraz, gurasoen zoritxarrerako. Hara egunero joaten hasi da Maite, senarrarekin

batera batzuetan, eta bere kasa trenean edo autobusean gainerakoetan. Semeari prestatutako janariak tupperwaretan sartuta, harengana jotzen du, bezperan utzi zuen toki eta modu berean (telebistaren parean) aurkitzeko. Ilea zikin eta nahaspilatuta, bizarra egin gabe.

Ez dituzu jantziak ere aldatu behar?

Zertarako!

Duintasunari eusteko, erantzuten ahal diote, zeure buruari zor diozun gutxieneko begiruneagatik behinik behin, amore ez emateko. Baina hitz ederrak, aholkuak eta erreguak alferrikakoak dira Enekorekin.

Eneko bere burua bahituta duen Bilboko etxebizitzatik kanpo, egunen gurrupilak geratu gabe segitu du biraka, azpian harrapatzen dituenen oihu etsituei eza-xola. ETAk hiltzen jarraitzen du eta mota guztietako poliziek torturatzen. Betiko leloa. ETAk hildako azkena, aldiz, berezia da: Euskal Y delakoa (zer ote dute jeltzaleek letra horrekin?) egiten ari den enpresetako baten jabea izateaz gain jeltzalea ere bada. Lagunekin musean jardutera tabernara omen zihoanean tirokatu dute. Hautsak harrotu ditu hilketak. Krimen lazgarri-

tzat jo dute alderdi eta komunikabideek. Salaketa go-gorak egin dituzte ETaren eta, bide batez, ezker abertzale osoaren kontra. Kondenatu egin behar dira gaizkileak. Tinko arbuiatu edo mundu demokratikotik kanpo bizitzera betiko kondenatua izan bestela, ez dago beste irtenbiderik. Hala dio lehendakariak, hala diote haren sailburuek ere. Aski da, ez dugu hil gaitzabela onartzen ahal. Begia begi truk. Modu horretakoak idatzi dituzte *Deiako* nahiz sareko orri jeltzaleetan. Mendekua nahi dute. Eta Goñik ondo ulertzen ditu.

Ez zaio harrigarri gertatu aspalditik ikusi gabe eta garai batean bezero izan zuen Patxi Gaztelu, Astorekaren aitaginarrebakidea, Bilbon ikusi eta oldartu zaionean. Kalean bertan liskartu da deiadarka: Zuk pasatu diezu informazioa? Zu izango zinen, ondo eza-gutzen gaituzu eta! Erantzun ez erantzun, egonarriz eutsi dio Goñik, Patxi Gazteluren purrustadek iraun bitartean. Gaztelu isildu da azkenean, eta iritsi da bere txanda: Nik jakin behar nukeena da, nor izan zen gure semea errurik gabe atxiloan hartu eta kartzelatu zuena, nork pasatu zion Ertzaintzari informazio guztiz ustela. Mehatxuka jazarri zaio Gaztelu: Ez gaituzue denok hilko!, ez dizuegu utziko!

Jendea begira dagokie. Elkarri epelak oihuka esaten ari diren bi gizon kalearen erdian; seguruen, bi mozkor.

La batera ohartu bide dira Gaztelu eta Goñi beren egoera barregarriaz, eta isildu eta bakoitzak bere bi-deari jarraitu dio, lotsagorrituta biak. Azkar ibili da Goñi autoa utzi duen tokiraino, burumakur eta alboetara begiratu gabe. Motorra piztu duen arte minutu batzuk joan dira, pitin bat lasaitu eta bere onera etorri arte. Orduan baino ez dio giltzari eragin, handik alde egiteko argiak piztuta.

Etxean emazteak agudo antzeman dio badakarrella nahigaberen bat. Gorputzaldi txarra utzi dio Gaztelurekin izandako ika-mikak, eta begien bistakoa da nonbait.

Zer uste du harroputz nardagarri horrek, burutik iragandako edozer botatzen ahal duela, hori uste al du? Gaztelurekin buruz buru egon deneko amorrua berritu zaio.

Emazteak gaizki iritzi dio Gazteluren jokamoduari. Baina ulerkorra izan behar duzu, Felix; oso berria da Inaxio Uriaren heriotza.

Nik ere ez dut haren hilketa onartzen, esan dio senarrak. Kontua ez da hori ordea.

Haren senideentzat bai.

Gazteluren kezkek zerikusi ttipia dute inoren familiarekin, Maite. Horren ardura bakarra bere burua da, ez bertzerik. Hori ere trenaren negozioan sartuta dago, eta beldur da ez ote zaion berari ere gertatuko. Askatasuna eta hitz potolo horiek... Roderak erranen lukeen gisan, aberasteko askatasuna da horrek nahi duen askatasun bakarra.

Higiezinen burbuilaren leherketa izendatu duten horren mehatxupean, herri lanetan babeslekua aurkitu nahi dute etxegintzan aberastu zirenek. Krisi hotsak entzuten dira edonon. Juanjo Roderak ere krisia du solasgai eskuarki; Ezkurdin ere horren gainean hitz egiten da, ostiralero presoan alde elkartzen direnen artean; Karlos Zengotita izututa dago, lan egiten duen enpresatik beharginen erdia kaleratuko duten zurrumuruarekin: Nora joango naiz berrogeita hamasei urtegaz?

Trankil, Zengo, esaten diote ingurukoek, egingo duzue aurrera. Eta orduan irribarre apal bat osatzen dute haren ezpain lehorrek, eta baietz dio, Aritz taberna batean hasi dela lanean eta horri esker biziko dela laster, baina pena dela ikasketak ezin burutu izatea, tamal handia. Semea goraipatzen diote adiskideek,

Aritz heldutasun harrigarri baten jabe dela, mutil alaia eta gauzak egiteko gogo bizikoa...

Antzeko zerbait esan nahi luke Felix Goñik, hala aitortu dio Roderari: Dudan diru guztia emanen nuke, Aritz Zengotita dagoen moduan egon dadin Eneko. Mutila, aldiz, gero eta eroriago dago. Egunez egun antzematen dute semearen gainbehera. Leirek utzi aurretik ere gaizki izan arren, areago hondoratu da bere zulo beltzean. Itxura penagarria dauka. Sarritan, semearen etxera tupperwarez beteta azaldu eta lehena-go utzitakoak aurkitzen ditu amak sukaldean, bezperan bezalaxe, ireki gabe oraindik. Ikuskizun erdiragarraren aurrean, ospitale edo antzeko toki batera eramateari buruz oldozten hasi dira. Latza da Enekoren egoera.

Motelegi ibili dira, baina. Urte berria elkarrekin hastearren, Enekoren etxera joan dira goizean, Durangora eraman eta hirurek batera afaltzeko. Beti bezala, txirrina jo dute. Behin eta berriz jo dute. Ateak itxita dirau. Urduri, atean bertan jo dute. Eduki bai baina erabiltzen sekula ausartu ez diren giltzak baliatu dituzte. Enekori deika sartu dira etxean. Haien deiek ez dute erantzunik izan. Egongelan betiko nahaste-borrastea aurkitu dute: hautsontziak zigarrokin ez gait

nezka, kikara eta katilu zikinak, arropak eta paperak. Eneko ez da inon ageri. Ez ezkaratz ugerrean, ez bainugela lardaskatuan. Logelan aurkitu dute. Lotan dago ohatzean. Itzartzera hurbildu zaizkio. Hots egin diote, astindu egin dute, begiak ireki ditzan. Mugitu ere ez da egin. Larrialdien zenbakia telefonoz osatu du Goñik. Baina minutu batzuk geroago iritsi den ambulanzia ere alferrikakoa izan da. Enekok ordu batzuk badaramatza hilik. Autopsiak argi utzi du: Muerte causada por sobredosis de somníferos.

Heriotza hari zentzu pitin bat emango dion zerbaiten bila jardun dute. Ez dute ezer topatu: ez azken agurrik, ez oharrik, ezertxo ere ez. Nahita egina dirudi, gaiztoz egina. Mendeku bat agian. Zer mendekatzeko, nor mendekatzeko? Leire, ama, aita? Hirurak? Galdera horiek ezin betirako isiltasunak baizik erantzun. Damua haien zainetan ibiliko da aurrerantzean. Zergatik ez dugu honako hau edo harako hura egin, zergatik ez gara han edo hemen garaiz egon. Isiltasunaren paretan punpa egingo dute beren galderek.

Gauaren gaua

Bakarrik gaude. Azkenean, gehitu behar nuke. Gehitze horrek ez luke gure egoera aldatuko. Berdin jarraituko genuke. Bakarrik. Etxeko egongelan gaude, telebistaren pareko sofan jarriarik, egon ohi garen gisara. Telebista itzalirik dago, baina hari so gaude. Belztasunari so. Ilunpetik so. Zabala da ilunpea, sakona, mugagaitza. Inguratu egiten gaitu. Itzuri ezina da, itzuri ezina zaigu. Garai batez, argia nagusituko zitzaiolakoan geunden. Garai batez, aspaldi, duela hila-bete, urtebete, mende bat... Artean seme bat genuen. Seme bat, bakarra. Gehiago izan bagenu, ez ginatekeen honen bakarrik egonen. Beharbada. Baina utz dezagun hori, bazter dezagun urtetan hamaika aldiz traba egin diguna. Joanak joan. Damuak areago hondoratuko gintuzke, dagoeneko aski hondoraturik gauden putzu goibel honetan. Ustez orbandurik dauzkagun zauriak berriz odoletan paratuko lizkiguke. Eginikoaren damuak, baita egin ez genuenarenak ere. Izan, halakoa da damua, agorrezina, bukagaitza, ia eternala. Itxuraz aldatzen da etenik gabe, eta behin

eta berriz sortzeko eta bilakatzeko gai da. Dena bustitzen du, dena umeltzen. Txipaturik gara, beraz, sekula atertzen ez duen damuaren euri beltzak txipaturik. Mela-mela eta preso larru zuriko sofa honetan, gure semea Espainiako kartzeletan izan zen bezala. Preso sofan eta, batez ere, gure gorputzetan preso. Bakoitza berean. Bi horma elkarren kontra, elkarri atxikirik eta elkarrekin mugitzen eta aldatzen, soin berberaren bi adar. Soin astun eta bihurturikatu bat, narrasti zahar batena, menturaz. Errepikapenak zurrunduriko pare bat gorputz —bakarra ote?— finean.

Orain.

Orain, bortz axola digula denak, bortz axola egia aitortzeak ere. Baldin eta egia, horrelaxe, egia osoa, egia biribil eta erabatekoa, sekula jakiterik badago. Zernahi gisaz, gure egia ttipiek eragiten ahal diguten mina deus guti da hondar urteetan jasan dugunaren aldean. Horren ondotik aldapa guztiak zelai izanen ditugu, pikoena ere. Solasta gaitezen, denbora-pasa bertzerik ez bada ere, betiko galdu genuen loaz ahanzteko. Erran dezagun orain arte pentsatzera ere ausartu ez garena. Bakoitza bere hormaren gibeletik, bistan da. Bakoitzak bere harrizko gorputzetik. Horixe baikara, funtsean. Bai, harrizkoak gara eta neke zaigu

edozein mugimendu, mihiarena ere, gehienetan. Hura ere harrizkoa baita, eragiten dituen hitzak nola. Hitzak, berriz, malgu zein zurrun, gogor zein bigun eta gozo, traba zaizkigu maizenik. Soberan ditugu. Begirada bat aski, elkarren berri jakiteko. Pare bat torturatzaille bagina bezala. Zintzoa bata eta makurra bertzea. Hori baizik ez gara agian, bertze inor torturatu ezinean, elkar torturatzen duten harrizko torturatzaille pare. Bertze deus egin ezinean torturatu, gainera. Denbora-pasa. Alegia deus ez. Deus ez dagoenean, ezin baita deus egin. Zain egon baino ez. Egundo aipatu ez arren, gure hitz bakoitzean bezainbeste gure isilaldi bakoitzean dagoen horren zain egon, gure semea luzaz zain egon zen antzera. Heriotzaren zain, erran nahi baita.

Orain.

Orain horretan gaude gu ere, eguneroko heriotza ttipiak iraungiko dituen heriotza oso, erabateko, horren zain, horren esperoan, egunabarraren esperoan gauden bezala. Sekula ez baitzaigu belztasun guztizko hau pitzatuko duen argi izpi herabea heltzen. Behin ere ez. Eta etsi dugu. Betiko etsi. Eta telebistari begira jarraitu dugu, gaua bezain beltz dagoen tramankulu baldar itsu horri. Biok badakigu zergatik.

Biok badakigu gauak, edozein gauk, ez duela azkenik. Edo, hobeki errana, azken bakar bat baino ezin ukan dezakeela, hots, gure semearen gauak izan zuen berbera. Biok dakigu hori. Eta hain ongi dakigu, hain seguru gaude horretaz, non gure mututasuna edozein hitz baino ozenagoa baita. Denbora kontua da. Goiz edo berandu Herio azalduko zaigu etxera guri ere, berarekin joateko exijituz. Eta harekin joanen gara, gizalegez bertzerik ez bada ere. Gure atean jotakoan berehala irekiko diogu eta zer edo zer edan nahi duen galdetuko adeitsuki. Beharbada horrexegatik ez gara ia etxetik irteten, badaezpada ere, azaltzen zaigunean bertan egoteko. Ezin gure aspaldiko bisitari bakanari muzin egin. Egia erran, ez dugu inor behar. Gure isiltasuna aski da etxe honetako gelak betetzeko. Hala-ber, gure gorputzak aski dira solas luze mutuak izateko. Oharkabeen ere, haiek mintzo dira gure ordez. Gure hezurak mintzo dira, gure giharrak. Gure gorputzaren atal bakoitza ari da solas etengabeen, gure ekintza bakoitzaren arrazoiak aletzen ari. Horregatik mugitzen gara hain ongi sofa honetan, larruzko utero honetan. Lehen, semea bizi zelarik, kanpora irteten

ginen batzuetan. Orain ez. Mendira jotzen genuen, salbuespenik gabe, ordurako etenak baikenituen gizar-tearekiko lotura gehienak. Roderarekin solastatzen ginen, Zengotitarekin ere bai noizean behin. Orain ez. Orain Roderarekin baizik ez gara noizean behin solastatzen, hark telefonoz hots egiten digunetan. Berdin dio. Dagoeneko hitzak alferrikakoak dira, gainerako guztia den moldean. Horregatik konprenigaitza zait zure begiradaren zorrotza, zigarreta bat pizten dudan bakoitzean. Denok dakigu tabakoa hagitz makurra dela osasunerako. Osasuna, aldiz, kontu irrigarria da gaur egun guretzat. Sofa honetara kondenatu gintuen aspaldiko gau haren ondotik. Eri gara, harrezkero. Biok eri eta biok horren jakitun. Hortik nire harridura. Ustekabean joan eta sekula itzuliko ez den garai zoriontsu baten nostalgia hala-moduzko batek eraginkoa ote da zure debaldeko zorrotasuna? Baliteke. Beharbada semea ume zen garaiko egun argitsu bat duzu gogoan, Plentziako hondartzan edo Arabako aintziretan. Auskalo. Zaila da buruan darabilzuna asma-tzea. Edo arrunt erraza, semea baituzu, nire gisara, oroimenean beti. Oroimenean, ahotan eta ametsetan. Ia lorik egin gabe ere amesten jarraitzen baitugu, gure amets gehienak gaiztoak izanagatik. Deiadarka jardun

duzu, ohartarazi didazu maiz, nik bertze anitzetan ohartarazi dizudan gisa berean. Gure oihu ikaratuek ez gaituzte ikaratzen, ordea. Ohituak gara. Nire gorputza areago lotzen zaio zureari halakoetan eta, amesgaizto bat baino ez da, xuxurlatzen dizut belarrira.

Lokamuts bat. Deus guti.

Deus guti, gu bezala. Aski aspalditik azkena den hats baten oroimen lausoa ozta-ozta. Inoiz bizia izaniko su baten hondarreko ilintia doi. Ahitzen ari garelakoan, berantetsi egiten dugu dena itzaliko den une zehatza. Horren irrikatan gaudela erranen nuke. Horregatik altxatzen gara hemendik hain gutitan: horren zain gaude. Horregatik eta zaila zaigulako hemendik jaikitzea ere, ezinezkoa kasik, denboraren poderioz sofak gure gorputzak bereganatu baititu eta bertze gorputz handiago baten atal soil bihurrarazi. Preso eta eri gu aldi berean. Eri handi, gainera, eritasun bat baino gehiago jabetu baita gutaz. Atsedean hartu behar duzue, aholkatzen digute medikuek, eta guk baietz, baina, mesedez, errateko nola.

Lo eginez, noski.

Lo eginez, hara bertzea. Nahi genuke. Eman ohi dizkiguten somniferoak ere alferrikakoak dira: deus guti dezake kimikak, harri bilakaturiko neuronak pizte-

ko ahaleginean. Pizteko edo itzaltzeko, oraindik ez jakin eta, zein litzatekeen kimikaren betebeharra. Erran nahi baita, gure neuronei darien hots zurruna isilarazi edo, aitzitik, ozenagotu beharko lukeen. Ozenagotu, harik eta damuaren harrabotsa arrunt jasanezin bilakatu eta garuna leherraraz diezagun arte. Gure harrizko garunak. Harik eta loa unibertso osoaz jabe dadin arte. Loa.

Lorik egin gabe ezin bizi. Ez da inoren iritzia, zientziak egiaztaturiko zerbait baizik. Beraz, nola gaude gu, hilik edo bizirik? Hilik gara, noski, seguru gaude. Hala ere, hagitz ezberdinak dira hilik izateko gure era eta semearena. Guk gure gorputz nekatuetatik tiraka ibili behar izaten dugu, neke handiz maiz, eta ahalegin izugarria eginda ere, tiriki-tarraka mugitzera heltzen gara gehienez. Semea, aldiz, zangoei batere eragin gabe, edonora joan daiteke, instantean edonon egon daiteke. Gugan, erraterako. Horregatik aski zaio gu mugitzea, gurekin batera mugitzen baita bera ere, eta gu joaten garen edozein tokitara joaten. Bizkarroi dugu nolabait.

Bizkarroi.

Hitz itsusia duzu hori, jakina, horregatik saihesten dut, semea ahotan hartzen dugunetan. Min eginen nizu-ke. Orain arte egin dizudan mina baino zorrotzagoa. Horretan ere semea ezberdina da. Hark ez du minaren berri. Orain. Orain gure minaren lekuko isila da, ez bertzerik. Zorionez. Arkautin noziturikoak, Madrilen eta Soton pairaturikoak, zerbait izatekotan, oroitzapen hutsak izanen dira harentzat, dagoeneko deus adierazten ez dion aspaldiko berbaro baten hondar oihartzun ilunak doi. Guretzat, berriz, oinazearen geografia bateko izenak dira horiek, betiko ahantzi nahi genituzkeenak. Ahantzezinak dira, ordea. Gogoan ditugu, suz markaturik, gure azalaren azal bilakaturik. Gure azalaren artxipelagoa osatzen dute, tatuajeak balira bezala. Horietariko bat aipatzea aski da, oroitzapen petralen gurpil zoroa abiarazteko. Arkauti, adibidez. Torturak zikinduriko herri horren izena entzutearekin batera jiraka da gurpila. Semearen mina gureganatzen dugu halakoetan, hark utziriko herentzia. Herentzia ikaragarria inondik ere. Hala, gure etxeko egongela honetatik mugitu gabe, Bakeroaren mehatxuak eta irainak berri ditzakegu, haren lagunena, haien irri-karkailak. Denboran barrena guganaino heldu den zarata hori guztia adi dezakegu, eskuak be-

larrietan paratzen ditugunetan ere. Baina ez da soilik entzumena herentzia horrek zorrozten diguna. Gauza bera egiten digu bistarekin. Bertze molde batez ikustarazten digu zernahi. Egunero inguratzen gaituzten gauzek ere bertze itxura bat hartzen dute bat-batean. Har dezagun, adibide gisa, telefono aurkibidea. Telefono ondoan ahantzirik datzan liburukote hori arma izugarritzat ikusarazten digu. Semearengandik jaso berri dugun oinaze zahar horrek gisa ezin argiagoan margotzen ditu, gure gorputzetan ere, ubeldurak eta zauriak. Uharte gehiago gure azalaren artxipelagorako, puntu, marka gehiago doilorkeriaren mapan. Etengabe zabaltzen ari den mapa batean, gure espeziearen zitalkeriak ez izaki mugarik. Aitzitik, etenik gabe hedatzen den zulo beltz ikaragarria da, aldamenen duen guztia aitzakiarik gabe irensten duena. Baina hori ez dizut adierazi beharrik, noski, seguru naiz zu ere horretaz jabetu zarela. Aspaldi jabetu, nahiz eta sekula ez aipatu. Zure mututasuna ozena da, haatik, deus guti behar du entzun dezadan. Horregatik entzun dezaket zure pentsamendu bakoitza, zure garunean sortu aitzin ere, zenbaitetan. Horregatik, maiz neke dut noren ahotsa entzuten ari naizen zehaztea, zurea izan badaiteke ere, neurea ere izan daiteke eta.

Zer diozu?

Auskalo nork egiten duen, noizik eta behin, galdera hori. Zu izan zaitezke edo ni izan naiteke. Zu hori zu izan edo ni neu.

Zer diozu?

Galdera horri gutariko inork ez lioke erantzunen. Behar bezala ez, bederen. Inork ez luke jakinen zer erantzun edo nola erantzun, aho-mingainak zurrun izanik, dauzkagun bezala. Harri eginda.

Zer diozu?

Semeak ere hainbat aldiz aditu beharko zuen galdera hori. Arkautin aditu, Madrilen aditu. Bakeroaren ahots mehe irrigarrian edo Auzitegi Nazionaleko epai-learen ahots sakon, serio itxurakoan. Eta orduan, erantzutera ahaleginduko zen, errateko daukana erraterera ahaleginduko. Zer diozu?

Telefono aurkibidea. Telefonoaren kablea. Edo telebista, lanpara edo musika katearenak. Kable bat. Edozein kable aski, tortura tresna bilakatzeko. Izateko. Sofa bat ere bai. Larruzko sofa bat. Edo gorputz bat, larru haragizkoa. Edozein. Zurea. Neurea. Biona. Gure gorputzen edozein ertz zaugarri, sofa honenak nola.

Eguneko argiak eman ohi zigun bitaminarik gabe ahul, laru eta orri zahar bat bezain idor, gero eta meheagoa daukagu azalmintza. Eta zauri ttipiak dauzkagu beso zangoetan, hamaika ubeldu soinean. Gure mututasun mugagabetik elkarri bidaliriko mezuak dira, torturagi-leek torturatuen azal urratuan idatzirikoak mezuak diren gisa berean.

Mugitu, diostazu, zoaz apur bat harago.

Ahalegina egiten dut eta jauzi gisako zerbait ere bai, ezkerreko alborantz. Alferrik, beti bezala. Sobera luze egon gara bertan jarririk, bat-batean moldez (amiñi bat bada ere) aldatu ahal izateko. Larruak uko egiten dio edozein aldaketari. Zurruna da. Zurrunak gara. Higidura bakoitza neke zaigu, edozein higidura debaldekoa dela ikasi genuenez geroztik. Aspalditik, gau guztien gau hau hasi eta zenbait hilabete, urte edo mendetara. Artean seme bat genuenean.

Aspaldi.

Zaila da heriotza onartzea. Edozein heriotza, bereziki seme batena. Seme bakar batena. Gure gisara (bere gurasoen gisara) sofa honetatik sekula jaikitzen ez den semearena. Bai, hemen da, diozu, hemen dago gurekin, sofa honetantxe. Ezetz erran behar nizuke, agian, baina nola erran nik neuk ere sinesten ez duda-

na. Eta hor dago koska, hain justu. Aitortzen ez badi-
zut ere, nik ere ondo-ondoan sentitzen dut, haren be-
soak nirea ukituko balu bezala. Semearen galerak era-
giniko hutsunea hain da sakon-zabala, non unibertso
osoak zulo beltz hori ardatz duela baitirudi. Haren
bueltan dabiltzala planeta, satelite eta galaxiak. Ho-
rregatik hartzen du hain toki handia sofan, egongelan,
etxe osoan. Inon egon gabe, edonon dagoen jainko
baten antzekoa da. Beharbada, dudan jainko bakarra.
Zuk ere semea gurtzen duzu, baina, nire kontrara, ez
duzu hura jainko bakar.

Sekula ez zarelako seminariotik pasatu, diotsut,
eta pixka bat haserretzen zara.

Maite ditut zure haserrealdiak. Ez dizut halakorik
adierazten, baina maite ditut benetan. Begiak pizten
zaizkizu, aspaldi, duela ehun bat urte piztu ohi zitzaiz-
kizun gisara. Eta oraingo argiak, orduko bera izan
gabe ere, badu aski indar pitzadurak eragiteko zure
harrizko begitartean. Edertasun ahitu baten hondarra
izanen da ziurrenik. Askia, hala ere, hain zaila den hori
erdiesteko, behin bateko araztasun akasgabearen gi-
sako hori, alegia.

Aspaldi.

Hiltzen ari den su baten txingar, zure begiek dir-dir egiten dute ozta une zalantzakor batez, denborak zizelkatu dizun harrizko mozorroaren benetako izaera agerian uzteko aski. Oi, hain llaburra ez balitz. Hala da, izan, piztu orduko itzaltzen den zerbait. Begi-kliska bat. Pospolo bat ekaitzaren larrienean pizturik. Galaxiarik urrunena baino urrunago dagoen izpi ñimiño bat. *la deus ez. Gu bezala. Harriaren menpeko beti. Harrizko gauaren menpeko.*

Zoriona haizea edo eguzkia bezain normaltzat jotzen genuen garai batetik gatoz, ordea, dena aise erdiets zitekeen batetik. Iluntasunaren ideia bera ere, pentsaezina zitzaigun orduan, hainbestearaino biziginen benetako mundutik kanpo. *O tempora, o mores.*

Aspaldi.

Nekez haserretzen ginen aspaldiko egunetan, artean haserretzen ginenetakoetan.

Aspaldi.

Haserretzen ginen. Gure gorputzak haserretzen ziren, gu geu alegia, bertzerik ez izaki benetan, gorputz bat, hezur eta haragi, zain eta gihar, milaka, milioika zelula. Materia, azken finean. Gairik funtsezko-

na. Aise deuseztatzen den zerbait, aise usteltzen eta aise betiko galtzen. Aise haserretzen den materia ere bai. Hori ere bai, guti behar dugu lehertzeko, guti aspalditik eusten diogun amorruari irtenbide bat uzteko.

Bortxaz irteten da, ez berezko jario batez. Hitzez hitz irteten da, silabaz silaba kasik. Irteten da edo, hobeiki errana, irteten zen. Lehenaldian. Orainaldian ez, baina. Orainaldian isiltasunaren aditzak jokatzeko ditugu: ni isiltzen naiz, zu isiltzen zara, gu isiltzen gara... Normala, amorruez beteriko hitz zorrotzak elkarri jaurtikitzen hain luzaz ari izan ondotik. Alferrik ari izan ondotik.

Ez dugu deus alferrik egin nahi. Ezin dugu. Dugun indar poxia, bizirauteko behar dugu, horren gramoa baikoitza. Horregatik eusten diogu mihiari, horregatik eta begiak ditugulako ere bai, edozein solas baino anitzez adierazgarriagoak. Elkarri begiratu eta ahoak errateari uko egiten diona entzun dezakegu, argi eta garbi, bozgorailu batetik baletorkigu bezala. Hotsik gabeko hitz horien bitartez heltzen zaigu sekula heldu behar ez litzaigukeena. Gutiespena. Mespretxua. Nekea.

Batez ere nekea.

Elkarrekin egotearen nekea. Irain mutu eta errepi-katuen nekea. Sofa honetan egotearen nekea. Semea

galdurik, neke hori dugu elkarrekin mantentzen gaituena. Hori baizik ez. Gainerakoa neke horrexen ondorioa da, horrexek eraginikoa. Horregatik ez dugu deusik egiten eta sofa honetan jarririk segitzen dugu, egunak joan egunak etorri. Bertzela, indar pixka bat bage-nu, berehala jaikiko ginateke eta hemendik (sofa madarikatu honetatik, etxe madarikatu honetatik) alde eginen genuke, lehenbailehen. Alde, ospa, ihes, zernahi hemendik lekutzearren, edozein ahalegin elkar berriz ez ikusteko. Ezta urrundik ere. Semea oroitaraziko zigun nornahi edo zernahitik urrun edo, hobeki, inon ez.

Bizirik ginenean haserretzen ginen, horretarako aski kemenik geneukanean. Aspaldi. Oraindik ere hala omen gara, bizirik, baina biok dakigu gezurra dela. Gehienez, biziak diren hilak gara, zonbi gisako batzuk, gorpu ustel ibiltariak. Sofatik komunera ibili ohi gara, egongelatik sukaldera edo, noizean behin, logelara. Gure beharrik behinenez arduratzen gara soilik, semearen iraupena, haren oroitzapenarena bermatu alde. Gu bizi garen artean, semea ere biziko da. Hura oroitzen dugun artean. Begi-bistakoa da eta hala dela onartu behar izan dut, ideia horri betidanik aski irrigarria iritzi izan arren. Ideia ez da nirea, ezta zurea ere.

Garan irakurri dut behin baino gehiagotan eta, egunkari horretan irakurri ohi ditudan bertze hainbat gauzaren gisara, formula ederra bezain hutsala iruditu zait, beltz nozitzen ari direnak (ari garenok) kotsola daitezen (gaitezen).

Kotsolamendua garrantzitsua da. Horixe diote adituek eta hala izanen da, seguruen. Sobera mingarria da dena, bertzela, arras eramangaitza. Zuek fededunak, diotsut, zorionekoak zarete, jainko kotsolatzaille bat duzue eta. Fededunak ez garenok, aldiz, bakarrik gaude, babesik gabe, armarik gabe egiaren izugarrikeria osoari buru egiteko.

Bakarrik.

Biluzik.

Semea lurraren azpian bezala.

Biluzik.

Garai batez, aspaldi, larru gorritan lo egiten genuen. Lo egin edo elkarren ondoan egon, etzan, bederen. Begiak hetsirik, gauari gintzaizkion adi, segurutzat genuen egunabarraren etorrera salatuko zigun hots baten zain. Goiz edo berant salbatuko gintuen argiaren esperoan geuntzan han, orain ia ahantzirik dugun

gure betiko ohatzean. Semearen galerak, aldiz, arras aldatu zuen gure bizimoduaren geometria. Ohetik so-fara aldatzeak bertikalera behartu gintuen. Oharkabean, etzanda egoteari ia erabat utzi genion. Goiti ekarri gintuen oinazeak. Beheiti ere bai. Nola edo hala laketu garen zulo honetara kondenatu gintuen eta, aldi berean, baita jaikitza eta zutitzera ere. Atsedeen horizontala ukatu zigun.

Betiko?

Horra zure galdera, nire burutazio horren berri eman nizunean. Behin ere ez dugu osteria lorik egingo?

Ezetz erantzun dizu harrezkero denborak, gure gauak ez duela azkenik. Eta etsi dugu. Gure egoera xelebrea da, hala eta guztiz. Sekula ez dugu lorik egiten eta lotan gaude beti. Erran nahi baita, lo alditxo guti batzuk egiten ditugu, baina hain dira llaburrak, hain dira sumagaitzak, non uste baitugu batere egin ez dugula, begiak zabal-zabalik izan ditugula denbora osoz. Biok uste dugu hori, gezurra izanagatik. Batzuetan, zuri begiraturik, begiak hetsirik dauzkazula ohar-tzen naiz. Pare bat minutuko kontua izan ohi da eta, aipatzen dizudalarik, uko egiten diozu. Ezin dela, erra-ten didazu halakoetan, lo ezak nahastu egiten nauela.

Lo ezak biok nahasten gaitu. Gure betiko logaleak bertze bai, bederen. Nahasturik edo nahastu gabe, kontua da pixka bat haserretzen zarela nirekin. Beharrik zure haserrealdiak maite ditudan.

Gezurti.

Maite ditut zure haserrealdiak, bai. Maite dut nire kontra pizten zaren unetxo hori, salbu eta amorrua Aipaezina larrutzeko eta kakazteko erabiltzen duzuntan. Hor duzu niretzat muga. Hori iragaten duzunean, uko egiten diot aditzen segitzeari eta zugandik urruntzen naiz, komunera joan behar dudala aitzakia. Eta, handik bueltan, berriz zure ondoan jartzen naizelarik, urrun jarraitzen dut, neska gajoari diozun herra, ulergarria izan arren, bidegabea ere baita. Sekula egin ez zuen traizioa egozten diozu.

Traidore beltza, sorgin halakoa!

Behin baino gehiagotan solastatu gara sorginez. Haien benetako izaera azaldu dizut, egin zizkieten epaiketen nondik norakoak ere. Alferrik, antza. Ez dut ezer sorginen kontra, ziurtatu didazu, baina inork ez luke hori erranen, sorgin hitza iraintzat jotzen duzula ikusirik. Itxuraldatu egiten zara, Aipaezina ahotan hartuz gero.

Mila aldiz sorgina!

Hasieran auzia ulertzera ahalegindu nintzen, non zegoen zuen arteko zinezko koska. Ondorio ezdeusak izan zituen nire ahaleginak. Goiz baino berant amore eman behar izan nuen: emakume kontu bat zen, zuentzat izan ezik, bertze inorentzat konprenigaitza. Zertarako konprenitzera saiatu zerk zaramatzan hain gisa petranean jokatzera? Arrazoiak eman nahi izan nizkizun, gaizkiulertuak argitze aldera. Ezinezkoa izan zen.

Aspaldi.

Orain.

Beti.

Beti diogu, sekula-ez erran nahi dugunean. Beti bizi izan gara honela diogu eta sekula ez gara honela bizi izan, ari gara erraten. Iraunkortasuna adierazi nahi dugu hala, eten ezin daitekeen marra zuzen bat. Absurdoa da. Absurdoak gara. Baina iraungarria iragan-kor bilaka daiteke noiznahi. Ustekabean dena hautsi, zatitu, eten egin daiteke. Zernahi. Oinarri sendoko bizimodu bat ere bai. Ustez oinarri sendoko bizimodu bat. Gurea, adibidez. Hiru mailako kate bat: ama, aita eta semea. Semea erdi-erdian. Horregatik, hura desa-

gertzean, katea bera ere desagertu. Hura izaki erdiko maila, bertze biak lotzen zituena. Hura gabe, deus ez. Hura gabe, bizitza baten azken hondarrak doi, bi gorputz trakets. Eta hutsune gaitz, ikaragarri, neurtezin bat. Goiz edo berant, aitzakiarik gabe irentsiko gaituen zulo kosmikoa. *The Big Crunch*. Alimaleko zuloa, isurbide gaitza, gure gezur guztien galbidea. Gure eta ororen galbidea, azken batean.

Gu ez, mundua da galdu dena.

Hori erran didazu eta lasai geratu zara, begi-bistako zerbait erran izan bazenit bezala. Roder lagunak maiz erabiltzen duen hitz batez adierazteko, autokritika da eskasen duzuna. Kostatzen zaizu zure bizitzaren edozein alderdi auzitan paratzea, haren gaineko galderak egitea, zalantzak izatea. Kostatzen zaizu eta kostatzen zait neuri ere. Gezurra erraten ari naizela jakinen ez banu, bertan goxo gaudela erranen nuke, burbuila eroso baten barrenean gaudela. Kanpoan negu gorria da, baina hemen gas errearen beroak besarkaturik, munduaren bertze muturrean gaude, beroak hondartzak betearazten dituen muturrean, hain zuzen. Kuskua epel baten barrenean bizi gara, honenbestez, kanpoko arrisku guztietatik libre. Beharrik noizbehinka zangoek beraiek mugitzera behartzen

nauten eta, sofatik jaikita, leihoraino hurbiltzera. Le-kualdatzeko premian daude, gu bezala, eta horixe nahi dute, guk ez bezala. Ezinezko egonkortasun bat lortzen saiatzen gara, hori dugu xede, eta ardurazko mugimendu bakarrak gure baitakoak dira, gure ba-rren-barrenekoak, hesteenak.

Baldintzazko aditzak erabiltzeko momentua. Urte, mende bat. Baldin eta... Adibidez: Nola egonen gina-teke, seme bakarra izan ordez, gehiago izan bagenu? Gutariko inork sekula egin ez duen galdera izanagatik, benetako galdera da, biok gure baitan maiz adituri-koa. Galdera mutu bezain ozen horietariko bat. Oihu bat. Gure harrizko gorputz bakarra erdibitu duen goiti beheitiko pitzadura.

Biok nahi genuen. Orduan, posible zenean. Zeure buruari egozten zenion zure antzutasuna, zure gorpu-tzaren eskas ezezagun bati. Jainkoaren borondatea ere bazen edo izan zitekeen, bederen. Halaxe zioen zuen amak ere. Eta bitartean, Astorekaren emaztea-ren emankortasunaren lekukoak izan behar, behin eta berriz zoriondu behar. Bortz seme-alaba munduratu zituen, aise antzera. Ia urtero bana egin zuen, lizunke-riaz kasik, irrigarri utzi nahiko bazintu bezala. Horra

hor ezertarako balio ez duen andre bat, andre antzu alfer bat, erranez bezala.

Begoña ona da.

Hala diozu eta horixe sinetsi nahiko nuke.

Begoña ona zen. Aspaldi. Duela mila urte. Emaztearen betiko laguna zenean. Lagun ahula, bere senararen sobera menpekoa. Senarra, Kosme Astoreka, erruduntzat du, ez laguna. Hala dio, batzuetan oso bertzelu uste duela iruditzen bazait ere. Bat nator emaztearekin. Inongo konspiraziotan sinetsi gabe, nik ere Astoreka dakusat amesgaizto honen gibelean. Nolabait. Ezin zehatz dezakedan modu batean ikusi ere, botearearen barne zirrikituak korapilatsuegiak izaki niretzat. Susmo hutsa da, berez, inolaz ere froga ez deza kedana. Baina seguru naiz hala dela.

Zergatik?

Haatik. Makina bat aldiz egin dut gibelerantz nire oroitzapenetan, susmo horren jatorriaren bila. Hainbat hipotesi bururatu zait, baina bakar batek ere ez nau asebate. Harekin, Roderarekin eta Salaberriarekin egin genuen azken bazkariko zertzelada batzuetan geratzen naizenetan, aldiz, hor zerbait aurkitzen du-

dala iruditzen zait, hor egon daitezkeela gure zorigaitzaren sustrai sakonenak. Bihozkada bat da, noski, baina ezin burutik kendu.

Hitzez deusik ez zidan erran. Erakutsi zidan bekozkoa aski, nire hitzak gaitzesten zituela ulertarazteko. Oroitu nahi nuke zer adierazi nion zehazki. Zorigaitzez, ahantzia dut. Badakit emakumeei buruz ari gine-la eta horren gaineko zerbait erran nuela. Kontu orokor bat, hori seguru, inongo izenik aipatu gabe. Erran nuena erran nuela, une bateko kontua izan zen, hain laburra, non bertze inor ez zen Astorekaren kopeta ilunaz ohartu, nik uste. Eta antzeko zerbait gertatu zen handik gutira, berriz ere emakumeak ahotan generabiltzala. Orduan ia oharkabeen joan zitzaizkidan bi une horiek, gero eta adierazgarriagoak iruditzen zaizkit. Hala ere, niretzat gorde ditud, zuri isilduz.

Berba egin, eskatzen didazu, berba egin lantzean behin, behintzat.

Baina zuri ari natzaizu, beti zuri ari. Ahoskatzera heltzen ez naizen hitzak ere zuretzat dira. Zure hobe beharrez aritzen naiz hala.

Beharbada aspaldiko bazkari hartan jabetu zen Astoreka sobera nekiela berari buruz. Maite izan ez zuen nire egun hartako solasak begiak irekiko zizkion

agian. Batek daki. Nolanahi ere, hor ikusten dut bazuetan gure oraingo lokamutsaren sorrera, hazia. Eta zenbaitetan zure iritzia jakin nahi nuke.

Galdetzeari kaltegarria deritzot. Biontzat kaltegarria. Nire galdera bakoitzak bertze makina bat galdera lekarke bere gibeletik, eta hori hondamendia litzateke biontzat. Hitzezko horma bat eraikiko genuke bion artean, muga bat, bereiziko gintuzkeen gorputz bakar bat, harrizkoa.

Hondamendia.

Harantz goaz, baina poliki. Oraindik elkarren premia dugu. Oraindik gaua zeharkatu behar dugu, eta gauarenak ur handiak dira. Sobera handiak guretzat ere. Horregatik, elkar bultza egin gabe, elkar kitzikatu ezean, jai dugu, hondamendira goaz.

Beti.

Horregatik atxikitzen diogu elkarri, kosta lain kosta, itsasontzi hondoratu berriaren marinela ohol bati nola. Txanpon beraren bi aldeak gara, aurki eta ifrentzu, banaezinak. Denborak uztartu, soldatu, batu egin gintuen eta hark baizik ezin gu bereiz.

Maite zaitut, ez didazu erran.

Maite zaitut, ez dizut erran.

M letraz hasiriko hitzak erauziko nituzke hiztegietatik. Maitasun, malko, menpeko, min... Hitz pozoitsuak dira, gehiegizkoak, soilik nerabeentzat zilegiak: testosterona sobera horietariko bakoitzaren barrenean, sobera hormona zilipurdika. Eszenategi batetik erranak izatekoak dirudite, ahots goraz eta handizki erratekoak. Mundu, mirari... Horra hor alferrikako hitz gehiago.

Mundutik kanpo bizi gara, ohartarazten didazu noizean behin. Bai, onartzen dizut, mundutik kanpo. Jakina, solastatzeko molde bat baizik ez da, munduaren erdigunean bizi baikara, gauaren ernamuinean. Mende (m-z hasi bertze hitz bat, kasu) bat daramagu, gutienik, hemen bizitzen. Gehiago ere bai, apika. Bertze pare bat mende edo. Munduak sofa honen luzera eta zabalera ditu, eta muga berberak. Gure gorputzen neurrikoa da mundua.

Gotorleku dugu gorputza. Babesleku. Sekula ez didazu erran, baina badakit hori uste duzula. Nola kizkurtzen zaren nire kontra ikustea aski. Babesleku. Nirekin bat egin arte hurbiltzen zara, nigan desagertu arte. Eta, hala eta guztiz, eman bakea erran nahi dida-

zu, utzi bakean. Zure azalaren izerdi-zulo bakoitzak adierazten dit, zure bizkarraren bilo bakoitzak.

Utzi bakean.

Utzi nahi zaitut, guztiz abandonatu, baina ezin dut, preso naukazu. Ez da metafora presoarena: lepoa estutzen dit zure ezker besoak, ia itotzeraino estutu ere. Itsasoan galduriko baten antzera. Lepoan sentitzen dut zure indar guztia, lepoan zure birika gero eta ahulagoen dantza. Horren konpasean mugitzen gara gure mugiezintasunean eta dantza egiten dugu lotzen gaituen besarkada gisako honetan, ezker-eskuin, goiti eta beheiti. Bat-bi-hiru, bat-bi-hiru, bat-bi-hiru...

Utzi bakean.

Hori erraten didazunean areago estutzen nauzu. Gezurretan aritzen zara maiz nirekin, auskalo zergatik. Ni zurekin ere bai, zure hobe beharrez. Oraindik, hainbeste mende elkarrekin egon eta gero, aitortu ez dizkizudan sekretuak. Nire sekretu ttipiak. Aipaezinari dagozkionak, adibidez. Edo Astorekari dagozkionak. Zozokeriak funtsean, deus guti. Zein izanen ote dira zureak, zer altxatu didazu urte anitz hauetan? Seguru bainaiz zer edo zer altxatu, gorde, ezkutatu didazula, ez jakin arren zer. Paranoiko huts bilakatu ez banaiz oharkabea. Ez izan paranoiko, aholkatu dit behin

baino gehiagotan Roderak. Aise erraten da gero. Nola ez izan, aitzitik, gertatu zaizkigunen segidaren bistan. Segida ikaragarria, inondik ere, Greziako tragedia klasikoan lege zorrotzen arabera taxutua, irudiz. Atal bakoitza, zati bakoitza bukaera aztoragarria indartzeko antolatu eta kokatua. Antzezpenaren unerik gorena, jainkoek semea —gure seme bakarra— ken diezaguten. Gurasoen bekatuak garbitzearen truke, semea, seme osoa, seme bakarra. Eskaera latza jainkoena. Atxiloketa, lau epaiketak, neskarengandik banatzea, heriotzara heltzeko egin beharreko urratsak guztiak. Haien apetak gobernaturikoak, gure zinezko ttipitasunaz jabe gaitzen, menturaz. Hipotesiak, bertzerik ez dugu. Zuk eta biok. Litezkeen kontuak. Balizko jakintzak. Zuri esker dakit hori dena, zu baitzara jainkoekin —Jainkoarekin— solastatzen dena, haren mintzaidea. Hark entzuten omen dizkizu nik zure ezpainetan sumaturiko otoitzak.

Utzi bakean.

Otoitz hori duzu maiteen, hori darabilzu hortz artean maizenik. Emadazu azken urteetan, hamarkadetan, mendeetan ukatu didazun bakea. Ez dut besterik gura. Eman bakea.

Zulo, habia eroso batean bizi gara. Diruak epelduriko etxe batean bizi gara eta beharrik, kanpoan hotza delako. Orain hurrena, elurak munduaren itsuskeria ezkutatu zuen egun batez, egongelako leihoaren erre-zela alboratu eta itsutu egin ninduen eguzkiaren islak elurretan. Sobera bizia begi pare bakar batentzat. Arras itxi nituen, estu eta, bat-batean, dena bilakatu zen gorri, dena orban itxuragabe. Gorritasun horren gatibu, begiak irekitzera ahalegindu nintzen emeki. Bat lehendabizi, bigarrena gero. Kostata erdietsi nuen, baina, alditxo baten ondotik, neguko egunak eskainiriko edertasuna miretsi ahal izan nuen hondarrean. Hunkitu egin nintzen. Sinesgaitza zitzaidan hainbertze edertasun, hain ustekabean. Aspalditik sentitzen ez nuen eta ezagutzeko lanak eman zizkidan sentipen zahar horrek zurekin banatu nahi izatera bul-tzatu ninduen.

Elurra, erran nizun. Zein eder.

Mutu jarraitu zenuenez, zuzenki gonbidatu zintudan jaikitza eta leihoraino hurbiltzera, ikuskizun ezin dotoreago hartaz nik bertze goatzera. Erantzun ere ez zenidan egin. Sofan jarrita segitu zenuen, deus aditu izan ez bazenu bezala. Baina ongi aditu zenuen,

seguru naiz. Orduan, leihotik, nik eman nizun ikuski-zun paregabe haren berri. Estreinakoz ikusi izan banu bezala, ahalik eta zehatzen deskribatu nizun, ñabar-durak arretaz zuretzat jasoz.

Hotzikara eragin zizun nire kontakerak, jo eta ke ziharduen berogailua halako batean matxuratu izan balitz bezala. Leioa ixteko erregutu zenidan, baina itxirik zegoela jakinarazi nizun, zure eskaera absurdo-ak eragin zidan amorrua ezin ezkutatzuz.

Itxita dago, erran nizun. Birao bat botatzen den gisan bota nizun, zure hanka-sartzeaz jabearazteko. Ez dut uste jabetu zinenik. Berdin jarraitu zenuen, mutu eta nire sentipen eta hitzei arrunt soraio. Orain bezala.

Gaur elurra ari du. Leioraino joan gabe ere, bada-
kit. Elur beltza, gauekoa. Erran dizut. Mutu jarraitu
duzu, noski, baina harritu nauen zerbait antzeman
dizut aurpegian: irribarre bat. Badakit ezinezko dela,
ahantzi ere egin zaizula irribarre nola egin, ahantzi
egin zaiela zure aurpegiko giharrei. Hala ere, une lla-
bur batez ikusi uste izan dizudana horixe izan da. Eta
orduan niri ere loratu zait irribarrea: zabala, librea,
handia, inongo herabetasun eta lotsarik gabea. Lurri-
kara gisako zerbait izan da niretzat: miraria, gertaki-

zun txundigarria. Etorkizun dugun zorientasun biribil baten aitzindaritzat jo dut, promesa baten iragarletzat, aieru alaitzat. Egunsenti hurbil baten lehen zantzuetariko bat litzateke irribarre hori, gezur galanta, beraz.

Gezurrak estaltzen du gure bizitza, elurrak neguko lur hila nola. Areago, honezkero, gezurra dugu egia bakarra. Gainerakoa: gaua eta lainoa.

Elurra ari du.

Horixe erran dizut, baina jaramonik ez. Ohera joan behar genuke, erran didazu, eta berriz ere irribarrea piztu zait, ohatzea aipatu duzularik. Hori nahi xelebrea zurea. Lo egin behar dugu, diozu, edo lo egin behar genuke, agian, edo utz egidazu lo egiten, bertzela. Diozuna diozula, irrigarria da, zalantzarik gabe, hori erraten ari zarelarik lo baitzaude, guztiz. Begiak zabal-zabalik dauzkazu, baina, animalia bitxi baten gisara. Larru zuriko animalia baten gisara, elurrarekin bat egina legokeena.

Begiak zabal-zabalik dauzkazu eta horietan irakurtzen ditut, liburu batean bezala, zure ametsak. Zure ametsa, daukazun bakarra, neurea. Amets bana biok

eta amets bera izan behar. Hondamendia. Betileek ematen diote irakurketari erritmoa, orrialdeak pasatzen dituen eskuaren antzera. Testua ezabatzen dute, testua idazten eta berridazten. Amets batean bezala. Seme bat agertzen den amets batean bezala.

Zure betileek morsez idatziriko mezuak igortzen dizkirate. Inolaz ere ulertu nahi ez ditudan mezuak. Lotan zaudenetan. Beti. Zuk behin eta berriz ukatu arren, lotan ematen baitituzu egunak. Gauak. Mendekak. Begiak zabal-zabalik beti. Begi heze horiek, hain irakurterrazak. Mundua galdu da, diozu, zorionekoak gu. Hori diozu eta nekez ulertzen dudan bertze zenbait gauza. Dena den, Eneko diozu, batik bat. Eneko, Eneko, Eneko...

Beti.

Semearen izena errepikatzen duzu ehun, mila, milioi bat aldiz, harik eta mantra gisako bat halabeharrez sortu eta silabek deus adierazteko gaitasuna galtzen duten arte. Mantra mutu bat, loeragilea.

Egin lo, agindu, eskatu, iradoki egiten dizut, biotarik zu zarela gehien merezi duena jakitun. Ezetz zuk, ordea, kontent eginen zenukeela, baina ezinezkoa dela. Ezinezkoa. Horixe zure begi zabal eta hezeetan

irakurgai dagoena. Zure betile zehatzek idazten dutena.

Batzuetan, gure gorputzek ere idatzi egiten dute sofaren mugen barrenean, haren larruaren gainean. Trakeski maiz, aski traketsak baitira izatez. Defentsarik gabeko gorputzak dira, babesgabeak. Edozein gorputz halakoa da funtsean. Biluzik, traje edo soineko dotore baten barru-barruan ere. Larru gorritan, zintzurra egin diezaioten.

Burua eta eskuak izan ezik, ongi estalita daramagu gainerako guztia. Gure gorputzek muzin egiten diote biluztasunari, uko, lo egiteko ere. Mende bat iragan da, biluzik elkar ikusi genuen hondar aldetik. Lotsa askorik gabe erakusten genion munduari gure edertasun apala orduan. Gure zokoan, gure pribatutasunean erakutsi. Bi gorputz ginen hasieran, bakar bat ondoren eta hiru gorputz hilabete batzuk geroago. Hirugarren gorputz ttipi hark jantzi gintuen betiko.

Ez naiz ni, erran ohi zenidan semeaz erditu ondorengo hilabeteetan, beste bat naiz. Ez dut neure burua ezagutzen. Ispiluari begira erran ohi zenidan, harriturik, nahasturik, eta nik ezetz, haurdun geratu aitzin bezain eder zeundela. Eder zeundelakoan nago, baina

nire gezurrek, hala ere, ezin zure erditu aitzineko gorputz lirain hura itzuli.

Axola zidan?

Kontu zaharra da, sobera zaharra ziurtasunez erantzuteko. Larrua, baina, jotzen genuen. Semea izan aitzin baino gutiagotan, noski, hura zaindu behar baikenuen. Nire burua ikus dezaket gure orduko ohatzean, izerditan, hatsa labur, zure gainean edota zure azpian. Ederra neritzon munduari talaia hartatik, hori ez zait ahantzi. Bere besoak zabaltzen zizkigun eta gu, sinesbera halakook, hara joaki ginen, arin eta pozik.

Larrua laztantzen duzu eskuin eskuko bi hatz luzeez. Emeki, hagitz emeki egiten duzu, aitzina eta gibelera, sofaren eskuineko besoan. Hatz luze eta politak dauzkazu eta horrek harritu nau beti, ni bezain ttipia izanik, ttipiangoak izan behar zenituzkeelako. Telebistako pantaila ilunean ikusten zaitut (zure aurpegi desitxuratuaren isla), zure begi beti irekiak nabarmen. Zer darabilzun gogoan galdetuko nizuke gustura.

Orain. Beti.

Isilik jarraitzen dut, harrizkoa banintz bezala. Gainera, galdetuz gero, ezer ez darabilzula gogoan eran-

tzunen zenidake, galdetu dizudan bakoitzean erantzun didazun gisa berean. Deus ez. Hobeki muturik, beraz, bakoitza bere baitara bildurik. Nor bere buruarekin egotea denbora osoz aspergarria izan daiteke, ordea. Sekula ez da misteriorik edo ustekaberik, dena arras ezaguna dugu. Sofaren besoaren larrua laztantzen duten bi hatz horiek baizik ez entretenigarri. Aitzina eta gibelera, behin eta berriz. Errepikapena. Islaldien errepikapena, keinuena. Galderena ere bai.

Zergatik egin zion hura?

Ez didazu azaldu nortaz ari zaren, ezta zertaz ari zaren ere, baina ez dago beharrik. Aipaezinaz ari zara, ziur aski. Edo ez. Baliteke Aritz Zengotitaz aritzea ere. Edo Astorekaz. Luzea duzu traidoreen zerrenda, nirea baino anitzez luzeagoa, eta zerrenda horretako nor-nahi har dezakezu ahotan. Hala eta guztiz, behin ere ez zara kexu. Sinesgaitza da zure egonarrria. Ordutan, egunetan ari zaitezke hor, bi hatz horiekin, goiti eta beheiti, ezker eta eskuin. Eta bitartean zure errepika leloa inoiz mugitzen ez diren ezpain lehor horietan. Gure mantra, gure letania. Zuk ez, baina nik aspaldi akabatu nuen jainko bati zuzenduriko otoitza. Arrunt errukitsua omen den jainko bati. Sinesgaitza da zure

egonarria. Badira mendeak jainko horren gupidaren esperoan zaudela. Nire ondoan.

Beti.

Esperantzaren sua daramazu eskutan, nik ez bezala. Niri duela urte anitz itzali zitzaidan, gau buka-gaitz honen hasieran, alde-aldera. Edo lehenago ere, jakin banekiena ez jakitea erabaki nuenean. Bertan goxo nengoenean, bertan goxo egoten ahal nintze-nean.

Aspaldi.

Batzuetan zure ezkerreko eskua hartzen dut nireetan. Nire presentziaz ohartarazi nahi dizut, aldame-nean naukazula oroitarazi. Horretarako beharrik bale-go bezala. Irrigarria. Une oro nauzu gogoan eta, solasik gabe ere, mugimendurik gabe ere, ezin nitaz ahan-tzi. Irrigarria. Une oro traba nauzu, oztopo, zama. Hain natzaizu nekagarri, non ez nauzun ondoan sentitzen, ikusten, entzuten. Ezta eskua, ezkerra, hartzen dizu-danetan ere. Estutu egiten dizut. Mezu bat da.

Ez ni ahan-tzi, gero!

Irrigarria. Mezu irrigarria, inondik ere. Zu ahanztea neure burua ahanztea litzateke. Neure buruaz bertze egitea. Zergatik? Bat: bakar bat gara biok. Bi: dagoe-neko hilak gara. Horrexegatik batik bat. Triangelu bat

osetzen dugu. Erpinean dago semea, noski; oinarrian gaude gu biok.

Beti.

Denboraren itsaso beltzean galduriko triangelu hauskorra, bertako ur handien menpeko osoa. Bagoaz bilin-boloka, harat-honat. Hondamendira beharbada. Edo inork inoiz nabigatu ez duen ozeano batera, non segundoak, minutuak eta orduak bizi baitira. Segundozko uhinak, minutuzko bagak... Zure begiak bezain hezeak diren mende osoko lanbro eta langarrak. Amesgaizto baterako agertoki, antzeztoki, taula ego-kia.

Aspergarriak, batzuetan, marinelaren egunak, sobera berdinak. Gertatzen den guztia muga estuen artean gertatzen da, gela honen, sofa honen, gorputz honen mugetan. Sekula ez da deus gertatzen, edo ez nahi genukeena bederen. Oraindik zerbait nahi badugu, noski, oraindik desiratzeko gai bagara. Gauak dena itzaltzen du. Gure gau honek bai. Grinarik sutsuenak ere itzaltzen ditu, betiko izozten eta hormatzen. Eta, grinarik gabe, denbora-pasa baizik ez da geratzen. Zalea naiz. Gurutzegramak betetzeko erosten

dut oraindik egunkaria, horretarako bakarrik. Sudoku zalea ere banaiz eta horietariko batzuk gehitzen dizkiot erosi beharrekoen zerrendari. Internetez egiten ditugu erosketak orain, astean behin. Etxetik mugitu gabe nahi duguna erosi, ordaindu eta bertan dugu laster. Erosoa da.

Mundua da galdu dena.

Klik egin eta etxeko ateraino gauzak ekarriko dizkigun mekanismoa abiarazi. Ederra. Aitzinamendu gaitza. Ia inor ikusi gabe, inorekin solastatu gabe. Eskerrik asko hotz eta motz erran, kartoizko kutxak ate ondoan baztertu eta kito. Janariz eta edariz beteriko kartoizko kutxak. Eta barazkien eta pataten artean nonbait: sudokuak. Ihesbidea. Denboraren uluari gor egiteko bidea. Hemen ez egoteko modu bat. Dena, espazio osoa, zuri uzteko modu bat. Badakit ez duzula ni hala ikustea maite. Ezagun duzu. Ez didazu deus aurpegiratzen, ez didazu haserre egiten, baina nabari zaizu. Erretzen dudanetan bezala, fisik erran gabe ere, aise entzun dezaket zure errieta. Begirunetsua bezain zorrotza. Errietarik gabeko errieta, jakina, zure izaerak ez lukeelako bertze jokamolderik onartuko. Halakoa zara. Ongi hezia. Beti. Baita heziketak batere garrantzirik ez duenean ere. Orain. Orain bortz axola

edozein arauk, bortz axola gizatasunaren edozein moldek. Denborak zirtzilatu ditu guztiak, sudoku baten mugetara errenditu nahi dudan horrexek.

Mundua da galdu dena.

Ez, gu galdu gara, diotsut, ez mundua, gu geu, mundua hor nonbait, hor kanpoan dago, nonbait, guretzat hor, etenik gabeko mehatxu, gurutzegrama batean galdurik gara, noraezean, ahiturik, ezagutzen ez ditugun hitzez beteriko baso honetan, odolezko sudoku honetan. Munduadagaldudena. Horra hitz horietariko bat, fonetikoki hurbila, baina semantikoki nabarra.

Ez dut ezer aditu gura.

Argi dago. Deus erran izan ez bazenit, berdin jakinen nuke. Erran didazu, haatik. Burua ezkerrentz higitu duzu eta, ez dut ezer aditu gura, erran. Jakinen ez banu bezala. Denboraren zaindari zorrotza zara, zure denborarena. Dena nahi duzu, dena behar. Dena semearentzat. Indar guztia. Beti. Semearentzat beti. Begiratzen dizut eta San Mamesen ikusten zaitut, semea duzularik besoetan. Aspaldi. Argazkilariari eskaini dizun irribarreak argazkiaren mugak hautsi ditu, baita estadioarenak ere. Futbolaren jainkoei ere ez darie zuri darizun argia. Betaurreko beltzak behar dira zuri

begiratu ahal izateko. Hain zaude itsugarria. Hain zaude semeari emana. Mundu osoari. Orain honen arrotz zaizun horri berberari. Aspaldi. Ilunabarra bera baino lehenago ere.

Ulertzen zaitut.

Benetan diotsut, ulertzen zaitut, ulertzen dut zure beldurra. Denbora beldurgarria da, edozein sudoku baino beldurgarriagoa. Semeak kontatu zidan behin, aspaldi, Arkautin beldurgarriena itxaron beharreko denbora zela, tortura (hark ez zuen hitz hori behin ere erabili) saio batetik hurrengora arteko tarte ezin luzeago hura. Maiz oroitzen naiz horretaz. Semeaz adina bider ia.

Gorputzak egia dio. Nireak. Zureak. Gureak. Bertze nornahirenak. Orain eta beti. Gorputzak egia dio, ez du gezurraren berri. Gezurra gorputzaren inguruko guztia da, kanpoko. Gezurra urrun eta ulergaitz zaio gorputzari, arrotz. Giroan dagoen zerbait da, bertze hainbat gauzaren gisara, gorputzari datxekion hauts izpi bat doi. Berdin da zer diozun, zer diogun, gorputza pixka bat mugitu eta aski da, horra egia, horra hitzen bitartez itxuraldatu, nahastu, itsustu edo edertu

ezinezkoa. Gorputzarentzat hauts izpiak dira hitzak eta solasak. Deus guti. Ongi dakite hori torturagileek. Edozeinek. Bakeroak, kasurako. Harekin hitz guti. Harekin galderak. Edo galdera, galdera bakarra. Bat lehendabizi, eta hari zehatz-mehatz erantzun ondotik bertze bat, eta abar. Banan-banan. Zure antzera, nolabait.

Zergatik egin zion hura?

Zu Bakeroa baino egonarritsuagoa zara eta gai zara galdera hori mila, ehun mila, milioi bat aldiz egiteko. Niri egiteko. Zeure buruari egiteko, beraz. Bakeroa ez. Bakeroak Hong Kongeko, Taiwango, Koreako, Japoniako, Hollywoodeko mila, ehun mila, milioi bat film ikusi du. Ikusi eta ikasi. Erruz. Esku zartada bakar batez nola suntsitu gorputz bat, adibidez. Edozein. Gazte batena, adibidez. Gazte abertzale batena. Berdin dio, gorputza gaztea edo zaharra izan, berdin eroriko da bertan, berdin joko behea bat-batean. Bere egia erranen du, nahitaez, horrek Bakeroari bortz axola badio ere. Egia, alegia. Egia nahi du, baina ez dio axola. Gezurrak axola dio, berea, semeari izenpezteko eman dion paperean ageri dena. Edo beharbada ez, beharbada horrek ere bortz. Agian zartako horren zehaztasuna da benetan arduratzen duena. Haren

edertasun lasaigarria. Bere beso gihartsuaren mugimendua miretsiko luke, saioak (halaxe erran ohi diete, saioak) grabatuko balituzte. Etxean ikusi eta berrikusiko lituzke, Bruce Leeren filmekin egiten duen antzerira. Hala irudikatzen dut. Karate aldizkari eta DVDz beteriko gela bat irudikatzen dut, eta han bera, beira zurizko edalontzi bat esku batean eta aldagailua bertzean, zangoak pareko mahai baxuan paraturik. Gustuz bezainbat arretaz begiratzen dio telebista erraldoi bati, ostikoz ostiko eta muturrekoz muturreko dantza dotoreari. Noizbehinka irudia izoztuko du jauzi izugarri horietariko baten erdian eta, miretsirik, Bruce Leek nola egin duen ulertzen ahaleginduko da. Perfekzio zalea izanen da, dudarik gabe, eta bezperan ikasirikoa praktikatzen saiatuko da biharamunean. Beti. Zuen semearen gorputzean, Aritz Zengotitarenean edo bertze nornahirenean. Beti. *Be water, my friend*, erranen dio bere buruari, telebistako iragarki bateko hitzak mailegu hartuta, izan zaitez ur, izan zaitez malgu eta errukigabea aldi berean, arin eta ezinago astuna. Eta biharamunean ere, jaikitakoan, gauza bera, otoitz bera errepikatuko du. Letania bera, mantra bera. Galdera bera gazte berari, bezperan haren erantzunek asebate ez badute.

Zergatik egin zion hura?

Galderak norbaitek behar bezala erantzun ditzan, egokiro eginak behar dute, derrigorrean. Ni higuintze-raino errepikatzen duzun galdera hori ez bezala, noski. Ez diostazu, baina badakit ez zarela Bakeroaz ari, zure galdera hori ez dagokiola torturari, bertze zer edo zeri baizik. Sekula aipatu gabe ere, tortura bezala t letraz hasten den bertze hitz batez ari zarelakoan nago.

Traizioa.

Samuel Salaberria banintz, traizioa eta tortura esparru semantiko berekoak direla erranen nuke. Aitzitik, familia berekoak direla diot, diotsut, gu biok (hirurok?) jendakiak, senideak garen bezalaxe. Biek dute bertze ezaugarri bat komunean, gainera, biak askotarikoa dira: tortura mota anitz diren gisa berean, badaira traizio mota anitz.

Traizioak hurbiltasuna behar du. Nahitaez. Adiskidetasunak eta maitasunak ahalbideratzen dute. Lagun edo maitale denari edo izan denari baizik ezin traditu. Juda, Jesus saldu zuena, erran duzu eta argi dago traidore galanta izan zela. Zuretzat bai. Historia-

ren auzietan sartu gabe ere, Nazaretekoari musu eman omen zion, soldaduen eskuetan utzi aitzin. Baietz diostazu hala izan zela, Itun Berriak hala kontatzen duela, Iskariote traidore gaitza izan zela. Ez bakarra, ostera. Hori gehitu duzu, bidenabar bezala. Ohartu naiz. Oraingoan ere badakit nor duzun gogoan hori erratean. Ez dizut zerrenda berrituko, ez dago beharrik. Guti edo anitz, denak maite izan dituzu. Edota maite izan zaituzte. Noizbait. Aspaldi. Ziur aski, maite izan dituzun arauka sailkatu dituzu: gehien maitaturikoak dituzu gorrotatuenak. Orain. Horren arabera Aipaezina izanen duzu etsaien zerrendan lehendabizikoa, goren-gorena. Semearen maitasuna banatu behar izan zenuen izendaezin horrekin eta hori ez zitzaizun inoiz atsegin izan. Irain bat izan zen zuretzat, zuk aitortu gabe ere badakit. Irainik egotekotan, semeak eginen zizun, ez haren neskak. Baina hura gorrotatzea erabaki zenuen, inolaz ere ez zure (gure) seme maitea, zure (gure) kutuna. Errazago zitzaizun (zaizu) hala jokatzeari, hagitz ulergarria denez.

Sorgin beltz hori.

Bai, dena delako hori hautatu zenuen xede eta jomuga, eta hari joka ari zara harrezkero. Jo eta ke ari, bete-betean. Gorroto horri eskaintzen dizkiozu zure

burua eta eguneko (eta gaueko) ordu guztiak. Apaiz-
go molde bat da zuretzat. Buru-belarri horretan, nor-
mala niretzat astirik ez izatea. Nik ere ez dut zuri es-
kaintzeko askorik. Nik ere badut nor gorrotatu, badut
nire zerrendañoa, zuk bezala. Bion zerrendetan izen
batzuk errepikatu arren, izenen ordena hagitik ezber-
dina da.

Aspaldi.

Nik ere traditu ahal nuen, baina egundo ez nuen
egin. Agian bizitza hondatu ahal nion, nahi izanez
gero. Oraindik hondatzen ahal diot, agian. Politikatik
kanpo, zeukan sekretu handienaren jabe egin nin-
duen, nik uste. Handiena eta, ziur aski, arriskutsuena
berarentzat, bere bizitza pribatua eta, menturaz, poli-
tikoa ere kolokan para litzakeena. Udazkeneko igande
arratsalde batez aipatu zidan, duela ehun urte inguru
eta, beraz, bada mende bat nire baitan daramadala,
horren berririk inori eman gabe. Ezta zuri ere. Behin
baino gehiagotan egon naiz kontatzeko zorian, ez
dizut ukatuko, baina azkenean beti eutsi izan diot
mihiari, nola edo hala. Horretaz harro nago. Inori ez
kontatzeko agindu nion neure buruari, hark eskatu
gabe ere, eta leiala izan natzaio emaniko hitzari. Me-
rezi izan du nire leialtasunak? Mendekuaz pentsatu

izan dut maiz, aitor dezadan, ideia bat baino gehiago iragan zait burutik Astorekaren bizitza infernu bilakartzeko. Insomnioak eraginikoak iruditzen zaizkit ideia horiek guztiak orain, gau bukagaitz honi darion pozoiak sustaturikoak.

Mendekuak sekulako ahalegina eskatzen du. Nekagarria da, sobera nekagarria lo ezak urtetan zigorturiko gorputz batentzat. Nekatu egin naiz mendekua gauzatzeko bideak asmatzen, irudikatzen, aztertzen, ziurtatzen. Alferrik asmatzen, irudikatzen, aztertzen eta ziurtatzen, jakin badakidalako inoiz ez dudala deus eginen. Sekula ez dudala ezein mendeku gauzatzeko derrigorrezko indarra bilduko.

Kanpoan elurra nola, hala pilatu dira nigan zalantzak. Elkarren segidan etorki zaizkit, batek bertze bat ondotik ekarriko balu bezala. Eta hurrengo horrek bertze bat halaber, eta bertze bat gero eta bertze bat, azkenik gabeko kate luze bat osatuz. Denbora nola edo hala pasatu beharrak eraginiko zalantzak ez ote diren galdetu izan diot neure buruari. Denbora-pasa, entretenigarri. Shakespeareren pertsonaiaren bat naiz, errege ero bat, edo eskatzen zaion hautua egiteko ga-

raian duda egiten duena. Suak bere salako paretetan goiti luzaturiko itzalak ditu zalantzak, bere erokeriaren sustatzaileak. Tragedia handi batek tamainako zalantzak behar ditu. Mendeku batek tragedia bat eragin dezake, tragedia hori ttipia izanagatik. Hortik zalantzak Astorekaz mendekatzeko planak osatu nahi ditudan bakoitzean. Lehenik eta behin, seguru al naiz haren eskua dagoela semeari eginikoen gibelean? Badirudi baietz. Hor nonbait egon zela uste duzu, hor nonbait edo nonahi, orojakile. Beharbada ikusle hutsa izan da, beharbada bertze batek hartu ditu honaino ekarri gaituzten erabakiak. Nolanahi ere, gertaturikoz jakitun zela segurutzat jo daiteke. Hori bai, behintzat. Hori bertzerik ez? Hori bai, behintzat, diostazu eta orduan nik ere baietz diot eta pitin bat mugitzen naiz sofan.

Gorputza mugitu zait (zaigu), beraz, eta mugimendu ttipi, nabarigaitz hori aski izan da, bertze hainbat zalantza sorrarazteko. Nitaz, zutaz, gutaz. Bertze hainbat oroitzapen gazi-gozo eta bertze hainbat damu zurrun. Harrizko damuak. Nitaz. Zutaz. Semeaz. Gutaz. Aspaldi. Beti.

Aski da, oihu eginen nuke (zenuke), nahikoa!

Mutu jarraitu dugu, ordea, begiak telebista itzaliari atxikiak biok. Hagitz antzekoa duzu bion nekea, aspaldikoa, harrizkoa. Bistan da. Bistan da zure begietan eta hala izanen da nireetan halaber. Une batez begirada telebista ilun horretatik pixka bat baztertuko bagenu eta elkarren begietan pausatuko, aise ikusiko genuke. Baina itsuturik gaude, inguratzen gaituen ilunpeak itsuturik. Su baxurik gabe ere, bertako itzalak izugarriki luzatzen dira. Hazteari lotzen zaizkio eta ezin sekula gelditu. Ikusgarria da. Eta beldurgarria, dagoeneko beldurra zer den ahantzirik ez bagenu. Ahantzirik dugu, aitzitik. Zerk beldurtu beharko gintuzke? Insomnioak? Heriotzak apika? Irrigarria. Bururatzen zaizkidan beldur posible guztiei irrigarri deritzet, salbuespenik gabe. Izukaitzak gara, super-heroiak kasik. Mundua gauez zaintzen duten bi super-heroi.

Mundua da galdu dena.

Hegan egin dezakegu. Ia nahi dugun guztia egin dezakegu, egia erran. Gure gorputzak nahierara luza eta labur daitezke. Gure gorputzak babeslekuak dira, dorretxe gotorrak, santutegiak. Harrizko gorputzak. Edo gomazkoak, behar izanez gero. Ia edozer ahal dezakegu, gure semea berpiztu izan ezik. Hori ezin

dugu, nahiz eta gure ahalmenak sinesteko zailak izan. Gure kriptonita da, gure botereak indargabetzen dituen gai arriskutsu eta pozoitsua. Xahu gara, gureak egin du. Balizko mendekuak ere deus guti dira, irrigarriak. Baina guk ez dugu irrik egiten. Behin ere ez. Hagitz aspalditik ez. Hezurretaraino inbaditu gaituen gaua baino lehen egiten genuen. Ozenki egiten genuen, maiz, gogoz.

Gezurra ote zen hura guztia?

Ez didazu erantzun. Begiratu ere ez didazu egin. Ez duzu erantzunik, menturaz. Menturaz, zure buruari egin berri diozun galdera baten oihartzuna da nirea, ez bertzerik. Baliteke.

Elkarren oihartzuna gara, elkarren ispilua. Urte, mende anitz elkarrekin, hori baino ez izateko: oihartzun, ispilu. Zerbait erranez gero, belarria zure bularreran paratu eta berriz entzun dezaket. Eta gauza bera egin dezakezu, belarria nire bularrera hurbildurik. Edo, niri begiraturik, zure burua ikus dezakezu, hondamendia baita bion oraingo egoera behinena. Hondamendi guztizkoa, gibelera egiterik ez duena, konponezina. Denborak luzaz eginiko lanaren emai-

tza. Hondamendiak lehortu baitizkigu begiak, begi horien kristalinoa nabartu. Horregatik, elkarri begiratzen diogunean, noizbait maitatu izan genuen aurpegia aurkitu ordez, zerbait ilun eta lainotsu aurkitzen dugu elkarrengan. Zerbait zehatzezin, mugagabe eta nahasia. Zu ni izan zaitezke eta ni zu. Areago, biok semea ere izan gaitezke.

Eneko!

Horra heriotzaren izena guretzat. Eneko edo Maite edo Felix. Hiru izen gorpu bakar batentzat. Hirutasun santu bat. Infernutik zuzenki heldurikoa. Hiru gorputz eta gorpu bakarra. Herioaren hats izoztua bular bakar batean. Gurean. Harrizko bular honetan. Gotorleku dugu. Horma gora eta sendoak dituen babeslekua, zuk jainko deitzen duzun horrek ere nekez erauziko lukeena. Jainko irrigarri bat da, gustu txarreko txantxa bat, deus guti. Hots egiten diozu eta, behingoan azaldu beharrean, gibeleratu egiten da, beti berandu heldu. Sobera berandu, jadanik zereginik ez dagonean. Erran egiten dizut, ohartarazi, baina ez didazu jaramonik egiten. Zure jainko horrek ez du deusetarako balio, diotsut, anakronismo bat da, iragan odoltsu bateko azken hondarra. Amorratu egiten zara nire hitzak entzundakoan. Uko egiten diozu nire hitz bako-

tzari, iraintzat hartzen duzu. Egia da, egiten dizut oihu ahoa ireki gabe. Ez, gezurra da, diostazu, gezur galanta. Eta gure solasa luzatu egiten da, luzatu gau bukagaitz honen tankeran. Baietz diozu eta ezetz nik. Argi diozu eta nik ilun. Harrigarria da: mirari bat ikus dezakezu, nik halabeharraren eskua antzematen dudan tokian. Eta gure tirabira ozenagotzen da orduan. Gure hitzik gabeko xextra. Etor dadila lehenbailehen zure jainkoa, diotsut, nire onetik irtenda, egin dezala mirari bat, zuk diozun bezala, itzul diezagula semea. Semea itzultzeko.

Laster.

Sinetsi nahi nizuke, baina ezin dizut hori sinetsi. Zerua aipatzen didazu eta hor akabo dena. Hitz horrek bilakarazten ditu hurrengoak sinesgaitz. Infernua erranen bazenu, behintzat. Hori ongi ezagutzen dugu, horren existentziaz seguru gara, bertan bizi baikara orain dela mendeak. Lau pareta arteko hemen honetan, gela baten, sofa baten mugekin etsi izaniko hemen honetan, galderez eta zalantzez josirikoa. Geure gauaren infernua.

Zerua aipatzen didazu, etorkizun omen dena. Zeru hori, aldiz, zuretzat bezain zaharra da neuretzat ere, ez ahantz apaizgai izan nintzena. Leihoraino hurrera-

tu nintzen hondar aldikoa dut orain gogoan: berunka-
ra, elur hurbilaren albistea zekarren. Luzaz egon nin-
tzaion so, mendietako erpin eta ertzek nola zauritzen
zuten ikusiz. Elurra zekarren, mundu osoa estaltzeko,
garbitzeko, edertzeko bertze. Erran nizun: Elurra
dakar. Zuk isilik segitu zenuen.

Isilik gaude. Lanpararen hots motelaz gain, deus ez
dugu aditzen. Kanpoan erortzen aritu duen elurra ere
ez. Etengabeki erortzen ari. Zerutik erortzen ari. Sal-
batuko omen gaituen horrexetatik.

Inork ez gaitu salbatuko.

Ez dizut erran, ez horrek, ez inork ezin gaitu salba-
tu. Ez dizut deus erran. Zertarako? Uko egiten diozu
begi-bistakoena ikusteari. Mutu eta gor ez ezik, itsu
ere nahi duzu. Nik ere bai, ziur aski, batzuetan ahan-
tzi arren. Munduarekiko lotura guztiak moztearekin
amets egiten dugu, insomniaok eragotzi ezin duen
molde batez. Amets bera biok. Amets bat ez ikusteko,
sinestezina sinesten jarraitzeko amets bat. Zuk ze-
ruan eta nik, nik auskalo zertan. Sinesteko. Sineste
guztiak behin betiko ahitu arte sinesteko. Semearekin

noizbait bilduko garela sinesteari utziko diogun unera arte sinesten jarraitzeko, azken finean.

Zergatik egin zion hura?

Zure galdera lanpararen hotsaren antzekoa da. Gi-roan egoten da, oharkabean pasatzen zaidanean ere. Batzuetan, aldiz, mamitu egiten da eta bere handitasuna, bere ahal osoa erakusten dit. Erantzutera behartzen nau, torturagile batek behartuko nindukeen gisara. Eta erantzutera behartzearekin batera, gezurrak erratera ere derrigortzen nau, nolabait. Baietz diotsut, beraz, behin, mila aldiz, milioi bat aldiz. Zuk galdetu adina bider baietz. Hala eta guztiz, hori ere ez duzu aski. Gehiago nahi duzu. Gorrotoa banatu nahi duzu nirekin. Aspalditik gainean daramazun zama arindu nahi duzu, horren zati bat niri pasatuz. Gorrotoak areago batu gaitzala nahi duzu. Komunioa nahi duzu, gorrotoaren sakramentua biontzat. Eta baietz diotsut, zuk diozun bezala izanen dela, orain sorgin beltza deitzen duzun horrengatik ez balitz, semeak bizirik jarraituko lukeela. Baietz diotsut, diozuna gezurra dela jakinik ere. Hala, gorrotoa baino gezurra da baten gaituena, gure porlana. Gezurra erraten diogu elkarri eta gezurra erraten diozu zeure buruari. Bai, gezurra, biok baitakigu zein izan zen heriotzaraino egin

zuen ibilbidea. Haren lekukoak gara, hurbilen zituenak. Gu eta Aipaezina, noski. Hura ez, entzun dezaket zure protesta, hura ez, inolaz ere. Baina hura ere han egoten zen, gu baino maizago eta, batez ere, gu baino hurbilago. Gu biok une honetan gauden bezain hurbil eta elkarrengandik urrun, hagitik urrun, elkarren antipodetan kasik, aldi berean.

Gure semearen gainbehera mendetan nozitu ondok, bere ahalegina alferrikakoa zela onartu behar izan zion neskak bere buruari. Etsi egin zuen. Enekok maitale bat zuen, apetatsu eta ahalguztiduna: herioa. Eta hark eroturik zuen. Hargatik utzi zion bizarra egiteari, ilea mozteari, garbitzeari eta jantziak aldatzeari. Jateari ere utzi zion harekiko grinaz. Athleticen mar txaz ere axolagabetu zen. Hor larritu zen Aipaezina benetan, hura baitzen gure semearen erlijio bakarra. Negarrez azaldu zidan elkartu ginen hondar egunean. Baztertuta nauka, Felix, erran zidan, ikusi ere ez nau egiten. Seguru ezetz, nik, bolada txar bat bertzerik ez zela eta laster itzuliko zela bere onera. Hori erran nion, zerbait errate aldera, ordurako ez bainuen ni neuk ere sinesten. Ordurako soberan zegoen edozein gezur. Areago, jadanik dena zegoen soberan. Kartak banaturik zeuden, gibelera egiterik ez.

Kartetan ari ginen bazkalondoan, Astorekak bere eskaera egin zidanean. Udaberriaren hondarreko igande eguzkitsu bat zen eta mendian geunden, egunpasan. Emazte eta seme-alabak urrun entzuten genituen, jolasean edo. Haiek jolasean eta gu jokoan. Eskuetan zeuzkan kartetatik begiak urrundu zituenean, horretan ari zela pentsatu nuen. Jokoan, alegia. Niri begira gelditzeko urrundu zituen, nire arreta bereganatzeko.

Mesede bat eskatu behar dizut.

Harritu egin ninduen, Astorekak sekula ez baitzidan mesederik eskatu, behin ere ez. Nahi duzuna, erran nion, nahi duzuna. Bulegoa utzi behar didazu, horixe gura dut. Noski, utziko dizut. Lagunaren eskiera artean harrigarri hura bizkor hausnartzera behartu ninduen nire baieztokoaren laburrak. Zertarako, horra zein galderari iritzi nion egokien, Astorekaren arrazoiak asmatzera heltzeko. Politikarako? Litekeena. Molde anitzeko biltokiak zituzten jeltzaleek aspalditik, baina bazitekeen toki ezezagun eta diskretu bat behar izatea, edozein mikrofonotatik urrun, sekretupeko halako bilera garrantzitsu (are historiko) bat egiteko.

Historiaren erdian sentitu nuen neure burua, hagitz gisa apalean sentituagatik. Nire bulegoa aipatzean, diskretu hitza erabili zuen Astorekak halaber, inoiz eskatu ez nion azalpena ematen hasi zitzaidalarik. Isiltzeko erran nion, zuri ere zenbaitetan erraten dizudan gisara, ez zela deus azaldu beharrik. Niri ez, bederen. Irri egin zuen, hori aditutakoan. Irri bai, baina ez bertzerik. Luze gabe emazteak eta seme-alabak itzuli eta ahalegindu behar izan genuen karta jokoarekin segitzeko. Sei neska-mutiko eta bi emazte sobera dira, jokoan taxuz aritzeko. Begoñak, zure lagun emankorrrak, munduraturiko bortzak eta gure seme bakarra.

Egun batzuk geroago hots egin zidan. Arratsalde hartan bertan erabili omen zuen lehendabizikoz. Omenka aritu behar dut, biharamunean ez bainuen bilera edo bertze deusen arrastorik aurkitu. Dena nik bezperan utzi bezalaxe zegoen, gauza bakoitza bere tokian. Garbi zeuden hautsontziak eta paperontziak, eta giroan ez zen ezeren usainik. Behin ere ez nion galdetu norekin biltzen zen nirean.

Ez dakienak ezin ezer kontatu. Hori uste nuen orduan, gauak bukaera zuenean goizero. Aspaldi. Gure semea Arkautitik iragan aitzin. Ez dakienak bere ja-beak nahi duena konta dezake, aitzitik. Kontarazi die-

zaiokete. Zernahi. Hil ez duena hil duela, errate bate-rako, suntsitu edota erre ez duena suntsitu eta erre duela. Denbora behar da horretarako. Milaka minutu eta hainbat bultzagarri edo eragingarri. Akuilu sendo bat. Edo kable batzuk.

Zergatik egin zion hura?

Zure galderarik gogokoena, zure guztizkoena, gehien errepikatzen duzuna, hastio diodan horrexek bertze itxura bat hartzen du Astoreka oroitzearekin batean. Zergatik utzi zien bere menpekoei gure semea hain gaizki erabiltzen, hain zitalki? Bere menpekoak baitziren Barne sailburua eta, hortaz, haren azpiko guztiak ere. Ez alferrik, bertze garai batzuetan ez bezala, gobernuaren gainean Alderdia zegoen. Alderdia, halaxe, letra larriz. Eta Alderdiaren gainean edo gibelean Kosme Astoreka, nire ustezko laguna, nire aspaldiko adiskidea. Edo ez. Beharbada dena dirudien baino korapilatsuagoa da, nahasiagoa. Hala ere, zergatiek, galderek eta zalantzek hor diraute, beti bezain goseti eta asegaitez. Erantzunak, zehaztasunak guti dira, ordea, urria argitasuna eta mugagabea ilunpea. Eta zalantza horiek gibelerara naramate denboran, egun euritsu bateko bazkarira, baita egun eguzkitsu bateko bazkalondora ere. Edozein modutan, Astoreka

eta biok gaude aldi bietan eta gure artekoa da kontua. Hori segurua da. Niretzat behinik behin.

Gure artekoa, kontua. Zu eta bion artekoa, ur azpiko balet batean nola, poliki baina batera mugitzen diren harrizko bi gorputzen artekoa. Gorputz bakar bat, hobeiki errana, denborak eta sofa honen muga estuek derrigortua. Bat bitan banatzen omen da. Dialektika, Roderaren ustez. Alderantzizko bidea egin dugu guk, dialektika horren berunezko legeak irrigarri utzi nahi bagenitu bezala. Baina ez dugu nahi, bortz axola edozein lege. Deus ez dugu nahi, batere ez, dagoeneko ez. Denboraren espazio mugagabea galduriko harri puska bat osatzen dugu, horixe gara. Deus guti, nahiz eta gure inguruan hainbat satellite eta planeta koskoribili: astorekatarrak, Juanjo Roder, zengotitatarrak, Aipaezina... Horiek guztiak gure inguruan jiratu, eta gu, halaber, semearen inguruan. Hari begira gara une oro. Gure eguzkia da, berotzen eta elikatzen gaituena. Bizirik mantentzen gaituena. Horrela solastatzerik bada, bederen, hildako bat bizirik izan daitekeen heinean bainaiz, baitzara, bizirik. Hein horretan baino ez. Gure oin, beso eta bularrak kontaktzen ari diren istorio-

aren burura heldu orduko akabo dena. Akabo zuretzat, niretzat eta gure satelite guztientzat ere. Istoriorik gabe, zertarako horrenbertze pertsonaia, zertarako horrenbertze jira eta bira? Zentzugabea. Eroa. Soberrazkoa.

Utzi bakean.

Hori erran didazu, orain ere. Gorputzak egia dio, eta bakean uzteko erran dit zureak. Uzteko. Zure orpoa nabaritu dut ezkerreko zangoan eta zure ahotsa entzun, ez zure oraingo murmurio triste eta ulergaitz hori, aspaldikoa baizik, dena benetakoa zenekoa.

Uzteko. Alde egiteko. Desagertzeko.

Horixe eginen nuke, ahal izanez gero, zaude ziur. Zulo beltz batean galduko nintzateke betiko. Astronauten hilerriraino joanen nintzateke eta bertan egonen, haien gisara, izarren hauts bilakatu arte. Ezinezkoa zait, ordea. Oraindik bai. Hondar hitza erran gabe dago, istorioa erabat burutu gabe, eta bitartean gauden honetan iraun behar, nola edo hala. Kontu-kontari jarraitu behar, ahoa itxirik. Gure arteko kontu honek noizbait bukaera izan dezan. Zuretzat. Neuretzat. Are semearentzat. Edo bereziki semearentzat, hura izanik izar hauts bilakatzeko ahaleginean gure aitzindaria. Gure eguzkia. Haren gibeletik goaz, beraz, haren lo-

rratzari jarraiki. Arrasto horri gatzexkio, bertzerik ez bagenu bezala.

Eta ez dugu bertzerik. Hura gabe esku hutsik gaude. Hura gabe ez gara deus. Hura gabe ez gara, ez gaude, ez hemen ezta bertze inon ere. Hura gabe, nola hats egiten segitu? Eta batez ere, zertarako? Sobera galdera. Horiexek garamatzate semearen uberaren gibeletik, horiexek mugiarazten gaituzte oraindik, nekez uzten dugun sofa honetatik. Eta, halaber, nekez luzatzen ditugun besoak luzatzen ditugu hari eusteko, hari atxikitzeko, hura ez galtzeko. Betiko ez galtzeko. Eta gure besoak tai gabe luzatzen dira, gomazkoak balira bezala, eta semearen gorputzaren atal bakoitzari heltzeko ahaleginak egiten ditugu eta, huts egin da ere, ez diogu gure ahalegin alimalekoari uzten. Eta ezin diogu utzi. Utziko bagenio, galdurik geundeke, guztiz, erabat, orain gauden baino galduago. Hil ala bizikoa da guretzat. Hil ala bizikoa. Solastatzeko molde bat baizik ez da, noski, adieraztezina adierazteko saiakera sortzetik zapuztua, hitzen sortzezko ezintasunaren hamaikagarren adibidea. Aukera, dugun bakarra, ez baita hil ala bizi, hil ala hil baizik. Hori da semearen gibeletik abiatu ginenetik ikasi duguna.

Semearen gibeletik abiatu. Bitxia. Batek daki non-dik hartu dudan erran molde hori, nola bururatu zaidan. Baina bitxia izateaz aparte, zehatza ere bada. Zehatza, ia ezkondu ginenetik abiatu baikinaren haren bila. Bi gorputz ginen artean, harriaren berri ez zuten bi gorputz gazte eta indartsu. Bi gorputz malgu eta gutziatsu, bakar bat bilakaraziko zituen bertze baten bila. Osotasun lasai baten bila. Genuena baino osotasun osoago baten irrikan ginen, gure orduko zorientasuna geroan luzatuko eta, nolabait, ziurtatuko zigula tematurik. Hori nahi genuen bertze zernahiren gainetik. Denborak, aldiz, gure asmoa maite ez eta eginahalak egin zituen hura eragozteko. Luzaz egon ginen hartaz ohartu gabe, gaztetasunak derrigorturiko jardunetan buru-belarri. Haren sua pixka bat menderatu ahal izan genuenean. Pixka bat menderatu, bezatu, ez guztiz itzali. Astorekatarrak bigarrenez guraso bilakatu zirenean hasi ginen gure itxurazko antzutasunaz jabetzen, haiei esker. Galderak sorrarazi zizkigun, ama bezala, Begoña bataiatu zuten neskatikoaren munduratzek. Haiek bi eta guk batere ez, bidegabekeria galanta. Justizia nahi genuen eta ohatzean bilatu ohi genuen, larruen igurtzian, jarioen trukaketan. Jo eta ke

aritu ondotik izerditan geuntzalarik, zure ezpainen mugimenduaz ohartzen nintzen eta banekien otoi-tzean ari zinela, seme edo alaba baten eske. Marmar izatera heltzen ez zen halako hots txistukari apal bat zen ozta-ozta. Aski haatik zerutik entzun zintzaten. Marmarka edo oihuka berdin, tutik aditu nahi ez due-narentzat. Ahalguztidun, eskuzabal eta errukitsua omen den zure jainko zakur horrentzat. Gure nozitzearen bistan gozaten duen sadiko zital horrentzat.

Isildu!

Isiltzeko, diostazu, baina badakizu egia diodala. Egia, ertz zorrotzun zera hori. Atxikiz gero, odoletan izanen dituzu berehala eskuak, eta hori ere badakizu. Senak diotsu eta horrek berak uxatzen zaitu egiatik. Egiaren su kiskalgarritik ahalik eta urrunen nahi zaituen senak. Zure hobe beharrez. Gure hobe beharrez, ni ere erretzen bainau su horrek. Erredurez mukuru daukat gorputz osoa. Haragi bizitan nauzu goitik beheiti. Hala izan ohi gara zonbiok, hil biziok, gure zokotik mugitu gabe munduan barrena goazenok. Nornahi ikaratzeko gisakoak. Geure burua ikaratzeko gisakoak. Urtetan lagundu diguten gezurrek, aldiz, ezin digute areago lagundu. Orain alferrikakoa dugu edozein gezur, eta, erraten jarraitzen badugu, ohituraz jarrai-

tzen dugu, inertzia, hala egiten baitugu gaur egun egiten dugun ia guztia. Deus guti, alegia. Gero eta nekeago zaigu zernahi ahalegin, gero eta barrenago dugu harria. Denboraren hondar hori, harria, gure zainetan goiti geldiezin.

Isildu.

Zuk solastatu nahi duzu, zuk solastatu behar duzu. Zure txanda da. Historiari, edo istorioari bederen, jarraitu nahi diozu, nire biraoa agerian utzi nahi duzu. Azkenean haurdun geratu nintzen, oroitarazten didazu, horretarako beharrik balego bezala. Baina ongi go-goan ditut zehaztasun guztiak. Haurdunaldiaren lehendabiziko zantzuak, zure gorputzaren lehendabiziko seinaleak. Semearenak. Dena entzuten zenion. Zatoz, Felix, zatoz, arin, oihu egiten zenidan sukaldetik, aditu zelan mugitzen den. Eta hara nindoan ni, behar zenuen zernahi emateko prest. Beti. Nahi zenuen guztia. Oihuka dei egiten zenidan, eta behingotan uzten nuen eskutan neukana eta irritsu nindoakizun, laguntzeko irrikan. Guraso bilakatzeraz gindoazen eta gu geuk ere ezin sinetsi. Handia zen gero, itzela, zure gisara adierazirik. Hainbat medikurengana joanak ginen eta, biok aztertu ondotik, ongi ginela, ez genuela arazorik seme-alabarik izateko jakinarazi zigu-

ten den-denek. Misterio bat zen, dudarik gabe. Beharrik, zientziak ezin zuena ekarri zigun otoitzak.

Zeruaren oparitzat jo genuen biok, ni ordurako fededuna ez izanagatik. Berdin zidan: azkenean aita nintzen. Guraso ginen. Azkenean kontent ginen, arras kontent. Ozta urtebete lehenago ezinezkoa zirudien ametsa gauzaturik, hezur-mamiturik. Mirari bat, errepikatzen zenuen, mirari bat. Kopetan muin egiten nizun eta maite zintudala erraten. Sinesgaitza zen, txundigarria: familia bat osatzen genuen, hirurok bat. Artean handi zitekeen familia, jakina, hazteko gaitasuna zeukana, lehendabiziko seme hark ziurtatzen eta bermatzen zuenez. Erogarria zen. Astorekatarrak aipatzean, bekaizkeriak ez gintuen jadanik erretzen eta aske sentitzen genuen geure burua, arin, barren berri-turik. Geroaren dirdira hain zen itsugarria, non betaurreko beltzak jantzi behar baikenituen aitzina egiteko. Izarren eta planeten kokapena aldekoa genuelakoan, beldurrik gabe ibilki ginen, eroso, gure aurrean egunez egun ernatzen ari zen biziaren ikuskizunean ka-teaturik begiak. Nire begi ordurako nekatuak eta zure

betiko begi gaitzak, Eneko izendatu genuen niniari so, suari bezala.

Eneko.

Ezezaguna zenuen euskaldunok, nafarrok, sekula izan dugun errege bikainena. Normal iritzi nion zure ezjakintasunari. Nik ere Astoreka ezagutu arte deus ez nekien gure herriaren historiaz. Hark utzi ohi zizkidan liburuei esker ikasi nuen, poliki-poliki, gure ibilbidea denboran barrena. Argentinan argitaraturikoak ziren gehienak eta haiek irakurrita jabetu nintzen gure zorigaitzaz: Espainiako edo Frantziako historiak ezagutzen genituen, baina ez geurea. Don Pelayo, El Cid, Roland edo Napoleon ederki ezagutzen genituen, baina ez Eneko Nafarroakoa, adibidez. Armez inbaditu eta konkistatu gintuzten eta gisa berean banatu ere, Espainiako eta Frantziako erregeek hala erabakita. Deustoko garai hartatik gauzak aldatuak ziren, zorionez, pixka bat bederen. Guretzat bai bederen.

Bufetea ongi zihoakidan, inoiz uste baino hobeki, egia erran. Krisi baten ondotik, Durangaldea susperitzen hasia zen, eta industria nahiz eraikuntza goiti zetozen pixkanaka. Aitzineko urteetan ez bezala, bankuek eta aurrezki-kutxek kredituak ematen zituzten berriz ere. Kontratuak egiten ziren, salerosketak... Eta

joan-etorriko zurrumbilo hartan ni, buru-belarri lanean. Etxean nituen emazte eta semearentzat lanean, eta hagitz kontent. Semeari begira nola, halaxe egoten nintzaien nire kontu-korronteen zenbaki eta kopuruei begira. Ikuskari zinez ederrak biak niretzat. Hala, nire kontu-korronteak bezainbeste hazten ikusi nuen semea, pozez gainezka, eroturik. Eta harro, oso harro. Hala egoteko arrazoi sendoak nituela uste nuen, neukan eta lortzen ari nintzen guztia ongi merezirik nuela. Inork ez zidan deus oparitu. Inork ez zidan lagundu, batzuek guztiz bertzela uste arren. Astorekaren adiskidetasunak ez zidan kalterik egin, jakina, baina inork ez zuen lanik egin nire orde. Gainera, orduko Astoreka ez zen artean EBBko benetako nagusia, bazter ilun batetik dena menderatzen eta erabakitzen duen oraingoa. Inondik ere ez. Bidean zegoen, bai, baina gailurreraino igotzeko, hartaz jabetzeko, Xabier Arzailluz jaitsarazi behar zuen: handik nola edo hala lekutu. Nik jakin gabe ere, horretan ari zen Astoreka. Maiz agertzen zen Durangora eta, ahal zuenetan, elkarrekin egoten ginen. Batzokira biltzen ginen. Bileraren batetik irten eta handik hots egin ohi zidan. Ezkurdira joko nuen nik orduan, horretarako aukera izanez gero. Bertan, harekin ikusten ninduten Astorekaren lagunek

eta inoiz baino hobeki hartzen ninduten eta, gero eta gehiagotan, haientzat lan egiteko eskatzen zidaten. Lantegiak zituzten, harrobiak, molde anitzeko negozioak. Denetarik zuten, eta eskas zutena erosteko dirua gainera. Sobera diru. Eta hura guztia zaintzeko eta hazarazteko behar zituzten abokatu eta legegizonak ere bai.

Zure lagun hori, erraten zion gure semeak betidanik ezagutzen zuen Astorekari, batere ezagutuko ez balu bezala. Ez zuen ezagutu nahi. Ni ere ez ninduela ezagutu nahi erranen nuke, nitaz lotsatzen zela. Ertzaintzak atxilotu aitzineko kontuak dira horiek, etxe honetara bizitzera etorri ginen garaikoak. Ongi bizi nahi nuen, bai, eta ez zitzaidan iruditzen hori makurkeria zenik. Ongi bizi nahi nuen, begiratu gabe nola bizi ziren ingurukoak. Hirurok ongi bizi gintezen nahi nuen, bertzerik ez. Sobera eskatzea ote zen? Semearentzat bai, nonbait. Behin baino gehiagotan aurpegi-ratu zidan: Dirua baino ez zaizue ardura, ez duzue beste aberririk. Nire sosei esker bizi haiz hi bizi haizen moduan, oroitarazten nion, amorruari eutsi ezinik. Eta orduan hura ere amorratu eta bere betiko letania ale-

tzeari lotzen zitzaion: makina txanpon-jaleak, ustelkeria, GAL, AHT... Luzea, bukagaitza, haren ustez, jeltzaileen jukutriaren eta saldukeriaren adibideen zerrenda, nornahi ikaratzeko moldekoa.

Ez nauk jeltzalea, saiatzen nintzen nire burua defenditzera, semea modu horretan oldartzen zitzaidan bakoitzean. Aitzakia merkeak ziren nireak harentzat, begi bistan zegoena ikusteari uko egiten zion baten trikimailu irrigarria. Berez, egia nioen, alderdikide sentitu arren, sekula ez bainuen alderdian izena eman, Astorekak behin baino gehiagotan eskatu bazidan ere. Ez nuen horren beharrik sentitzen. Bihotzez jeltzale osoa nintzen eta hori aski zen niretzat.

Okerragoa, bihurritzen zitzaidan semea, nire ustezko jeltzaletasunari uko egindakoan. PNVkoa ez zarelarela diozu, baina haiekin batera mugitzen zara, haiek dioten guztia diozu zuk ere edozeri buruz berbetan, batzokian pasatzen duzu eguna... Eskatu karneta lehenbailehen zure lagun Kosmeri. Izan apur bat koherentea, behingoz.

Hor egiten nuen zapart. Koherentzia aipatzen zidalarik, halako leherketa gisako zerbait nabaritzen nuen barren-barrenean, eta ahaleginak eta bi egin

behar izaten nituen, nire besoari eusteko eta semea ez jotzeko.

EZ nuen semea behin ere jo. Horretarako tentaldirik izan nuen bakoitzean zure begiek eragotzi zidaten. Zure begi gaitz eta beti irekiek, orain telebista itzaliaren iluntasuna amiñi bat argitzen duten horiexek. Horiexek salbatu ninduten semea jotzetik. Horretatik baino ez, diostazu erran gabe, salbaziorik ez dudala, ez dugula, ez dagoela ez bagenek bezala. Baina badakigu, zuk hitz hutsalak (zeru, etorkizun, inoiz) aipatzen jarraitzen baduzu ere. Zure begiek, aldiz, bertze hiztegi bat darabilte. Infernu diote, orain diote, beti diote. Eta hondamendi ere bai, begi ikaragarri horiek betiko itxiko dituen hondamendia. Horiek eta hauek, begiratzen dizuten begi nekatu eta ttipi hauexek ere bai. Dena itzali, dena iraungi betiko. Noizbait. Bitartean, hemen bertan iraun behar, sekula iragaten ez den iragan astun honen preso. Sofa honen muga zorrotzetan preso eta, batez ere, gure gorputzetan preso eta gatibu. Edozein ziegatako paretak bezain harrizkoak ditugun gorputz trakets hauen muga itsuetan. Zure begi mugagabeek mugaturiko esparru me-

harrean beti. Eta eskertu behar nizuke. Mila, milioi bat esker eman behar nizuke hondar mendeetan eskaini didazun zaindaritzagatik.

Mila esker.

Irri gisako zerbait egin didazu, zerbait apala, nire solasa aintzat hartu duzula jakinarazteko baino ez. Aski, inondik ere, biontzat. Bertze zernahi alferrik legoke, bereziki hitzak. Zernahi hitz, zernahi solas. Menpekoak burua makurtu behar du bere nagusiaren aitzinean, hori du bere eginkizunetan lehena eta behinena. Zure parean makurtzen naiz, beraz, zure ondo-ondoan kizkurtzen, zure nagusitasuna aitortuz. Preso batek bere zaindariari keinu bakoitzean adierazi ohi dion gisara adierazten dizut nire mendekotasun argia, torturatuak torturagileari nola. Gure semeak Bakeroari nola.

Zergatik egin zion hura?

Horixe galdetzen diot nik ere neure buruari. Hasieran Bakero hura psikopata bat zela uste nuen, psikopata hutsa, munstro bat. Roderak ikusarazi zidan oker nengoela. Naziez hitz egin zidan, Hannah Arendtek idatzirikoaren berri eman zidan eta konpreniarazi edozein izan zitekeela torturagile, baita ni bezalako gizon langile, lasai eta familia zale bat ere. Kostata onartu

nion lagunari orduan, orain begi-bistakoa zaidana. Eta duda egiten dut bertze inori kasu eginen ote niokeen, halako zer edo zer bota eta gero. Roderaren jakituria, berriz, sobera handia da muzin egiteko, eta hausnartu beharreko iritzi nien haren hitzei. Eta zenbat eta buelta gehiago haiei eman, orduan eta izugarriagoak zitzaizkidan, eramaten zailagoak. Aukeran, ordura arteko munstroak nik nahiago, erosoagoak ziren niretzat. Zinezko munstrokeria itxura arrunteko herritar arruntena izatea nik uste nuena baino anitzez makurragoa da, inolako zalantzarik gabe. Horrek ia nornahi bihurrarazten zuen susmagarri. Karrikatik joan eta aldamenetik iragaten zaidan hori, eskutan plastikozko zorro bat daraman gizontxo itxuraz onbera horixe, gure semearen torturagilea izan litekeela jakiteak darduzatu egiten nau. Eta, nolabait, pixka bat paranoiko ere sentiarazten dit, aitor dezadan egia, arrisku larriz inguraturik. Beharbada horrexegatik geratzen naiz hemen, gure zoko honetan, zure begi zabal-zabal eta elurra bezain zuri horiek zainduriko eremu epelean, gure gotorlekuan. Karrikako, munduko hotz beltzetik gas errearen beroak babesturik, egundo bukatzen ez den eta mugarik ez duen insomnio eternal honen moteltasunean laketurik, hemen berean nahiago guk,

bertze inora gabe. Geurean, gugan geratzen gara, hortaz, gure gorputz bakarrera bildurik, gure ezereza-
ren erdian. Zure begietako elur eternalari begira.

Beti.

Koherentzia eza leporatzen zidan semeak amorruez. Gisa berean aritzen nintzaion ni, haren ozarkeria ulertu eta onartu ezinean. Zuk lasaitzeko eskatzen zenidan. Gaztetxo bat da, entenditu behar duzu, erraten zenidan, adin kontua da, pasatuko zaio. Baina ez zitzaien pasatzen, sekula ez. Ez zidan deus barkatzen. Eta zuk ere ez. Haren alde azaltzen zinen behin eta berriz, maiz gehiegikerietan zebilela jakinik ere. Berdin zizun, amatasunaren lege ilun batek bultzaturik agian, semea hobesten zenuen, ni bazterrean utzirik. Orain eragiten digun kontrako mugimendua eragiten zigun semeak orduan: bereiztera behartzen gintuen, elkarrengandik ahalik eta urrunen egotera, baita ohatzean ere. Zure bizkarrak ez zuen nire bularra bilatzen, ez eta zure eskuak nirea. Eta, hala ere, elkarrengandik orain baino hurbilago ginen. Amorrua gelditzen zitzaigun, hori bai, biok erretzen gintuen garra, duela

mendeak itzali arren, ahantzi ezin dugun inoizko hura. Aspaldiko hura, etsi aitzinekoa.

Eguzkitan bizi ginen orduan, gauaren eta insomnioaren susmorik gabe. Aparretan geunden eta haizea alde genuen. Bizkor gindoazen. Sobera bizkor? Gure semeari jaramonik eginez gero, bai, zalantzarik gabe. Athleticena egundo ahantzi gabe ere, janzten hasia zen elastiko haietariko batek salatzen zuen Abiadura Handiko Trena bezain bizkor. Xextrak izan genituen zorigaiztoko tren hura zela eta. Semeari astakeria, hondamendia zeritzona, aitzinamendua zen nire aburuz. Egia erran, abururik ez nuen kontu horren gainean, nire ingurukoek eta egunkariak ziotena sinesten nuen. Aski. Inora bizkorrago joateak onuragarria behar zuen, nolana ere, nire orduko iritzian. Sinesbera nintzen edo, semeak adierazi bezala, sinesbera izatea komeni zitzaidan.

Egia handiak erran ohi zizkidan semeak, nik aintzat hartu ez nituen egia potoloak. Zer jakin zezakeen gaztetxo batek? Deus guti. Ez dakiena gisa horretan pentsatzen ohiturik dago, arrotz zaiona gutiesten ohiturik. Hagitz bertzela uste arren, ezjakin galanta nintzen, harrezkero ongi jabetu naizenez. Aitzinamendua. Irrigarria. Jainko zurea utzi, eta aitzinamendua

eta aurrerapen historikoa aukeratu genituen haren orde-
zko. Gu baino irrigarriagorik. Gu baino itsuagorik.
Gazteek artean ikus zezaketen. Roderak ere bai. Juan-
jo, oso noizbehinka baino ikusten ez nuen aspaldiko
nire lagun xelebrea. Komunista bat.

Pasatuko zaio, ziurtatzen zenidan, semea komu-
nista zela jakinarazten nizunean. Irriz erraten zenidan,
eta ni irri haien zergatia jakin gabe geratzen nintzen,
ni ez kezkatzeagatik egiten ote zenuen edo semearen
aldarrikapenagatik. Ez nuen jakin nahi izaten.

Komunista.

Hitz horrek seminaria ninderaman aditu orduko.
Hitz larria, inondik ere, han geundenontzat. Deabru
etsaiaren izenatarik bat. Mailua eta igitaia gurutzea-
ren kontra. Ongia eta makurra, zerua eta infernua
buruz buru. Hil ala biziko borroka lazgarria. Mundua-
ren akabera. Hondamendia. Apokalipsia.

Komunista eta abertzalea.

Ez duzu ezer aditu gura, erran ohi zidan semeak,
ez duzu ezer jakin gura.

Zuzen zen, orain, sobera berant, alferrik delarik,
ohartzen naizenez. Zuzen zen, diotsut, seguru izana-
gatik ere jaramonik eginen ez didazula, zure eskuin

eskuko bi hatz luzeenek sofaren larrua laztantzen jarraituko dutela.

EZ didazu jaramonik egiten, baina begitarte iluntzen zaizu zigarreta bat pizten dudan bakoitzean. Harrigarria izateaz gain hunkigarria ere bada niretzat. Oraindik nitaz arduratzen zarelako seinalea da, edo hori iritzi nahi diot bederen. Nolanahi dela, nitaz arduratzen zara eta hori bada zerbait. Errieta egiteko bertzerik ez bada ere, zeinen ergel naizen agerian uzteko bertzerik ez bada ere. Ezagupen keinu hori aski da, konforme naiz, esker oneko. Eta nik ere hatzen bat mugituko nuke zuri buruz, harri bihurturik zaudela ez baneki. Zu harri eta neu ere harri, harri gure gorputzen giltzadura eta gihar bakoitza. Harrizkoak halaber keak urtetan belzturiko nire biriken paretak. Erre eta kiskal nadila, fundi nadila, bortz axola. Sutan erreko ez bagara, ito gaitezen ketan.

Zure besoa sentitu dut soinean, oraindik zer den ez dakidan baina laster egin behar dudan zerbait eragotzi nahi bazenit bezala. Dei bat da menturaz. Burua makurtu duzu.

Zer diozu?

Erantzunik gabe utzi nauzu, zer adierazi nahi didazu asmatu ezinik. Zerbait adierazi nahi badidazu, noski. Zure begiek telebistan finko segitzen dute, zure gorputzaren bertze mugimenduei itsu eta gor. Ilunpearen erakarpena.

Begira iezadazu, diotsut, zigarreta bat piztu izan banu bezala. Baina zuk jaramonik ez. Hatzak urduri nabaritu ditut. Danborra jotzen hasi dira, harriaren gainean. Hasieran. Gero, are urduriago, zigarretak bilatu dituzte, horiek gordetzen dituen kutxatxo zuri gorriaren kartoia. Hori sentitu duten arte ez dira pixka bat lasaitu. Ondotik, pizgailua bilatzeari lotu zaizkio. Sua. Kea. Birikak bete ke. Zureganantz bidali dut kea, zure begietarantz. Haren gibelean galdu zara istant batez, berriz agertzeko, keak beheiti egindakoan. Deus ez da zure aurpegian aldatu, ezta poxi bat ere. Begiak pantaila beltzean dauzkazu, betiko gisara, eta betileak ere ez dituzu noizbehinka mugitzen. Ezagun duzu harrizkoa zarela. Buda bat zarela iruditzen zait batzuetan.

Zergatik egin zion hura?

Ez dudala galdera aditu sinetsi nahi izan dut hasieran, ez dudala deus aditu. Begira izan nauzu eta ziurta dezaket zure ezpainak ez direla amiñi bat ere zabal-

du, zure ahotik ez dela hotsik irten. Eta hala eta guztiz, horixe entzun dut, argi eta garbi:

Zergatik egin zion hura?

Aipaezinaz mintza gaitezela nahi duzu, antza. Nik ez. Orain ez. Berriz ez. Horregatik Astorekaz mintza gintezkeela uste izan dut alditxo batez, harik eta horretaz dagoeneko mila, ehun mila, milioi bat bider mintzatu garela ohartu naizen arte. Orduan egin dut nire oroitzapenetan Zengotitarekin topo. Hara, Zengo, agurtu dut, zer gisa? Nitaz ez duzu zeresanik, ohartarazi dit luze gabe. Ezetz, ezetz, egoteko trankil, seguruen ez garela adiskide minak izanen, baina aurkariak, kontrarioak ere ez garela. Horixe erran diot. Egia. Behin batean egia izanikoa bederen. Edo oraingo gezurra agian. Laster oroitu naizelako aspaldi, duela mendeak, semea kartzelatik irten zen lehen aldian, herrian semeaz erran omen zirenez, gezur beltz haiez guztiez. Nork zer erran zuen zehaztea ezinezkoa da niretzat, baina, nire barrenerako, hura izan dut (izan nuen) errudun. Zergatik hura eta ez bertze nornahi? Auskalo. Inoiz jakin badut, ahantzi dut. Norbaiti noizbait adituriko zer edo zer izan daiteke nire susmoaren jatorria edo, seguruen, Aipaezinak adieraziko zigun zerbait. Nolanahi ere, Zengotitaz solastatzea, hura ai-

patzea okerreko aukera izan liteke, noizbait jabetu naizenez. Hura aipatu eta, goiz edo berant, Aipaezinaz hitz egin beharko genuke, hain zuzen ere nik kosta lain kosta saihestu, isildu, baztertu nahi dudana. Tabua.

Zaila da zuri zerbait isiltzea. Une oro ari zara zure mututasunetik galdezka. Beroak (gure gorputzenak, gas errearenak) nabarturiko giroan zure betiko galde-
ra une oro uzten. Itogarria da, gogaikarria, eramangaitza. Tortura gisako zerbait dela erranen nuke, hori erratea zilegi banu, baina, lasai, ez dut erranen, oraindik ez zait ahantzi horren aipamenik ttipienak ere gaizkitu egiten zaituela. Tabua da zuretzat, Aipaezina-
ren izena bezala. Tortura tabua da nonahi. T-z hasten den hitz horrek tiro hotsa dirudi: ahoskatu eta bertan daudenen buruak batera apalduko dira, bala galdu baten beldur. Eliza bateko isiltasun eskergan oihuka birao egitearen antzekoa da, jaunartzeko unean zure jainkoaren gorputz zaurituaren gainean kaka egitearen antzekoa. Metaforikoki adierazirik, guk elkarri egiten dioguna alde-aldera. Mantra bat bailitzan errepikatzen duzun galdera horren bitartez kakazten nauzu,

eta horri erantzuteko nire gogo faltaz kakazten zaitut nik. Eta hor gara, horretan nekatu gabe ari: bi boxeolari itsu, itzal zalantzakor bat indar osoz jo nahian eta ezinean. Elkarrengana beso bana luzatu eta huts egingen dugu etengabe. Gure zartakoak airean alferrikaltzen dira, fruitu helduak zuhaitzean nola. Elkarren aurpegia bilatu eta gure indar guztia xurgatzen duen hutsune handi bat baizik ez dugu aurkitzen. Sofa honetan borrokatzen gara elkar ukitu gabe, hauxe gure ringa. K.O.a nahi dugu, horren gibeletik gabiltza biok, zuk niretzat eta nik zuretzat, hondar muturrekoa, erabatekoa, gure arteko borroka guztiak behin betiko bukaraziko dituen. Zure ukabilaren txistua aditzen dut belarri ondoan:

Zergatik egin zion hura?

Istant bat bertzerik ez dut izan, besoa altxatzeko eta zure ukabila eragozteko. Zerbait erantzun behar dizut, galderari ez erantzuteko. Gezur bat asmatu behar dut lehenbailehen, istorio bat, edozein, zure arreta nireganatzeko. Lapur bat banintz bezala, zure arreta nireganatu esku batez, bertzeaz zuri sakela husteko, garbitzeko. Liluraturik behar zaitut horretarako, baina zu liluratzea, batez ere orain, lan nekeza da. Beti. Horregatik behar dut istorio on bat, erakargarria,

indartsua, zure mantra eteteko modukoa. Lan zaila. Makina bat istorio dut kontatzeko (gaua hasi zenetik gertaturikoak denak) eta neke da bakar bat hautatzea. Denek dute zer edo zer interesgarria, kontatzea merezi duen zerbait. Protagonista ezberdinak dituzte (Astoreka, Zengotita, Bakeroa, Roderia, ni neu...), ezberdinak dira giroari zein tonuari dagokienez, baina beharbada ez dira zu liluratzeko bezain gozoak. Xerezade izan nahi nuke, ipuinak aukeratzean eta kontatzean asmatu. Hark bezala, nire burua salbatu nahi nuke. Gaua noizbait egun bilaka dadila nahi nuke, egunabarraren moreaz gozatu, azkenekoz bada ere. Eta nire besoak zurea aurkitu duen arteko instant horretan sartu naiz istorioen biltegian eta hango apalategietan miatu dut lasterka eta une labur hori izan dut hautatzeko. Nire neurona akituek bizkor aukeratu behar izan dute. Aldi ñimiño horretan erabakirikoa, zuzen edo oker, zure belarrietara helduko da luze gabe. Astorekaz mintzatuko natzaizu, eta hartaz kontatuko dizudan istorioa ez da edozein izanen. Aitzitik, arestian aipatu dizkizudan osagarri eta ezaugarriak izanen ditu, hots, indartsua izanen da. Gezurrak baliatuko ditut, bortizkeria ere bai, sexua ahortzi gabe. Eta traizioak, bereziki traizioak. Istorioa kontatzea bera

baita traiziorik handiena, makurrena, beltzena. Astorekari eginiko traizioa eta, bide batez, neure buruari eginikoa, hark egundo ez baitzidan eskatu ez kontatzeko, ziur aski, horretarako beharrik ez zegoela sinetsirik, eskatu gabe ere seguru izanik bere sekretua nigandik ez zela aterako. Dena den, traidore bati traizioa egitea ez zait hagitzen larria iruditzen, eta zu ere iritzi horretakoa zarela jabetuta nago.

Astoreka gizon diskretua da berez, oharkabeen pausatzea maite duena. Halakoa zen Deustoko Unibertsitatean eta halakoa ondotik ere, politikaren itsaso bizi arriskutsuan barneratu zenean. Kamera eta mikrofonoetatik ahalik eta urrunen beti, zorrozki zaintzen duen bere anonimotasunean eroso. Alderdi barneko zirrikitu guztiak ezagutzen ditu, burukide guztien afera eta sekretuak, baita bertze zenbait alderdikiderenak ere. Urtetan pilatu duen informazio horri esker mugitzen ditu guk ikusten ditugun txotxongiloak. Telebistan agertu ohi diren parlamentari, ahaldun, sailburu, alkate eta abar horiek guztiak, kamera baten aitzinean hanpatzen den kuadrilla irudiz zentzudun eta, batez ere, jator hori guztia. Guk ikusi ohi dugun an-

tzerkitxoa, haien eguneroko antzezpen koxkorra, Astorekaren esku abiletan dago funtsean, hark zuzentzen du, agerian dagoenaren gibeletik. Bai, hitz handien gibelean nahiz ekintzarik lotsagarrienen gibelean, Kosme Astoreka beti. Lemari atxikirik egun osoan, itsasontzi jeltzalea gidatzen du kemenez, ekaitz eta enbatetan barna. Erne egon behar du, denari adi, baga batek ontzi sendo baina zaharra irents ez dezan bat-batean. Hor, solasak alferrikakoak dira. Areago, kalterako dira. Hor, diskrezioa derrigorrezkoa da. Astorekaren bertuterik nabarmenena. Baina denok egiten ditugu hutsak eta akatsak goiz edo berant, denok egiten dugu egin behar ez genuen zerbait. Baita Astoreka bezalako gizon ezinago zuhurrek ere.

Akatsa (zilegi bekit horrela deitzea) nire bufetea zenbait urtez erabili eta gero egin zuen. Astorekak telefonoz hots egiten zidan behar zuen bakoitzean. Biharamunean nik utzi bezalaxe aurkitzen nuen bufetea, inoren presentzia salatuko zuen ezer gabe. Goiz batez, berriz, bulegora heldu eta zerbait antzeman dut bazter batean: gutun-azal zuri bat, pilota bat eginik, paperontzi batetik erori izan balitz bezala. Eskuetan hartu dut eta barnean zerbait baduela nabaritu

dut. Pilota desegin dut eta gutun-azala ireki: kondoi bat, erabilia.

Hara!

Aurkikuntzak ustekabeen hartu ninduen. Politika-
ren ur handietan irudikatu ohi nuen Astoreka, sekretu-
peko galerna ilun ikaragarriekin borrokan, aberriaren
aldeko ahalegin bete eta eskergabeetan, edozein go-
bernuk bere hondakinak desagerrarazteko egin behar
omen dituen lanez arduraturik agian.

Zakarrontzira bota nuen gutun-azala, irriz. Bai,
kontu hari irrigarri iritzi eta ezin irri egiteari utzi. Baina
irrigarriena neu nintzen, halako burutapen ergelak
izateagatik, nire lagun jatorren jatortasunean sines-
teagatik. Merezirik nuen, bai, zalantzarik gabe. Sobe-
ra zaharra nintzen ipuinetan sinesten jarraitzeko. Ipui-
netan, istorioetan, pasadizoetan, elezaharretan eta
antzeko zozokerietan. Zu ere bai, jakina. Nire kontaki-
zunari adi-adi zaude, interesaturik eta harriturik, itxu-
raz. Zure hatsaren hots astuna belarrian, badakit las-
ter erranen didazuna hausnartzen ari zarela.

Begoña, erran duzu. Begoña, hori bertzerik ez. Ez
Begoña gajoa, edo zoritxarreko Begoña. Ez. Noizbait

lagun min izan zenuen haren ponteko izena soil-soilik. Aspaldiko lagunarekin oroitu zara lehenik eta behin. Bortz seme-alabez geroago. Begoña erran duzu eta ez duzu bertze deus gehitu, horretarako beharrik ez balego bezala, hartaz adierazi gogo duzun guztia Begoña izenak adieraziko balu bezala. Haren izenarekin aski da, nonbait, ez dago gehiagoren beharrik, Aipaezinaren izenarekin aski den gisan. Istorio polita duzu kontatu dizudana, ez ukatu, adi egon zara-eta denbora osoan. Ezin ukatuko duzu pozgarria izan dela zuretzat ere. Mendeku gisako zerbait. Hark jasanikoa gu-rearekin alderatzerik ez dagoen arren, bistan da zerbait pairatuko zuela, min pixka bat hartuko zuela.

Edo ez.

Nire zalantzak aztoratu egin zaitu. Azalpen bat eskatu, exijitu didazu, zure begi ezin zabalagoetatik. Adiskide ohiaren nozitzeak zurea arintzen du, eraman-garriago bilakarazten. Lagundurik sentitzen duzu zure burua, nirekin ez bezala. Segundo, minutu, ordu batzuk utzi ditut pasatzen derrigorrezkoa bide zaizun azalpenari lotu aitzin. Oraindik geratzen zaizun bizi kemen poxia eskaini didazu, eta horrekin gozatu nahi izan dut ahalik eta luzeen.

Edo ez, zalantza berritu dizut, nire azalpenaren atari. Ziur aski Begoñak ez daki deus, diotsut, ziur aski Kosmek ez dio deus kontatu. Noski, onartu duzu, Begoñaren ezjakintasun seguruz jabeturik. Alderdi zaharraren sekretu aitorezinenak gordetzen dituenak, nola ez ditu, ba, bere-bereak gordeko? Nire galdera ederki aditu duzu, egin gabe ere. Etsi egin duzu. Inoiz mendekurako gogorik izan baduzu, bitartekorik gabe geratu zara bat-batean. Edo ez. Berriz zalantza. Geuk esango diogu, erratera zoazelarik, ulertu duzu alferrikakoa litzatekeela, Begoñak ez lizukeela deus sinetsiko. Mendeku gogoz asmatu-geuzat joko luke, bere senarraren aurkako eraso politikotzat. Azken finean, muturreko abertzaletzat gaitu: erdi komunista, terrorista, halako azpikeriak eta maltzurkeriak egiteko gai. Horixe bertzerik ez litzateke izanen guk kontaturikoa Begoñarentzat. Eta, gu ongi ezaguturik, hark eza gutzen gaituen gisara, sinesgaitza behar lukeena sinesgarri bazaio, areago iritziko dio sinesgarri bere senarrak kontaturiko bertze zernahiri. Heriotzak biak banatu arte. Politikari baten andrea da Begoña eta ohi-turik egonen da senarraz zikinkeria franko aditzera. Gure, zure ahotik entzunen lituzkeenak baino garra-tzagoak ere bai, seguru.

Mundua da galdu dena.

Deabruak gara haientzat, duela ez askorik ia etxe-koak izan arren. Horixe gara Begoñarentzat. Eta Kosmerentzat? Astorekarentzat ez, harentzat bertze zer-bait gara. Begoñak ez gaitu ikusten, ez gaitu ikusi ere egin nahi. Astorekak, aldiz, begipean gaitu. Begipean nauka. Gaizki ikusten nau. Ni ikusi ordeztu, nire izen bereko bertze bat ikusten du bere eldarnioetan. Ni benetan naizena ezagutzeko arazo larriak ditu nonbait eta bere beldur, arrangura, bekaitz edo mendeku grinaren arabera ikusten nau. Mehatxagarria natzaio batzuetan, eta bertze batzuetan mespretxagarria.

Horiek zuri otu zaizkizu, hipotesiak baino ez dira, zehaztu nahi izan didazu. Onartu dizut zuzenketa. Beti bezala.

Beti maite izan duzu ni zuzentzea. Okerra zuzentzea. Nirekin ezkondu aitzin zinen irakaslea, maistra, andereñoa berragertzen da, eta halakorik ez errateko diostatazu, profilaktiko deitu behar zaiola, ez kondoi zatar hori. Adibidez. Irri egiten zizun semeak ere halakoak entzuten zizkizunetan. Ia erabat desagerturiko espezie bitxi baten hondar alea zinen harentzat, eta erran

egiten zizun eta irri egiten. Ama, faborez, eskatzen zizun, zure erretolika bukagaitzaz aspertutakoan. Nik ere eskatu izan dizut maiz, baina niri jaramonik ez, kalakan segitu duzu, nire eskaerei sorgor. Orain bezala. Horregatik diotsut baietz, baietz eta mila aldiz baietz, amore ematen dudala, beharbada Astorekaz adierazi dudan guztia okerra dela, hipotesi oker eta anker bat baizik ez oro. Nahi duzuna, dena onartuko dizut, dena. Gaizki jokatu dut, bai, sobera bizkor eman dut amore. Horrek eraman zaitu gibelera egitera eta seguru asko nire hipotesiak egokiak direla adieraztera. Harriturik utzi nauzu. Eta berriz ere harritu nauzu, Astorekaren traizioaz segitu duzularik: Bere andreari hori egiten badio...

Burutu gabe utzi duzuna ere aski da zer iradokitzen ari zaren jakiteko. Bere andreari, bere bortz seme-alaben amari. Hori erraten ari eta, bat-batean, solastatzeari utzi diozu. Ez dut uste hagitz isilune luzea izan denik, baina niretzat bai, hagitz luzea. Zuri begiratzeko astirik izan dut bederen, kopeta nola ilundu zaizun ikusteko. Zuk inoiz... erraten hasi zara, baina, berriz ere, eten egin duzu zure jarduna. Aski duzu hitz pare horrekin, honezkero bai. Hitzik gabe ere, aski zenuke, begirada horrekin. Nik inoiz eginen

banizu Astorekak emazteari egin diona, nire zigorra zein izanen litzatekeen adierazi nahi didazu, badaezpada ere. Horretarako premia balego bezala. Ezagutu dudan emakume bakarra zarela ongi baino hobeki ez bazeneki bezala. Bizitza osoko maitasuna izanen da, ezinbertzean, gurea. Elkartu ginenetik ez gara behin ere bereizi, behin ere ez. Elkarrekin egon gara ospitalean eta elizetan, bataioetan eta hileta elizkizunetan, Ezkurdin. Pixkanaka, gorputz bakar bat osatu dugu, harriaren laguntzaz, diamantea baino gogorragoa dena eta nekez bana daitekeena. Maitasuna deitzen ahal zaio horri? Baliteke. Nolanahi ere, deitu batera edo bertzera, inolaz ere hautsi ezin dugun uztarri baten pean gabiltza orain dela mendeak eta, itxura batean behintzat, berdin ibiliko gara aitzinean ere. Zu eta biok. Bi amoros zahar bero, Zuberoako kantu haren gisakoak. Bi amoros zahar bero, bidean tipitapa ibilki, inoiz galduriko semearekin biltzeko betiko. Zure begiradak erran eta ziurtatzen dit.

Beti.

Hitz horrekin dena adierazirik dago. Begiratzen dizut eta hor dago zure begiko iris, kristalino eta erretinan. Beti. Eta zure begi-ninian ere bai. Baita zure es-

klerotiko eta umore urtsu eta beirakaretan ere. Beti. Betiko. Heriotzak banatu arte.

Begoña eta Kosme bezala.

Ez dago denbora baino sakramentu indartsuagorik. Eta gu denboraren harrizko aldarean ezkondu ginen, eta haren harrizko pontean bataiatu genuen semea. Denborak babesten gaitu betiko, larruzko sofa zuri honek babesten gaitu. Denbora zeharreko bidaie-tarako kapsula dugu, izartegian barrena garamatzana. Gure baitako izartegian barna, noski, arras mugaezina dena. Bidaia izugarria, etengabea. Beti.

Maitasuna omen dugu bidaia horretarako erregai. Horrek mugiarazten omen gaitu, horrek bultzatzen. Areago, hegan garamatza, harrizkoak izan beharrean, paperezkoak izanen balira bezala gure gorputzak. Maitasuna diozu, maitasuna diot, eta badirudi irratia entzuten ari naizela (irradi formula horietariko bat), aknez beteriko nerabe bat naizela. Baina zaharra naiz. Zaharrak gara. Bi amoros zahar bero, onenean. Beti diozu eta seguru egon gaitezke, guztiz. Beti diozu eta ez duzu erran behar bertzerik.

Beti. Hor bizi gara, hori da gure herria: izartegi osoa baino anitzez handiagoa, izugarriagoa, gaitzagoa. Harrizko gure herri hau. Harrizko oinarriak ditu betikotasunak. Harria dugu guk ere haragi, batzuetan ahanzten bazaigu ere, ahantzi nahi badugu ere. Bai, gau guztien ama den gau eternal hau hasi aitzinekoak izaten jarraitzen dugula sinetsi nahi dugu batzuetan. Halako xelebrequeriak bururatzen zaizkigu noizean behin, auskalo aspaldiko nartzisismo baten hondarrak diren edota oraindik ezezagun dugunarekiko beldurra. Gure funtsezkoenari, aldiz, ezin sobera luze itsuarena egin, eta hori harria da, harria eta ez bertzerik. Horrek bazten gaitu.

Beharbada aipatu berri dudan nartzisismoa dela eta, oraindik bi garelara (bi gorputz, aske eta bakanak) pentsatzen tematzen gara. Alferrik eta debaldetan, erran gabe doa. Xelebrequeriak xelebrequeria, hori dugu azkena eta, ziur aski, guztietan xelebreena. Honezkerro, irrigarria da gutariko bakoitzarentzat balizko bitasun hori, irrigarria bezain soberazkoa, zarrastelkeria hutsa, krisi garai batez. Denetarik bina? Bina zango eta oin? Bina beso eta esku? Bina begi? Sobera. Aski dugu gorputz bakar batekin. Harrizko gorputz batekin. Gorputz bakar bat aski da gure beldur, zalantza eta

galderak gordetzeko. Zure betiko galdera harrizkoa gordetzeko:

Zergatik egin zion hura?

Nire istorioek denbora pasatzen laguntzen dizute, baina nekez urrun dezakete zure harrizko galdera nigandik. Harrizkoa baino gehiago altzairuzkoa da, pitzatzeko ezinezkoa eta istorio indartsuenek ere deus guti dezakete horren aurka, hain da gotorra. Denbora erosteko baizik ez dute balio, halabeharrez etorriko dena gibeleratzeko, pixka bat bertzerik ez izanagatik. Bertzeen kezka eta pairamenak entzunez, gureak ahortzi ez, baina gure garunaren hondora bidaltzen ditugu, aldi batez bederen. Hondo horretan egon nahi genuke luzaz, hortxe egon, atsedean hartzen dugun bitartean. Zuk ez dakizu atsedean hartzen eta ez duzu sekula jakin. Zer edo zertan aritu behar duzu etenik gabe, zer edo zertan jardun, inoiz jaso ez duzun (eman ez dizudan) erantzuna jaso arte. Horregatik galdetzen didazu behin eta berriz, nekagaitz. Eta horrexegatik ahalegintzen naiz istorio berriak oroitzen. Oroitzen, ez asmatzen, txarra bainaiz horretan. Denboran gibelera egin eta memoria arakatzen dut, beraz, lasaituko zaituen, entretenituko zaituen zerbaiten bila. Zaila da, korapilatsua. Istorio berdinak agertzen zaizkit sal-

buespenik gabe, pertsonaia berberak. Betikoak: Astoreka, haren emaztea, haren maitale niretzat ezezaguna, zengotitatarrak, Bakeroa...

Eta Aipaezina.

Zuk hura aipatu orduko ihesi irten nahi nuke, baina eragotzi egiten didazu zuk. Galdera, betikoa, duzu horretarako tresna eta lanabesa. Hori darabilzu hitzetik hortzera, ihesbide eta zirrikitu guztiak niri ixteko. Stop, diostazu, geldi zaitetz oraintxe bertan. Eta nik, nekaturik eta istorio posible guztiak sobera erabiliak ditudalarik, eta garuna huts eta errea, amore eman eta etsi egiten dut, eta baietz diotsut azkenean, berehala lotuko natzaiola duela mendeak egiten didazun galdera erantzuteari. Bat, bi, hiru erranen dut, eta hor hasiko natzaizu inoiz hainbertze maite izan zenuen neskaren kontuekin goiti eta beheiti. Bai, zuk diozun bezala, sorgin beltz horren kontuak aletuko dizkizut, zure betiko galdera zurrun horretarako erantzun egokia aurkitu arte. Nire ustez egokia, behintzat, gerta daitekeelako zure gustukoa ez izatea eta, orduan, bertze baten bila hasi behar izatea. Zernahi gerta daiteke zu tartean egonik, egia erran. Prest nauzu, hala eta guztiz, zure zergatik horri istorio koherente etasinesgarri baten bitartez erantzuteko. Orain.

Koherentea, sinesgarria, ba al da halakorik? Hitz pare hori erratearekin batean lotsatu naiz. Beharbada istorioak asmatzeko, oroitzeko eta kontatzeko garaia joan zaigu, eta egia erratekoa etorri. Horixe: egia. Egia bertzerik gabe, egia hutsa. Gure gorputz hau bezain egiazkoa den egia osoa. Harria bezala gutaz jabetu den damua bezain egiazkoa eta astuna. Dagoeneko areago ezin hondoratzen ahal gaituen damua.

Hondoaren hondotik ari gara, esperantza, edozein motatakoa, loratzeko ilunegia eta hotza den ospel honetatik, eta denak berdin dio. Orain. Zernahiz solasta gaitzke, beraz, libreki, oinazearen beldur izan gabe. Zergatiak argi daitezke, eta erantzun. Adibidez, zure betiko galderaren zergatia. Eta badugu, hondarrean, Aipaezinaz ere libreki mintzatzeko aukera. Aipaezinaz edo, zuzen erranik, Leirez. Garaia baita gauzak diren bezalaxe izendatzeko, eufemismo eta hitz erdiak alboratzeko.

Bai, diostazu. Baietz, nik adierazirik bezala hitz egiteko prest zaudela, gure semearen neska izanikoaren izen osoa, benetakoa, aditzeak oraindik min ematen dizula ezagun duzun arren. Absurdoa da, gure gor-

putzetan ez bailuke minaren arrastorik egon behar. Baina hala da, mina hor dago oraindik. Harrigarria izaten ari den gure oinazea. Hilzori luze hau.

Zergatik egin zion hura?

Leirek ez zion gure semeari deus txarrik egin. Maite zuen.

Maite izan balu, ez zukeen inoiz utziko.

Utzi zuen, bai, baina hilabete luzeetan sufritu eta gero.

Nik ez zaitut utzi...

Egia, zuk ez nauzu inoiz utzi, nik inoiz utzi ez zaitudan gisa berean. Baina gu zaharrak gara (ia ez gara), eta hura gaztea zen. Bizitza osoa zuen bere aitzinean eta bizi egin nahi zuen, bizi egin behar zuen, bertze zernahiren gaintetik. Ezin zitzaion eskatu, bizi zedila bizi nahi ez zuen batekin. Eta gauzak argi, Enekok ez zuen bizi nahi. Eramangaitza zitzaion bizitza, sobera latza. Sinestea neke bazaizu ere, Leirek maite zuen, salbatu nahi zuen, baina, zorigaitzez, kontrakoa nahi gure semeak. Egin zuena ez egitekotan, zer egin zezakeen? Erran iezadazu: zer?

Ahoa irekitzen duzu eta mingaina astintzen eta, hala ere, hitzik ez duzu egiten. Borbor batean irteten da hotsa zure ahotik, zapart egitera joanen bazina be-

zala. Nigandik bereizi nahi duzu. Baina denborak, harriak eragozten dizu. Nirekin egotera kondenaturik zaude, Leire gure semearekin egotera kondenaturik egon zedin nahi zenuen moduan. Hura, aitzitik, gaztea da eta bere burua askatu ahal izan zuen, guk ez bezala. Hori al da barkatu ezin diozuna, gaztetasuna?

Ez.

Sinetsi egiten dizut. Menturaz, Enekok Leire zu bertze maitatu izana da barkatu ezin diozuna. Menturaz Leireren jeloskor zara. Auskalo. Baina kontua da, ez diozula erruki mendreenik. Ezta niri ere. Traizioa egin dizudalakoan zaude, eta horixe aurpegiratzen didazu zure mututasunetik, bi ilargi bete diren zure begi garden horietatik. Bizkarra erakusten didazunetan ere, nigan sentitzen ditut, bi orratz neure larru azalean. Haien ziztada etengabea eta mingarria da eta, batzuetan, garuna ere zulatu behar didala iruditzen zait. Budua egiteko baizik balio ez duen trapuzko panpina naizela sentiarazten didazu, zure orratzek larrua zeharkatzen didaten bakoitzean. Jo, astindu, zafratu, mankatu ahal den panpina itsu bat naiz zuretzat, labana batez zabaldu eta bere lastozko bihotza erauzi ahal zaion panpina trakets bat. Alkohol merkez betetzen

duzu ahoa eta aurpegira botatzen didazu, molde horretan ni suntsitzeko zeremoniari hasiera emanaz.

Zeremonia hasi da, beraz, eta aurpegia busti, erre didazu suzko edari horrekin. Letaniarekin jarrai deza-kezu. Traidore halakoa, traidore zikina, traidore beltza, eta abar. Bertze mantra bat. Mantrak zer dioen gutienekoa da. Hasieran garrantzitsuak diruditen hitzak garrantzi guztia galduz joanen dira, mantra kantatu ahala. Errepikapenaren errepikapenez, bertze zerbait bilakatuko dira. Berdin dio hasierako hitz horiek jainkoari eginiko laudorioak edo bertze zerbait diren. Nire aurkako irainak ere izan daitezke, edo galderak, zuk mila milioi aldiz errepikaturikoak.

Marka guztiak hautsi dituzu. Guinness-en liburu ospetsu horretan egon behar zenuke. Leire traidoretzat jo eta gero, ni jo nauzu, zure kontra jardun dudalakoan. Bada garaia zentzugabekeria baztertzeke eta argiki mintzatzeko. Leirez ere bai.

Maiz erran izan dizudan bezala, Leirek gure semea maite zuen, ahal izan zuen arte bai, seguru. Enekok maite zezala utzi zion arte. Baita ondoren, ordurako maitemindurik ez egonagatik ere. Berak aitortu zidan,

elkartu ginen batean. Ez, ez nizun deus erran. Mina saihestearren isildu nizun, haren aitorenak eragiten ahal zizun ezinegona saihestearren. Ziur aski gaizki jokatu nuen. Ziur aski kontatu behar nizun, eta Leireren sufrimendua ikusarazi.

Ezer ezin da ama baten sufrimenduarekin konparatu.

Bai, zuk diozun bezala izanen da noski, nik aita baten sufrimenduz baizik ezin baitut solastatu. Leireren oinazea, ni nauzu lekuko, latza izan zen, barrenbarrenekoa. Eneko utzi eta gero ere iraun zuena.

Ez dut uste.

Nik erranikoak gezurra behar du, zure irudiko. Enekorekin bueltatuko zen bestela, diostazu, hainbeste maite bazuen, ez zuen bakarrik utziko, txakur bat legez. Inongo zakurrek ez luke gure semeak eginikoa eginen. Zaunka eginen luke, ulu eginen luke, hozka eginen luke, baina egundo ez luke bere burua hilko. Hori ez, ezta eroturiko zakur batek ere.

Eta orduan zu zara zakur bilakatzen dena eta niri zaunka hasi eta hozka ere egin nahi didana. Letagin zorrotzak erakusten dizkidazu, mehatxu gisa. Isil zaitetz, ohartarazten didazu, lepoko zaina zulatuko dizut bestela. Labanak diruditen letaginak dauzkazu, ausiki

bakar batez nornahi hiltzeko modukoak. Baina ez naute izutzen. Nekez hilko duzu dagoeneko hilik dagoena. Nola hil dezake hildako batek bertze hildako bat? Berant zabilta. Leire zure atzaparretatik urrunegi duzu, eta ni aldamenean izateak ere ez dizu mesede handirik egingen. Ni akabatzeko zure burua ere akabatu beharko zenuke, gainera, aspalditxotik bat eta bakarra baikara, bereizezinak. Menturaz horixe da egin asmo duzuna. Leioa zabaldu nahi duzu eta hor beheiti joan, hegan egin lur gogorarekin bat egin arte. Harria harriaren kontra. Ederra litzateke. Ederra eta ezi-nezkoa.

Zergatik?

Haatik, erantzunen nizuke gustura. Baina hori erran ordez, nire iritzia azaltzeari lotu natzaio taigabe, azalpenek zerbaitetarako balioko balute bezala. Orain. Baina nola mugitu harrizko gorputz bat? Nola heldu leioraino eta hara igo? Ez, ez da posible. Eta biok badakigu. Geure burua leihotik beheiti bota beharrean, sofa honetatik beheiti botako dugu, nonbaitetik botatzekotan.

Mundua da galdu dena.

Bai, galdu egin da mundua, galdu egin zaigu semea, eta larruzko sofa zuri honetan ari gara gu geu galtzen.

Galtzen, ttipitzen, kizkurtzen, deuseztatzen ari gara, izar hauts bilakatzen, harri hondar xehea. Beti. Ulertzen zaitut. Hori uste dut bederen. Zure, gure pena arinduko duen zerbaiten bila aritzen zara, eta errudun bat aurkitzeak mesede egingen dizulakoan zaude. Oker zaude. Oker gaude. Beti. Eta errudun bat aurkitzekotan, hobeki duzu errudun egokia, benetakoia, nagusia aurkitzea. Ez duzu uste? Leirek ez du ezeren errurik, sinets egidazu. Eneko zergatik utzi zuen dakizularik (beti jakin izan duzu, nire aburuz), galdera aldatu behar zenuke.

Zerk, nork eraman zuen gure semea eromenera eta, ondorioz, heriotzara?

Horra zer galdetu behar zeniokeen zeure buruari, alferrik eta zentzurik gabe amorratu orde. Galdera horrek erantzun erraza du. Errudun nagusien izenak ezagutzen ditugu. Alde-aldera badakigu nork, noiz, non eta zer egin zuen. Zergatia ez, baina. Zergatia asmatu behar dugu. Nire susmoak azaldu dizkizut eta

zuk zureak niri. Bat gatoz zenbait hipotesirekin, batez ere Astorekaren ardurari dagokionez. Antzezpen gautar negargarri honen bigarren mailako pertsonaien ardurak zehaztean hasten dira gure ezadostasunak. Gure arteko xextrak eta kalapitak. Tamalez, Leire erratea aski da. Istantean, leherketa dator.

Beti.

Leire, sorgin beltza, puta koipezto hori. Stop. Andretxo maltzur, Marizikin hori. Stop. Uko eginen diot gehiago aditzeari. Matxinatu, jarki egingo natzaio zure errepikapen setatsu eramanezinari. Stop eta mila bider stop. Erran Astoreka, erran Begoña, erran ertzainak edo Bakeroa aipatu, nahi duzuna adierazi. Baina, faborez, ez Leire ahotan hartu. Zure mututasunak ez dezala haren izena zabartu, ez dezala lohitu. Ez dezala ukitu.

Zigarreta bat piztu dut.

Zigarreta bat piztu behar izan dut nire asmoen sendoa agerian uzteko. Nire harrizko asmoak. Haserre egin didazu, noski, nik espero bezala. Muzin egin diot zure muzinari, ordea, eta kezko bandera bati eragin. Bandera gorria, arriskuaren seinale. Hor paratu nahi izan dut, hala-moduzko muga, banaezina banatzea posiblea balitz bezala oraindik. Matxinadarako bande-

ra duzu aldi berean, altxatzeko deia, kapitalismoaren harriak dena bereganatu eta irentsi baino lehen.

Hondamendia.

Segundo, minutu, orduetan barrena hondamendiaren jendakia den halako egonezin azken batean absurdoa datorkizu. Bizkorki hedatzen ari zaizu gorputz osoan eta zure soinaren milimetro bakoitzaren jabe egitera doa.

Zelan dakizu hori?

Aise. Zure gorputza neurea ere bada aspaldi, zuk sentitzen duzuna sentitzen ahal dut nik halaber. Egia, diozu. Egia. Hori diozu eta, horrekin batean, etsi egiten duzula ere adierazten ari zara. Behin betiko etsi. Sekulorun sekulotan. Edozein ahaleginen irrigarritasuna adierazten ari zara. Oharkabean, bistan da. Dena dakizu eta deus ez duzu jakin nahi. Hor zaude. Hor gaude. Oraintsu arte eternala iruditu zaigun aldi honen bukaera, berriki arte hipotesi xelebrea baizik izan ez dena guretzat, hurbila zaigu, beldurgarriki hurbila. Mendeak, urteak, hilabeteak, asteak, egunak, orduak, minutuak, segundoak, segundoaren hamarrenak, ehunenak, milarenak, horiek denak eta ttipiagok ere ahitzen ari dira, ahitzen ari zaizkigu, banan-banan. Gero eta bizkorrago, gero eta errukigabeago.

Lar astiro, hala ere, diostazu.

Baietz nik, zer edo zer errate aldera.

Deus ez errate aldera solastatzen gara. Ohituraz solastatzen gara, horixe egin dugulako mendetan. Erran beharrekoa aspaldi errana dugu eta, solasean jarraitzen badugu, inertziaz, bertzerik egin ezinean jarraitzen dugu. Ahoskatzen ez ditugun hitzek osaturiko kateak lotzen gaitu, harriak bertze. Horien gatibuak gara. Insomnioaz ahanzteko behar ditugu agian. Lo kantatzat hartu ditugu eta noizbait, laster, lokartuko garela amesten ahal dugu. Solas eta molas ari garelarik, horditurik bezala aritzen gara, mundutik aparte bezala. Hitzak elur malutak dira, etengabe elkarren gainean erori eta erori. Gure gainean. Elkarri jaurtikitzen dizkiogu, elkarri egiten diogu harrika.

Mundutik aparte bezala.

Bertze planeta, galaxia, unibertso batetik, hagitz urrundik. Zenbat eta hurbilago, hainbat eta urrunago gu. Kontraesankorra, erranen luke Roderak; paradoxa ederra, Salaberriak. Ni isildu eginen nintzateke, isiltzera noa, ahal orduko. Mihi ero honi atxiki, eutsi ahal orduko, ez berehala, beraz. Lautada bukagaitz batean

zehir lauhazka doan zaldi itsu bat da, menperatzeko, bezatzeko zaila. Irrintzi egiten duen zaldi bat:

Eneko!

Horra gure harrizko mihi bakarraren irrintzia, gure seme bakarrari eginiko deiadar bakar eta azkenik gabea. Gure gorputzaren gainerako hotsak bortz axola, horrek baino ez digu ardura.

Eneko.

Hitz, izen bakar horretara mugatu dugu unibertso osoa. Gurea. Horrekin aski dugu. Ez dugu bertzerik behar, dena baita hor, bortz letra horietan, hiru silaba horietan. Bada haren sorreraren une erogarria, bada ikastolara eraman genuen estreinako eguna, Lezama-
ra eraman genuenekoa, baita oraindik gure malenkonia hauspotzen duten bertze egun zoriontsu batzuen oroitzapen ezin argiagoa ere. Horiek denak eta hamai-
ka gehiago ditugu une oro gogoan, bizi-bizi, duela se-
gundo guti batzuk lehenagoko kontuak balira bezala. Behin eta berriz begiratzen ditugun argazki kolore-
tsuak dira, aitzitik, ederrak baina deus guti gordetzen dutenak paperaren mugetatik at. Zorigaitzez argazki guztiak ez izan kolorezkoak, ezta oroitzapen guztiak atseginak ere. Zakarrak ere badira, baditugu, ugari. Gaua betiko luzatu eta insomnioaren morroi bihurtu

ginenetik. Insomnioaren morroi bihurtu ginen. Eta damuaren otsein, zerbitzari, jopu, erabateko menpeko. Aspaldi.

Orain, orain erratea lehen erratea da, nahitaez. Beti. Gero erratea ere bai. Iragana dugu izan dezakegun etorkizun bakarra. Bihar erratea, jainkoa aipatzea bezalakoa da, zerua aipatzea bezalakoa, asmo polit bat ozta-ozta. Polita bezain hutsala. Arras alferriakoa. Etorkizun, ikuskizun duguna hainbat bider ikusirik dugu jadanik. Semeak erakutsi digu, hura ibili baitzen, aspaldi, gu ibiltzen ari garen bide berberean. Ezin hobeki ezagutzen du: bihurgune guztiak, bazter eta zoko guztiak. Enekoren gibeletik goaz gu, haren azalpenei adi. Aitzindari dugu eta urrats bakoitzean aitortzen diogu. Bidearen albo banatako arriskuez ohartarazten gaitu. Bandera gorria astintzen du, eta hori egiten duelarik, badakigu kontuz ibili behar dugula, bide ertzean eta sasietan norbait dugula atezuan, gure gainera jauzi egiteko gertu. Munstro bat edo. Kapitalismoa edo. Gu geu.

Inork ez gaitu salbatuko.

Enekok erakutsi zigun hori ere. Inork ez digu errukirik izanen. Batez ere, denborak. Batez ere, harriak.

Ez dago horretarako astirik. Denborarik gabeko mundu batera goaz.

Mundua da benetan galdu dena.

Lo egin gura dut, diostazu. Lo.

Beti.

LO egin nahi dugu. Horrekin egiten dugu amets. Lorik gabeko ezin konta ahalako gauen pisua ninietan pilaturik, begiak oharkabean itxi, betiko itxi. Nekea ere astun gure hezurretan, goitik beheiti kaltzifikatu gaituen harria nola. Zangoa mugitu duzu bat-batean, elektrikak joa irudiz, bortxaz. Min pixka bat egin didazu, baina ez dizut deus erran, munduari jo nahi izan diozun hondar ostikoa izan delakoan. Hondar seinalea, hondar mezua:

Utzi bakean.

Mundua, aldiz, gorra da, denbora den antzerakoa. Gelditzeko eta gibelera egiteko erran ohi diogu, baina hark jaramonik egin ez eta aitzina segitu, ezaxolati, zonbi baten gisan. Ez du gure eskaera aintzat hartu. Guri erreparatu gabe iragan zaigu albotik, hor egonen ez bagina bezala. Eta menturaz, dagoeneko ez gaude, ez gara, hasi gara izateari ere uzten. Harria, azal eta

mami dugun harri orain arte gotor hau hasi da pixkanaka-pixkanaka pitzatzen, desegiten, xehatzen, hondar bilakatzen. Hondar bilakatzen lurrarekin arras bat egin arte. Beharbada zure begiak baizik ez dira gugan geratzen, telebistaren pantaila itzaliari atxikirik beti. Horiei esker jasotzen dugu kanpotik jaso ohi dugun munduaren berri apurra: itzalen dantza urduri etengabea. Baina sobera berant da, sobera eramangaitza hainbertze egun berunezkoren zama. Azken ahalegina egiteko garaia da. Sofa honen abarotik irten behar dugu. Hemendik jaiki eta, kosta ahala kosta, leihoraino heldu hura irekitzeko, egongela honen giro ustela egurasteko, etxe osoaz jabetzeko. Elurrak dena estali, garbitu eta eder dezan. Gu estali, garbitu eta, ahal den heinean, eder gaitzan. Lurrerako presta gaitzan, aspalditxotik zain dugun semearekin bat egiteko. Hirurok, biluzik, elkarrekin lo egiteko lur hotzaren azpian.

Lo, betiko.

Afaria

Anboto eta haren inguruko mendiak urdin ageri dira ilargiaren argitan 2012. urteko azken gauean. Begira geratu zaie Juanjo Roderera, autotik irtendakoan. Zilarrezkoak dirudite. Plastikozko zorro batzuk atera ditu ondoren Opel Corsa zaharreko atzealdetik, eta etxerantz egin du, ia balantzaka, esku banatan daramatzan zorro bete eta astunen eraginez. Kontuz zapalduz doa, putzuak saihesten ahaleginduz, mendiak eta Izurtzarako bideko argiak bizkarrean. Metro gutxi batzuk izan dira, baina arnasestuka iritsi da etxeko atarira, eta, txirrina jotzeko zorroak lurrean utzi behar izan dituenean, sakon hartu du arnasa behin, bi, hiru bider, botoiari sakatu aurretik.

Berandu natorrek, bazakiat.

Berdin zio, lasaitu nahi izan du Felix Goñik. Ez diagu presarik.

Goñik zorroetako batzuk jaso ditu eta atea ixteko eskatu dio Roderari, gaueko hotza sar ez dadin. Mahuka luzeko elastiko zuri bat darama Goñik mandilaren azpian, eta elastiko hutsean (beltza, Euskal presoak

Euskal Herrira letra zurietan dioena) geratu da Roderera ere, hain da-eta bertako giroa sargoritsua. Sukaldera joan dira gero, eta mahai zabalaren gainean hasi dira zorroak husten: pateak, gaztak, bizpahiru urdaiazpiko mota eta beste zenbait urdeki, ostrak eta mariskoak. Ondoren, botila ardo ezberdinak, kristalezko poteak, latak eta baita paper koloretsuetan bildutako gauza gehiago ere.

Burutik egin al zaik?, harritu da Goñi.

Roderak barre egin du. Orena ez duk oraindik ikusi, jakinarazi dio lagunari: Angulak!

Bai, burutik egin zaik. Ez duk dudarik.

Ez diat uste, baina inoiz burutik egitekotan, hobe diagu lehenbailehen.

Bai, sobera berant izan aitzin. Baina begira, hozkailua zabaldu du Goñik: Beterik zagok. Zer egin behar diat honekin guztiarekin?

Bihar jango duk.

Hor dagoenarekin hurrengo bi hilabeteetarako ere badiat.

Gutxi jaten duk orduan.

Gero eta gutiago.

Ba gaur jan egin beharko duk. Barkaezina lukek gutizia hauek alferrikaltzen uztea. Begira nekora eder hauek, begira.

Itxura aparta ditek.

Horixe.

Eta garestia ere bai. Zer egin duk, banku bat lapurtu ala?

Lapurrak bankuak dituk, ez ni.

Baina, oker ez banaiz, aski larri ibili haiz diruz hondar aldian.

Gauzak aldatu egiten dituk.

Hain guti...

Niretzat behintzat aldatu dituk.

Hara! Kontatu beharko didak.

Kontatuko diat, bai, baina gero. Afariaz arduratu behar diagu aurrena.

Zortziak dituk, erran du Goñik. Badiagu astia. Berotzera paratuko diat ura. Eltze bat hartu eta bete arte jarri du txorrotapean, eta sutan segidan.

Emadak hau zabaltzeko zer edo zer, eskatu dio Roderak, botila estu luze bat erakutsiz.

Mahaiko tiraderan begiratzeko erran dio Goñik.

Moselako ardo zuria duk. Ea zer irizten dioan.

Roderak eskainitako kopatik edan du Goñik.

Bitxia duk, aski gozoa.

Ez zaik gustatzen...

Bai, ongi duk, baina aukeran txakolina edanen nikek gusturago.

Ederto, dio Roderak, eta Txomin Etxaniz botila bat atera du zorro batetik.

Dotore!

Edaten ari direna baztertu eta beste pare bat kopa bete dute txakolinez. Topa egin dute: Presoen alde!

Harriturik naukak, Juanjo. Hau ez al duk sobera kapitalista hiretzat?

Afaria diok? Bai, zeharo kapitalista duk, baina hala behar dik.

Kontxo!

Oraingo hau bai, behinik behin.

Berezia behar dik, benetan, hik hori onartzeko.

Hala duk. Azken afaria.

Bihar ere afalduko duk. Ez kezkatu.

Bai, bihar ere bai, baina ez hirekin.

Elkarrekin afalduko dugun hondarreko aldia izanen duk gaurko hau?

Hori duk.

Gutaz nazkatu eta sorterrira itzultzea erabaki duk?

Bai eta ez.

Zer erran nahi duk?

Baliteke euskaldunez higuinduta egotea (neure buruaz ere halaxe nagok), baina sorterrira itzultzea ezinezkoa izango lukek niretzat. Inork ez nindikek han ezagutuko. Honezkero ez. Eta, gainera, ezagutuko barenindute, okerrago! Terrorista deitu eta harrika hartuko nindiketek!

Bai zera...

Seguru.

Beraz, azken terroristaren azken afaria izanen duk gurea?

Zelanbait.

Ederki.

Topa dagigun horren alde.

Kopetan geratzen zaien txakolin apurra edan eta berriro txinpartaka bete dituzte, topa egin baino lehen.

Azken terroristak gaituk, Felix, azken mohikanoak.

Gu biok?

Bai.

Eta bertzeak?

Zein?

Badakik, bertzeak: Zengo eta abar.

Ez nauk seguru, baina balitekek horiek ere demokrata bihurtu izana. Jende gehiena harrapatzen ari den izurrite moduko bat duk. Izurritea edo mirari hutsa, auskalo. Lehen denak iraultzaile eta orain denak demokrata.

Ni ez nauk iraultzailea sekulan izan.

Egia.

Beti demokrata.

Hirea kasik txantxa bat izan duk. Demokrata zaharra izan eta terrorista berri bilakatu. Marka da gero!

Haiek behartu naitek aldatzera. Nik hagitz kontent jarraituko nikean demokrata izaten.

Denok aldatu gaituk.

Hi ez. Hik komunista izaten segitzen duk, ezta?

Ni zuek baino lehenago behartu ninditean aldatzera, gutxienez berrogei urte lehenago.

Horrenbertze?

Bai. Baina nire aldaketak ez dik meriturik. Faxista baten semea izateak asko laguntzen dik faxismoaren benetako izaeraz jabetzen. Etxetik batere mugitu gabe ikasten duk dena. Ez zagok eskola hoberik. Nes-kameak nola erabiltzen zituzten ikustea nahikoa.

Zer erraten ari haiz!

Aita falangista genian, Errusian ibilitakoa. Beldur-
garria zuan, eta ez pentsa neskameentzat bakarrik.
Ama ere izututa zian, anai-arrebok legez. Zuen aita,
ordea, jeltzalea zuan, oker ez banaiz. Hori zortea.

Tira, jeltzalea... gure aita pobrea zuan, batez ere.
Jende gehiena legez.

Ez Deustoko Unibertsitatean.

Han denok aberaskumeak.

Salbuespenak salbuespen.

Noski, Felix. Hik han txarto pasatuko huen.

Ez. Aski ongi pasatu nian. Anitz ikasi nian.

Ikaslerik onena hintzen. Inbidia ziaten.

Hoberenatariko bat bai, hoberena ez diat uste. No-
lanahi dela, anitz ikasi nuela erratean, ez nauk ikaske-
tez ari. Bertze kontuez ari nauk, bizitzaz.

Han inor gutxik zekian ezer bizitzaz.

Baina nik baino gehiago bai, zalantzarik gabe. Se-
minariotik irten berria ninduan!

Seminario batetik beste batera joan hintzen,
beraz.

Argi zagok ez haizela seminario batean sekula
egon.

Ez. Jesuitekin ikasi nian txikitatik. Nuestra Señora del Recuerdon, Madrilgo ikastetxean, Jose Bonok eta horren tankerako beste askok legez.

Eta handik zuzenean Deustora.

Bai. Eta ez ninduan bakarra izan.

Espainiako elitearen erdia Deustoko Unibertsitate-tik iragana duk.

Gure ikaskideei begiratzea baino ez daukak. Politikari, bankari eta negozio-gizon garrantzi usteko horiei guztiei.

Lapur kuadrilla galanta.

Horixe. Konparatu jateko lapurtu behar izan duen edonorekin.

Ez huen lapurtuko gaur ekarri duan guztia!

Barre egin dute biek, sukaldeko mahaiaren gaineko gauzei begira.

Ez, erantzun dio Roderak, nire klasekook lapurreta handietarako baino ez diagu balio.

Zein klase?

Burgesak.

Hik aspaldi utzi hion burgesa izateari.

Nahi bai, baina uste baino zailagoa duk.

Zaila? Sosik gabe geraturik ere?

Sakelak huts-hutsik izaten ahal dituk, baina lan itzela duk klase madarikatu horren pentsaera ziztrina burutik erauztea, benetan zaila.

Horregatik ekarri dituk gutizia hauek, burges baten gisan pentsatzeari utzi ezin dioalako.

Balitekek, onartu dio Roderak.

Zoragarria. Ederki afaldu behar diagu, hire burgeskeriari esker.

Baita hiri esker ere, hozkailu aldera keinu egin du Roderak. Pentsakor geratu da Goñi.

Zer darabilkik buruan?

Dudatan nagok. Mariskorako saltsa arrosa egin edo ez. Zer iruditzen?

Ederto. Hemen duk whiskia.

Gorde ezak Cardhu hori afalondorako. Sobera ona duk saltsa batean erabiltzeko.

Gaur ezer ez duk sobera ona guretzat.

Arrautzak katilu batean irabiatzeari lotu zaio Goñi. Bitartean Roderak pare bat tipula ipini du mahai gainean. Lanean dihardute biek, isilik, hurrupa txikietan txakolina edateko ez bada. Goñik saltsa bukatu duenean, Roderak hatz erakuslea sartu du katiluan eta ahora eraman ondoren: Ederra. Berriz saiatu da hatza

saltsan sartzen, baina Goñik eragotzi egin dio: Uztak hori gerorako!

Trankil, Felix, dena jango diat. Gaur inoiz baino go-setuago nagok.

Ez haiz kapitalismoa baino goseago izanen.

Heriotza baino goseago!

Eskuartean daukanari bat-batean utzita, lagunari begira geratu zaio Goñi. Gauza bera egin du Roderak, laguna so duela oharturik.

Barkatu.

Ez zagok deus barkatzeko. Hiltzea sortzea bezain naturala duk, munduko gauzarik arruntena.

Baina Maite... eta Eneko...

Gu baino hobeki egonen dituk.

Non, zeruan?

Kar, kar, kar egin du Goñik, garratz.

Serio jarri da Roderak ere: Hik ez duk zeruetan eta halakoetan sinesten, ezta?

Ez, nik aspalditik ez, baina Maitek bai, hark sinesten zian.

Sinestea librea duk. Edozer sinets daitekek, kontu sinesgaitzenak ere bai.

Hala ere, ez al duk behin ere pentsatu egia izan litekeela hainbertze jendek sinesten duena?

Kontrakoa uste izan diat beti.

Nola ba kontrakoa?

Jende gehienak uste duena gezurra izaten dela, alegia.

Ez beti.

Marxek ezin hobeto esan zuen: gizartean klase nagusiarena da ideologia nagusia.

Marx zaharra! Urteak dituk haren aipamenik aditu ez dudala. Hi izanen haiz oraindik aipatzen duen bakarra.

Berdin zaidak. Urtetan entzun eta irakurri behar izan diat Marxek adierazitakoa okerra zela, bere azterketek huts egin zutela. Orain krisia etorri duk eta hara non ikusi den, bat-batean, haren igarkizun gehienak zuzenak zirela! Kapitalismoaren krisiak gero eta larriagoak izateaz gain, gero eta sarriagoak dituk, hark idatziz bezala.

Denean ez zian ba asmatuko.

Ez, noski, baina kontu askotan bai. Adibidez, hark esan zian, zapalduak gero eta gehiago izango zirela eta zapaltzaileak gero eta gutxiago. Horretan behintzat asmatu zuela aitortu beharko zaiok.

Bistan duk gero eta pobre gehiago dagoela. Karri-kara irtetea baizik ez zagok.

Okerrena duk, ez duela ematen inori ardura zaiotarik. Zerbait oso txarto egin diagu.

Oker handiak egin ditiagu denok.

Hik ere bai?

Nire okerrak gaitzak izan dituk, sekulakoak, batez ere semearekin eginikoak.

Semearekin hik eta alabekin neuk. Ederrak gaudek!

Hire alabak bizirik dituk, bederen.

Haiek bai. Ni nauk haientzat eta haien amarentzat hilda dagoena. Hamaika bider hilda.

Trankil, Juanjo, noizbait ohartuko dituk zenbat maite dituan.

Hik uste? Ez zakiat. Hi bezain seguru egon nahi nitek nik ere, baina duten ama edukita... ez zakiat.

Hari ere damutuko zaiok noizbait hiri eraginiko mina.

Bai zera. Zerbaitez damutzeko, txarto egindakoaz jakitun izan beharra zagok. Eta ez diat uste Itziar...

Nola ez duk ba jakitun izanen.

Hark dena ondo egin duela uste dik. Neu naizela errudun bakarra. Eta hortaz, zigorra merezi duen bakarra.

Pasatuko zaiok. Goiz edo berant pasatuko zaiok.

Ikusiko diagu.

Beharbada hik uste baino lehenago.

Ez duk Itziar ezagutzen.

Hala duk, ikustez ere ez diat ezagutzen, baina ez duk bertzeok baino anitzez ezberdinagoa izanen.

Ez, ez. Ez duk ezagutzen.

Alabak maiteko ditik.

Isilik dago Roderak.

Haien ama duk!, esan dio Goñik.

Paretako ordulariari kirik egin dio Roderak.

Egongelan afalduko diagu, erabaki du Goñik, urdekiak eta kolorezko paperetan bildutako gainerako zizka-mizkak plater txiki batzuetan banatzeari lotzearekin batera.

Zartagintxo bat utzi behar didak anguletarako.

Sutegi azpiko tiraderan zaudek. Hik aukeratu ego-kiena. Baina utzi hori momentuz, esan dio Roderari, eta goazen afaltzen hastera.

Roderak men egin dio eta sua itzali du. Goñik mandila erantzi du afaltzera esertzeko. Roderak ardo beltza isuri du kopa banatan, txakolina baztertuta.

Nahi dutena erranen dute, baina Errioxako ardoa bezalakorik ez zagok.

Bat etorri da Rodera lagunarekin: Remellurikoa ekarri diat. Ez duk edozein ardo.

Hi ere ez haiz edonor.

Iribarre txikia egin du Roderak, galdetu aurretik: Hik uste?

Berezia haiz, apartekoa, bakana. Egia erran, ez diat hi bezalakorik bakar bat ere ezagutu.

Gehiegikerietan ari haiz, Felix; eta harritzen naik, hi hain gizon zentzuduna izanda.

Ez. Benetan ari natzaik.

Orduan azaldu beharko didak zertan den nire be-rezitasuna. Ez ote da bitxikeria simple bat, akaso?

Azalduko diat, baina angulak jaten hasten gare-nean. Konforme?

Sukaldera joan da Rodera, eta hasi da txitxardinak oliotan prestatzen. Salan geratu da Goñi, plater hu-tsak jasotzen. Mahaian traba egiten duen guztia azpil batera bildu, sukaldera eraman eta harrian pilatuta utzi du. Txitxardinak zerbitzatzeko buztinezko kazola-txoak bilatu ditu baxerategian. Ez ditu han aurkitu eta bila jarraitu behar izan du gainerako ontzitegi eta tira-deretan.

Barkatu, baina gauza hauek Maiteren kontuak zi-tuan, eta hura gabe galdurik nabilek.

Ilundu egin da Goñi, hitz horiek esatean. Laster ohartu da Roderá. Besotik hartu du laguna eta ia berrira mintzatu zaio: Goazen, Felix, hoztuko dituk bestela. Eta gainera, azalpen bat zor didak...

Txitxardinak jan eta Remelluri bigarren botila ireki ostean lotu zaio Goñi bere zorra kitatzeari: Berezia izateaz gain apala ere bahaiz, eta horregatik ez duk hire berezitasunaz laudoriorik aditu nahi.

Ez, ez nauk ez apala ez berezia. Kontu horiek hire zirtzilkeriak baino ez dituk.

Zenbat madrildar, zenbat espainol ezagutzen duk euskaldundu direnak? Anitz? Ez diat uste.

Pare bat.

Eta euskaldundu eta bere klaseari uko egin diotenak, zenbat?

Berdin zioz zenbat diren.

Zareten.

Ondo. Zenbat *garen*, nahi baduk. Horrek ez dik garrantzirik.

Ezerk ez dik garrantzirik.

Ez. Gauza batzuek baditek, eta handia gainera.

Adibidez?

Familiak. Seme-alabek.

Ados. Horrek badik garrantzia, bai, handia.

Niretzat, behintzat, handiena.

Hutsik duen edalontzia bete dio Goñik: Oi hire alaba horiek, zenbat buruhauste!

Buruhausteak haien amak eman izan zizkidak.

Pepero horrekin ezkontzea ere!

Nire errua izango zuan, seguru.

Ez diat uste. Hik jende guztia hartzen duk ongi, maite dituanak batik bat, bidezkoa denez.

Ez nauk santu bat eta, tamalez, bazakiat jendea txarto erabiltzen ere.

Baina ezin diat sinetsi Itziar edo alabak gaizki erabiltzeko gauza izan haizenik. Hori nekez sartuko zaidak buruan.

Itxuraz, oker hago, horixe aurpegiratu izan baitit Itziarrek behin baino gehiagotan.

Bai zera.

Zure familiaz baino gehiago arduratzen zara zure langileez, esaten zidaan.

Hala al zen?

Ez zakiat. Gehienetan ez. Ez diat uste. Dena den, badaitekek batzuetan, oharkabeen, hark esan bezala jokatu izana.

Duda egiten diat, Juanjo. Neuri ere antzekoak leporatzen zizkidan Maitek, sobera ordu pasatzen nituela bufetean.

Maite ez zuan karka batekin ezkondu.

Ez, ergel batekin ezkondu zuan.

Ergela hi? Deustoko ikasle finenetakoa? Hi ergela bahaiz, zer izango nauk ni.

Erran diat, Juanjo: berezia, apartekoa, bakana.

Hain berezia, ze alaba biek ni ikusteari uko egin dioten. Eramanezina omen nauk, gogaikarria. Jode, aita, que chapas eres. Halaxe esaten zidatek. Erdaraz.

Aita erraten ditek bederen, ez *papá*.

Jakin nahi nitek nola esaten dioten Itziarren senarrari.

Ez *papá*, ezta aita ere. Bere izenez deituko ziotek ziurrenik.

Felix, ez diat inoiz esan, baina haiengatik ikasi nian euskara, ikastolan hasi zirenean, haiekin berba egitearren; eta begira orain, erdaraz egiten ditek denbora guztian.

Bon, hik egin beharrekoa egin huen eta hori aski duk.

Aski ez duk inoiz nahikoa.

Euskaldun gehienek baino anitzez gehiago egin duk hik euskararen alde.

Hori pozbide eskasa dela uste diat.

Halakoak izaten dituk pozbideak: eskasak eta motzak. Motzak batik bat.

Carpe diem, beraz, altxatu du bere kopa Roderak. Carpe diem! Gauza bera egin du Goñik.

Kokotxak saltsa berdean ekarri ditu Goñik sukaldetik. Sukaldari plantak eginez pausatu du azpila mahai gainean.

Ufa, irten zaio Roderari. Pentsatzen ipinita, jakin nahi nitek zein metafora erabiliko lukeen Salaberriak usain honen gozotasuna irudikatzeko.

Zer edo zer asmatuko zian, ez diat zalantza izpirik.

Asmatuko zian, bai. Irudimen izugarrikoa duk, haren liburuetan ageri denez.

Denak irakurri dituk?

Bidali egiten zizkidak.

Zuek lagun handiak zarete aspalditik. Biek liburu anitz irakurri izan duzue eta, beraz, beti izan duzue zer aipatu. Nik irakurririko liburu guztiek ikasketekin zeukatean lotura zuzena. Zuek bertze gisa bateko liburuak irakurtzen zenituzten: poemak, saioak, nobelak eta halakoak. Nik, aldiz, ez nian horretarako asti-

rik. Eguneko minutu bakoitza lanerako behar nian. Gu-rasoei zor nian.

Ulergarria. Gu, azken batean, aberaskume txoro batzuk baino ez gintuan. Salaberria eta biok bai. Baita Astoreka bera ere.

Hura ere bai. Nuen lagun bakarra zuan. Egundo izan dudana minena.

Gogoan diat. Elkarrekin ibiltzen zineten beti. Zintzo itxurako mutil bi. Harritu egin ninduan Burgosko prozesuaren kontrako lehen manifestaldi hartan zuek ikustean. Hara mutil zintzoak, pentsatu nian.

Asmatu egin huen, bete-bete.

Zuek mutil zintzoak. Eta gu mutil gaiztoak.

Zergatik gaiztoak?

Horixe izan nahi genian. Burua txorakeriez beteta geneukan. Rimbaud eta Verlaine ginela uste genian. Edo Marx eta Engels, Lenin eta Trotski, Fidel Castro eta Che Guevara, nik zer dakit ba.

Xelebreak zineten itxuraz ere. Bibote eta bizar haiekin. Zuek ikusita, Deuston egon beharrean, Paris-ko Sorbonan geundela ematen zian.

Aberaskume babalore batzuk gintuan!

Intelektual itxura harekin... Oker ez banaiz, Salaberriak pipaz erretzen zian. Nik sekula ezaguturiko

lehen pipa erretzailea, bidenabar errana. Maite nian tabako haren usaina.

Salaberria pipan erretzen? Barre egin du Roderak, sinesgogor. Harrigarria. Zeharo ahantzita diat.

Ke arrasto bat uzten zian beti gibelean.

Zeinen apetatsua den oroimena. Gauza batzuk zeharo ahanzten ditiagu eta beste batzuk, aldiz, argi eta garbi gogoratzen, auskalo zein lege edo arrazoiren arabera. Gogoratzen ditugunak, gainera, huskeriak izaten dituk.

Pipa hura ez diat ahanzteko.

Militatzen nola hasi nintzen gogoratu nahi izan diat askotan, inoiz lortu barik. Bazakiat Deuston nengoela; baina, gogor saiatu arren, ezin gogoratu noren bitartez sartu nintzen komunisten artean.

Nik, aldiz, dena oroitzen diat, oroitu nahi ez nukeena ere bai.

Hori txarra duk gero!

Hagitz makurra. Astorekaz ahantzi nahi nitek, Bakeroaz, Enekoren lagunez, Sotorako bidaiez... Ahalegintzen nauk, baina alferrik duk, gogoan iltzatuta zauzkaat, Maite eta Eneko dauzkadan bezala.

Normala.

Hitz ere egiten zidatek...

Nik isiltasuna baino ez diat jasotzen alabengandik.

Isiltasuna ederra izan daitekek batzuetan, inoren solas ergela baino hobea.

Ederra bezain eramangaitza.

Ados. Kartzela bat ere izan daitekek.

Horixe duk niretzat. Horregatik egoten nauk tabernetan.

Hi beti ibili haiz ostatuetan, baita dibortzio aitzinean ere.

Baina orain gaez ere joaten nauk. Izutu egiten nauk etxean bakarrik egoteak. Berunezko isiltasun horrek...

Makurra duk, bai.

Txarto pasatzen diat, Felix, batez ere ohean. Buel-taka hasten nauk lo egin nahian, baina alferrik.

Bazakiat zertaz ari haizen. Urteak zaramatzaat halaxe.

Beldur alua!

Ez. Nirea bederen ez duk beldurragatik. Egia erran, aspalditik beldurrik ez zioat ezeri. Ezta heriotzari ere. Aitzitik, batzuetan begiak itxi eta berriz ez irekitzea desiratzen diat, bertze zernahiren gainetik. Heriotza ederra lukek, ederrena, nire ustez. Insomnioa

behingoz ahantzi, nekea gainetik kendu eta gozo lo-kartu, egundo berriz ez itzartzeko.

Ondo pentsatuta daukak.

Astia izan diat.

Nik ez. Hona eta hara ibili behar izan diat beti.

Bai, baina dena ongi hausnarturik, urrats bakoitza.

Ez pentsa. Tontakeria asko egin diat.

Tontakeria handiena tontakeriarik ez egitea duk.

Hik ez bezala, bizitza oso bat behar izan diat nik horretaz jabetzeko. Bizitza oso bat... Gezurra zirudik.

Denok behar izaten diagu ustez dakigun apurra ere benetan ez dakigula konturatzeko. Bizilegea duk.

Hala izanen duk, baina ez duk samurra. Gure aha-
legin guztiak alferrikakoak. Hik ideiak izan dituk, gutienik.

Hik ere bai.

Nik? Zein ideia izan diat ba nik?

Abertzalea izan haiz beti.

Bai, baina epela, hagitz epela. Semea atxilotu behar izan zidatean pixka bat berotzeko. Ordura arte eroso bizi ninduan, eta lanaz eta familiaz baizik ez ninduan arduratzen.

Ondo bizi bahintzen, zertarako jakin? Normala duk. Denoi gertatu zaiguk.

Hiri ere bai?

Jakina. Batxilergoaren azken urtera arte ez ninduan errealitateaz ohartzen hasi. Orduan hasi ninduan gure aitak eta jesuitek azaldutakoa oso bestela zela susmatzen. Gezurretan ari zitzaizkidala ikusi nian, eta niri, guri, ezkutatutako egia bilatzeari ekin nioan.

Gaur arte.

Bai, gaur arte, baina ez askoz gehiago, nik uste.

Egia aurkitu duk, beraz.

Ez diat uste inoiz aurkituko dudanik.

Ahalegindu haiz bederen.

Besterik ez diat egin. Alderdi komunistan lehenda-bizi, Euskadiko Ezkerran ondoren eta, bukatzeko, ezker abertzalean. Bide bihurria, ezta?

Zuzenagoa izan zitekean, bai.

Okerragoa ez, ordea. Sartzen naizen alderdi eta talde bakoitza desagertu egiten duk goiz edo berandu. Itzela duk nirea. Halako madarikazio moduko bat zaramaat gainean.

Hik ez hituen alderdi horiek desagerrarazi. Bertze batzuek egin zitean lan hori.

Zoritxarra nirea. Carrillo, Onaindia... Neuri suertatu behar halako buruzagi makalak, halako traidore beltzak.

Eta Otegi?

Otegi kartzelan zagok oraindik.

Bai, baina ez al haiz beldur?

Zeren beldur, okertuko diren beldur? Tira, Felix...

bai, bai, beldur nauk. Nola ez nauk izango.

Ni ere gero eta mesfidatiagoa nauk. Ez nauk neure buruaz ere fio.

Gero eta sinesgogorragoa nauk ni ere. Urtetan segurua eta egonkorra iruditu zaidan guztiaren gainbehera ikusi behar izan diat azken aldian. Kapitalismoa duk sendo dirauen bakarra; krisi latzekin, noski, baina iraun, azken batean. Gainerakoa pikutara joan duk, dena pikutara.

Okerreko alderdiak hautatu hituen.

Alderdi gehienak halakoak dituk, okerrekoak.

Ez pentsa. Galdetu Astorekari, bertzela.

Nik galdetu? Hire laguna izan duk beti.

Holako lagunekin, kontrarioak hobeki.

Hiri egingo diat galdera, Felix; zer egin ote hion?

Nik dakidala, bederen, deus ez.

Ba ezer ez egiteko, amorru izugarria dik.

Hala zirudik.

Zer edo zer egingo hion.

Erran diat: deus ez.

Bitxia duk...

Maiz pentsatu diat horren gainean. Urtetako gure arteko harremana aztertu diat, ahalik eta zehatzen, eta susmo bat baino ez diat hausnarketa luze horren ondotik.

Zein?

Oroituko haiz, aspaldi, Salaberriarekin egin genuen bazkariaz.

Bilbon, Astorekaren txokoan egindakoaz ari haiz... Nola ahaztu.

Ba, gaizki-ulertze bat izan genian. Gaizki-ulertze ustel bat, gainera. Zerbait erran nian denen aurrean, eta Astorekak uste izan zian bere maitaleaz ari nintzela.

Baina ez hintzen hartaz ari, noski.

Bai, ari ninduan, baina Astorekak eta biok ulertzeko gisan. *Private joke* bat baizik ez. Zuek ez zineten ohartu ere egin.

Hara gure Kosme zintzo eta katolikoa! Emakume ederra izango zuan behinik behin.

Ezin diat erran. Ez nian ezagutu. Nik bulegoko giltza uzten nioan eta kito. Goiz batez kondoi erabili bat aurkitu izan ez banu, bilera politiko berezietarako erabiltzen zuela pentsatzen jarraituko nikean.

Astorekaren mendeku gogoaren ondorioa izan duk, hortaz, zuen azken urteetako gurutze-bidea.

Ez diat bertze esplikaziorik aurkitzen.

Inoiz esan al zian, maitalearen kontua zela-eta hi-rekin haserre zegoela?

Ez. Baina susmo hori bakarrik zaukaat. Luzaz erabili diat kontu hau kaskoan, eta uste diat nire informazioaren boterearen beldur zela.

Eta hire susmoa okerra balitz?

Isilik geratu da Goñi, lagunak egin berri dion galderaz gogoeta egiteko astia bildu nahian. Ez aurrera ez atzera, zer esan ez dakiela geratu da, eskuineko eskuaz kopari eusten. Zurbildu ere egin da.

Nahiago diat susmoa zuzena dela uste izatea, erantzun dio azkenean.

Bai, baina okerra balitz, orduan zer?

Orduan dena izan den baino anitzez ikaragarriagoa lukek.

Rodera da orain mututu dena. Pentsakor dago.

Berehala ohartu da Goñi, eta antzerkia egin du: Postre aitzineko hondar platera dastatzeko parada izanen duzue jarraian: azpizuna onddoekin!

Jakiekin laketu dira. Aurreko plater guztiak gorai-patu dituen moduan gorai-patu ditu haragiaren gozota-

suneta samurtasuna Roderak. Honela segituz gero, Felix, esan dio lagunari, Astoreka bezain sukaldari bikaina bilakatuko haiz.

Hura izan diat maisu. Hala ere, sukaldari bikaina ez, hauts bilakatuko nauk agudo.

Eta nor ez? Berdin zio! Ahaztu! Gutizi hauek izanda, zertarako kezkatu?

Carpe diem.

Topa egin dezagun horren alde.

Topa egin dute. Eta ondoren oturuntzarekin segitu dute, Goñik halako batean aski dela esan duen arte, ezin duela gehiago jan, lehertuko dela.

Edan ezak behintzat.

Baietz Goñik, horretarako ez duela arazorik.

Pena duk, primerako turroia ekarri diat.

Utzi turroiak eta gainerakoak biharko edo etzirako. Gehiago preziatuko dituk orduan. Orain kafea egingen diat.

Jaiki eta sukaldera joan da Goñi. Handik aditu du Roderaren kalaka. Kafeak ekarri dituenean, afaldu duten mahaian ordeztu, sofa pareko mahaitxoan utzi ditu.

Etorri hona, erosoago egonen gaituk.

Telebista aurreko larruzko sofa zurian eseri da Roderera, Goñiren emaztea eseri ohi zen alde berean. Ez dio Roderari halakorik esan.

Altxatu da une batez Roderera, eta zeremoniatsu mintzatu zaio Goñiri: Zer edan nahi luke etxeko jaunak? Bas-Armagnac? Whiskia?

Bat aukeratu beharra zagok?

Biak edan ditzakegu, jauna. Kafearekin bat eta erretzekoekin bestea.

Ados.

Edateko hain ederrak edukita, maila bereko erretzekoak atera beharko ditugu, jauna.

Ez gaudek ezeri muzin egiteko.

Ea ba zer daukagun hemen: Davidoff, Montecristo, Partagás...

Davidoff bat hartuko diat. Izena maite diat.

Nik Montecristo bat, Salaberriaren omenez.

Omenez, zer ba?

Txorakeria bat. Montecristoko kondea, badakik, Dumasen nobela ospetsu hori.

Ez diat liburua irakurri, baina telebistan ikusi nian, orain ez aspaldi. Anitz eman zidaan pentsatzeko.

Montecristoko kondeak? Benetan? Denbora ondo eta arin pasatzeko nobela bat duk, ez besterik.

Hik hala badiok, halaxe izanen duk. Hi haiz literatura betidanik maite duena.

Zeri buruz pentsarazi zian, jakin badaiteke? Mendekuaz.

Nola ez! Nor mendekatzeko, baina?

Ez duk asmatzeko zaila.

Eneko.

Bizkorra haiz gero!, trufatu zaio Goñi.

Beste batzuk izan zitezkean.

Anitz. Makina bat *biktima*.

Eta makina bat borrero, beraz.

Bai, denak akabatuzeko modukoak.

Eta zein akabatuko huke aurrena: Bakeroa, Eneko kartzelara bidali zuen epailea, fiskala?

Horiek ere plazer handiz akabatuko nitizkek, ahal-ko banu. Nire mugen jakitun nauk, ordea, eta bane-kian geratzen zaidan indar apurrarekin horietako bakar bat akabatzea lan benetan gogorra izanen zela niretzat. Horregatik, telefilm hura ikusten ari nintzelarik, Astoreka nerabilean gogoan. Lehenik eta behin, hura jotzen dudalako Enekorik gertaturikoaren eragile eta erantzule nagusitzat.

Enekorekin batera beste batzuk ere atxilotu zitiztean.

Noski. Haien mesedetan ere nahi nian Astoreka zigortu. Denon mesedetan. Banian bertze arrazoi bat haren kontra jotzeko. Aukera guztietatik hura zuan, nire ustez, egokiena. Hagitz ongi ezagutzen dudalako, batik bat. Bazakiat zein ohitura dituen, zein zaletasun eta ahulezia. Bazakiat nola min eragin. Zer duk Astorekak gehien maite duena?, galdetu nioan neure buruari. Semea, Aitor.

Eman dizkion buruhauste guztien ondoren ere bai?

Baita ere. Areago, horrexegatik maite dik bertze guztien gaineratik, nire irudikoz. Nolanahi ere, aitaren kontra egiteko modurik eraginkorrena semearen kontra egiteari iritzita, leku guztietara jarraituko zion detektibe bat hartzearekin amets egin nian zenbait egunez: detektibeak Aitor Astorekaren azken hutsegitearen, lerraduraren edo erokeriaren albiste zehatza zerkarkidaan. Bonba bat. Eta nik bonba hori leku aproposan paratu behar nian. Horretan nengoan, Begoñaren heriotzaren berri izan nuenean. Horrek uxatu zizkidan ameskeria guztiak.

Horixe egiten dik, ezin hobeto, errealitateak.

Bai. Nire mendekua denboraren eskuetan uztea erabaki nian. Hura ni edo bertze edonor baino anitzez indartsuagoa eta azkarragoa duk.

Ondo erabakita. Lagunik onena aukeratu huen.

Justizia poetikoa iruditu zitzaidan haren emaztearen heriotza. Berdindurik oraindik ez, baina bina berdintzeko bidean ikusten ahal nian neure burua.

Ostia, Felix, hi beti futbol zale.

Konparaketa traketsa duk agian, baina hala sentitzen nian nik kontua, partida bat balitz bezala. Hark semea galdu eta dena bueltatuko zuan, nolabait, bere onera. Baina Aitorren heriotzak ez zidaan Eneko itzuli-ko, noski, Begoñarenak Maite itzuli ez zidan gisa berean. Hala ere, uste nian maite nituenek utziriko hutsunearen oinazea arinduko zidala. Nire baitako zerbaitek erraten zidaan, luze gabe denborak hondar mesede hori egingen zidala. Ziur ninduan.

Aitor hori txoriburu samarra izan duk, ezta?

Ttipitatik.

Ez nauk lar ondo gogoratzen, baina hik zerbait aipatu hidan behin, Madrilerako gure bidaiaria haietako batean. Alderdi Egunean egin zian zerbait, oker ez banauk.

Bezperako gauean droga erretzen aritu zuan EGI-
ren kanpaldian.

Hori duk. Txokolate puska batekin harrapatu zi-
tean. Sekulako nahigabea hartuko zian Astorekak.

Sutan zegoan. Jendeak zer erranen zuen kezkatu-
rik zegoan.

Burukide baten semea txokolatea erretzen...

Burukide nagusiaren semea!, hobeki errana. Hura
sonatuena izan zuan, baina handik urtebetera eginiko-
ak Kosme bere onetik atera zian. Patxi Gazteluren
alaba gaztea haurdun utzi zian. Horregatik ezkonarazi
zitiztean lehenbailehen.

Ez zirudik batere inozoa Astoreka gazteak.

Ez nonbait. Gaztelu baino aberatsagoak ez dituk
ugari Bizkaia osoan. Harrobiak, eraikuntza enpresak,
kamioiak, garabiak... denetarik.

Ondo ezagutzen duk.

Bezero izan nian.

Ezkurdin, presoan aldeko pankartaren atzean ikusi
hinduten arte.

Noski.

Eta seguru hura ez zela izan galdu huen bezero
bakarra.

Ez, bertze mordoxka batek ere utzi ninditean. Beldur zitudan.

Hire beldur...

Batzuk sobera aise beldurtzen dituk.

Dirua koldarra omen duk.

Ni ez nauk horretaz ari, ordea.

Gazteluren antzekoez ari haiz...

Ez. Astorekaz ari nauk, egia errateko. Nire beldur izan behar zian, zigun herra izateko. Ez zioat bertze azalpenik aurkitzen.

Eta izango ez balitz?

Berdin zaidak. Oker egonen banintz, hagitz kontent aitortuko nikek, ez izan dudarik. Bakarrik nagok, ordea; eta egiak bakarrik axola zidak orain.

Mingarria bada ere?

Nozitu behar nuen guztia nozitu diat hondar urteetan.

Beti sufri litekek gehiago, guk uste baino askoz gehiago.

Nik ez. Niretzat dena bukatu duk, baita oinazea ere. Azken afaria diagu gaurko hau.

Biontzat duk azkena, esan diat lehenago ere. Hiretzat eta neuretzat.

Hiri bederen alabak geratzen zaizkik. Haiek zaindu beharko dituk.

Gustura zainduko nitizkek, ahal banu.

Zerk eragozten dik?

Itziarrek eta... minbiziak.

Zer?

Egia baino ez zaiala axola esan berri didak. Horra hor egia. Neure egia.

Zurbildu egin da Goñi. Hitzik gabe utzi du lagunaren aitopen itxuraz ezaxolatuak.

Esan ezak zer edo zer. Ez duk hainbestekoa. Jende gehiena minbiziz hilko duk goiz edo berandu. Denbora kontua baino ez duk. Orain niri heldu zaidak txanda, duela hilabete batzuk Astorekaren emazteari heldu zitzaion bezala. Gure garai triste honen berezko gaixotasuna duk, gaur egungo izurritea. Gainbeherako kapitalismoarena.

Medikuek lotu ditiztek izurritea eta kapitalismoa?

Ez. Neure kabuz egindako diagnostikoa duk. Medikuek ez zakitek ezer marxismoaz.

Marxismoaz ez, baina minbiziaz poxi bat bai. Zer erran diate?

Betikoa. Erradioa, kimioa... Badakik, pakete osoa.

Bai, baina...

Beranduegi topatu omen zidatek tumorea.

Hi borrokalaria haiz, beti izan haiz.

Nekatuta nagok. Bizitza osoa alferrikako borroketan jardun diat eta ez nitek halako beste batean alferrik jardun nahi izango.

Borroka egin gabe ez zagok jakiterik alferrikakoa izanen den.

Medikuek esan zidatek.

Hilko haizela erran diate?

Gutxi gorabehera.

Zer demontre da gutxi gorabehera!

Gehienez hiru hilabete geratzen zaizkidak. Udaberriarekin batera hilko nauk, antza denez.

Tratamenduari estu jarraituz gero ere bai?

Ez zieat galdetu ere egin. Ez diat jakin nahi. Geratzen zaidan apurra ahalik eta hobekien bizi nahi diat, medikurik, pozoirik eta torturarik gabe. Hori duk benetan ardura didan zera bakarra. Hori eta alabekin ondo amaitzea.

Seguru egonen haiz, noski.

Erabat, guztiz seguru. Hil arte bizi!

Hil arte bizi!, eskuan daukan whiskiz betetako edalontzia jaso du Goñik, oraindik zurbil.

Edan egin dute biek.

Ondo pentsatuta, ez duk hainbestekoa...

Ez, ongi pentsaturik ez. Gu bezalakoentzat hobere-
rena ere izan daitekek. Begira iezadak: Maite eta
Eneko hil eta gero, zer egiten diat nik oraindik hemen?
Deus guti. Bakarrik nagok, galdurik nagok... Akabatu-
rik nagok hi gabe geratuz gero.

Hori segurua duk.

Beraz, azken afaria diagu hau...

Lehen esan diat: azken-azkena. Biok batera bai,
behintzat.

Norekin afalduko diat, ba, hirekin ez bada?

Enekoren neska izandakoarekin afal dezakek.

Leirerekin?

Horixe, Leirerekin. Ondo konpontzen zarete, non-
bait.

Primeran, baina hark badik norekin afaldu. Ez dik
ni bezalako agure batekin afaltzen denborarik galdu
behar.

Hi, Felix, hiltzeko gertu egongo gaituk, baina agu-
reak ere ez gaituk. Oraindik ez.

Gorpu ibiltariak gaituk. Horixe gaituk.

Ondo afaldutako gorpuak.

Eta primeran edanikoak.

Alai azaldu nahi izan du Roderak. Baso bietan izotzak kanpai hoska bota, whisky botila haietan hustu eta Goñiri eskaini dio bat.

Ausarta haiz, Juanjo, beti izan haiz ausarta, ni ez bezala. Hire gisan solastatu nahi nitek: lasai eta soseguz, gardentasun osoz.

Ez badut orain horrela berba egiten, noiz egingo diat ba? Niri, hiri bezala, egia duk dagoeneko ardura didan bakarra. Gainerakoak bost axola. Dena galtzen denean, hori baino ez zaiguk geratzen. Eta nik, hire moduan, dena galdu diat.

Hi gogor borrokatu haiz beti.

Bizitza osoan. Areago, erabateko porrotaren adibide behinena nauk: gatazka guztiak galdu, gerla osoa ere galtzeko. Alabak...

Juanjo, horditu egin haiz.

Oraindik ez. Ez guztiz.

Hire burua errepikatzen hasi haiz. Madarikazioak botatzen hasiko haiz laster...

Hi ere beldurtu haut, ezta? Hago trankil. Gau egoia duk hau melodramarako, baina ez diat plazer hori eman nahi.

Edan dezagun eta goza dezagun egiaz.

Egiaz gozatu?

Ez zagok egia bakarra, anitz baizik. Edo, nahiago baduk, egia beraren zenbait alderdi. Aipa ditzagun horiek, orain arte egundo aipatu ez ditugunak, ez jadanik buruz dakizkigunak.

Ederto. Baina... egia aitorrezinenez ari al haiz?

Baita ere.

Jolas arriskutsu samarra iruditzen zaidak.

Arrisku pixka bat behar dik edozein jolasek beneratan jolas izateko.

Hik ikusi.

Ongi duk. Neu hasiko nauk. Maiteri ezkutatu nion hondar gauza kontatuko diat.

Aurrera.

Maite hil baino hamar egun lehenago Leirek hots egin zidaan, nirekin solastatu nahi zuela erranez. Maite eri zela azaldu nioan, eta, beraz, ezinen nuela Bilboraino joan. Durangotik bertatik deika ari zitzaidanla erran zidaan. Plateruenara bildu gintuan eta bertako mahai baten inguruan jakinarazi zidaan mutil batekin ibiltzen hasi zela.

Zer dela-eta jakinarazi behar zian halakorik?

Horixe bera galdetu nioan nik.

Eta?

Nik edonoren ahotik karrikan aditu aitzin, berak kontatu nahi zidala erantzun zidaan.

Benetan neska adeitsua.

Bai, nahiz eta hik ironiaz erran. Gozoa duk Leire, eta xaloa, eta bertze bertute anitzen jabea ere bai.

Maite duk, argi zagok.

Bere zintzotasunagatik maite diat. Ez zakik gezurrik erraten.

Hark ere maite hau, seguru, eta bere maitasuna erakutsi nahi izan zian kontu horren bitartez. Baina ez zaidak aitorten hain berezia iruditzen.

Mutila nor zen ere kontatu zidaan...

Ederto.

Hik ezagutzen duk.

Nor da ba?

Aritz Zengotita.

Hara!

Enekoren lagun mina.

Mutil ona. Ondo aukeratu dik Leirek.

Espero dezagun.

Zalantza daukak ala?

Nik ez, baina Maite ez zuan Aritzez inoiz fio izan.

Zergatik?

Eneko lehen aldiz kartzelatik irten zenean, herrian zabaldu ziren esamesen gibelean zegoela uste zian Maitek.

Zer datu zian hori pentsatzeko?

Eneko kartzelatik irteten lehena izan zelako. Horrexegatik bekaiztu omen zitzaizkioan.

Ez diat uste.

Nik ere ez, baina Maite horretan sinetsirik zegoan. Maitek egiazkoak ez ziren gauza asko sinesten zian.

Batez ere hondar aldian.

Bai azken aldian eta baita lehenago ere.

Zer erran nahi duk?

Ez nauk hiri kontatzen inoiz ausartu, baina gaurko hau izan daitekek horretarako aukera aproposa, egiaren gaua denez gero, ezta?

Hala duk, egiaren gaua, inolako beldurrik gabe solastatzekoa. Azken aukera.

Ederto. Nire txanda duk, beraz.

Aitzina.

Jendeak ez zian hire emaztea larregi maite.

Zer jendek?

Beste atxilotuen gurasoek. Begitan hartu zitean. Ezin ziotean barkatu egun haietako batean esan ziena.

Zer erran zien ba?

Zuen semea errugabea zela, ez zuela ezer ere egin.

Eta horregatik haserretu al ziren, egia errateagatik?

Esan gabe ere, argi adierazi zieran zuen semea ez zela haien semeen antzekoa, ez zela terrorista bat. Hi ere haserretuko hintzen, haietako norbaitek halako zerbait esanez gero.

Noski haserretuko nintzela.

Ulertzen duk haien amorrua orduan.

Dударик gabe. Maite, ordea, ez zuan halakoa. Erotu egin zuan Enekoren deskalabruaren ondoren.

Eneko hil baino askoz lehenago esan omen zieran hori beste presoek gurasoei.

Ez diat ezetz erranen. Balitekek nik uste baino lehen buruz nahastu izana. Nolanahi ere, makurrena Eneko hil ondotik gertatu zitzaioan Maiteri. Burutik egin eta mundu guztia kontra zuelakoan, etxetik irteari uko egin zioan. Ordurako ia ez genian *bizitza sozialik*, baina mendira joaten gintuan bederen. Goize-

tan, gosaldu eta Anboto aldera abiatzen gintuan, hor zehar ibiltzen gintuan bazkaltzeko garaira arte. Mese-
de ederra egiten zigutean goizeroko txango horiek,
burua garbitzen zigutean, birikak egurasten, semeare-
kiko kezkek arintzen. Ez gintuan arras zoriontsu, baina
zenbait orduz samina pixka bat ahanztea lortzen ge-
nien, eta handia zuan hori guretzat, lasaigarria.

Maite gajoa!

Erran ezak Felix gaixoa ere. Haren ondoan egon
behar izaten nian egun osoan, biok sofa honetantxe
jarririk, hain justu. Telebistari begira egoten gintuan,
eta hari begira segitzen genian itzalita zegoenetan
ere. Noizbait lokartzen gintuan, bortz bat minutuz
gehienez, eta ohatzera joaten ginelarik ez genian ba-
tere lorik egiten.

Nik pilulak hartzeari esker lo egiten diat ordu gutxi
batzuetan.

Insomnioa jasanezina duk, ia tortura molde bat.

Ondo zakitek hori poliziek.

Ohatzea bera bihurtzen duk tortura tresna. Batera
egin, bertzera, eta ezin inoiz jarrera egokirik aurkitu.
Lasaitzera saiatu, hatsa sakonki hartzera, eta ezin.
Amorratu egiten ninduan hasieran. Hondarrean, etsi.

Etsi behin ere ez!

Maitek eta biok bai, arrunt etsi. Gauez gelditu egi-
ten duk denbora. Areago erranen nitek: denborak de-
rrigorrezkoa dik argia, argirik gabe ez duk deus. Argia-
ren arabera neurtzen eta izendatzen diagu denbora,
eguna, horixe baita guztiaren oinarria, gainerako neu-
rri guztiena: asteena, hilabeteena, urteena, mende-
na...

Ordu asko pasatu duk horri buruz gogoetan.

Milaka ordu, bai, ia gauero hondar hamaika urte
hauetan. Insomnioak hori dik txarra, ilunpean ere ba-
dabilela burua. Guztiz bere kasa zabilek, gainera,
hona eta hara, logika izpirik gabe, horditurik balebil
bezala.

Hi haiz orain horditu dena, Felix. Mozkortuta hago.

Bai, baina ez agudo izanen naizen bezain horditu-
rik.

Hori duk sasoia! Ez ditiagu gutizia hauek guztiak
dastatu gabe utziko! Bekatu larria lukek.

Eta biharamunik ez badago, ez duk bestondorik
ere egonen. Edan dezagun!

Topa!

Biek batera edan dute eta tira egin diete erretzen
ari diren Habanakoei. Kez inguratuta daude. Eztulka
hasi da Goñi.

Maitek ikusiko banindu, esan du; ez zian nik erre-
tzerik nahi. Ez zidaan deus erraten, baina begirada
bakar batekin aski. Elkarrekin hainbertze urte eman
ondotik, alferrik genitian hitzak. Eneko hil arte maiz
solastatzen ginen arren, hura lurperatu eta arras isil-
du gintuan. Eskuak loturik egoten gintuan, eta biok
konforme. Maiteren esku hotz haiek... marmolezkoak
bezalakoak.

Izugarri maite huen, ezta?

Ezagutu izan dudan emakume bakarra izan duk,
nire seme bakarraren ama. Nola ez nian ba maiteko?

Ezagutu ere bakarra, Biblian bezala?

Bai, horrela ere bai. Hura izan zuan biluzik ikusi
nuen lehendabiziko emakumea.

Aldizkari pornografikoak ikusita edukiko hituen
Maite ezagutu huenerako.

Lehendabiziko benetako emakumea larru gorritan,
erran nahi diat.

Ederra. Gauza bera esan nahi nitek Itziarrez.

Hik ere izugarri maite duk hura. Ez erran ezetz.

Ez diat ezetzik esango. Gorrotatzen ahalegindu
nauk eta gorrotatzera ere ailegatu nauk batzuetan. Ez
oso luze, ostera. Ahazten ere ahalegindu nauk, eta
huts egin diat horretan ere. Ez duk nire lehendabiziko

andrea izan, ezta azkena ere; baina, hik esan legez, nire alaben ama duk.

Hori ezin duk ahantzi, ez. Makina bat zapokeria egiten badigute ere, ezin gorrotatu.

Asko egin al zian Maitek?

Osasunari eutsi zion bitartean, bat bera ere ez. Erotu zenean bai. Baina orduan ez zian errurik. Denok erotu gintuan pixka bat: semea lehenik, gero Maite, ni neu ondotik.

Mozkortuta hago, bai, baina ez diat nik ero arrastorik antzematen.

Maiteri ere ez zitzaioan sobera nabaritzen eta, hala ere, eroturik zegoan. Obsesioak zitian.

Nork ez?

Ez hark bezala. Leirerekin obsesionaturik zegoan, ezin zian eraman. Maiteren aurrean haren izena aipatzea debekatu egin behar izan nioan neure buruari. Maite bere onetik ateratzen zuan Leireren izena aditze hutsarekin. Sekulakoa zuan, sinesgaitza.

Eta hik ezin ezer egin.

Deus ez. Saiatu ninduan bere okerra ikusarazten: Leirek ez zuela Enekoren heriotzaren errurik, hura ere hagitz gaizki pasatzen ari zela, saminki sufritzen ari zela. Maitek, aldiz, ez zian horretaz deus aditu nahi.

Harentzat traizioa zuan Leirerena, barkaezina. Eneko benetan hil zutenak bertze batzuk izan zirela errepikatzen nioan alfer-alferrik. Astoreka oroitarazten nioan, ertzainak, fiskalak, epaileak, egunkariak, telebistak. Dena debaldetan.

Hala izaten duk, antza. Ni ere ahalegindu ninduan Itziar konbentzitzen, baina ez nian hik baino zorte hoberik izan. Hura ere egiaren beldur duk, nonbait.

Nekeza duk beldurraren aurka borrokatzea, alferrikakoa gehienetan. Beharbada hilzorian egon beharra zagok egia aitortzeko.

Eta onartzeko.

Halaxe gaudek biok, hil hurren. Hortaz, zernahi erran zezakeagu lasai demonio.

Hildakoen mintzoa...

Hire txanda duk, Juanjo. Konta iezadak egia handiren bat.

Ederto, baina ez zaik batere gustatuko.

Egia baldin bada, ez dik axola. Halakoa duk gaurko gure jolasa.

Hitz egin dezagun, beraz, Enekorri buruz.

Gure semeaz? Zerbait daukak gordean?

Epailearen aurrean esandakoak.

Ez adarrik jo!

Lehen esan didak, Enekorri buruz gaizki esaka jardun zutela herrian. Eta ulertu diat, Maitek Zengotitarren seme Aritz jo zuela erruduntzat.

Bai.

Ba, jakin ezak, Enekorri buruz esan zutena egiazkoa zela guztiz.

Goñiri itxuraldatu egin zaio aurpegia. Eta aldartea. Mozkorra bat-batean pasatu zaiola dirudi.

Ahantzi zaidak zer erraten zuten Enekoren lepotik, erran dio lagunari.

Haren erruz bi lagun atxilotu zituztela.

Denek izenpetu zitean ertzainek aitzinean paratu zieten papera.

Den-denek. Baina Enekok Harkaitz Olazabal eta Nekane Ruiz aipatu zitian epailearen aurrean, eta ahaztu egin zitzaioan guri esatea.

Eta?

Ba, beste inork haien izenak aipatu ez zituenez, ezkutatuta zeuden tokitik irten zituan trankil-trankil, Poliziak haien berririk ez zuelakoan.

Seguru hago horretaz?

Erabat seguru. Epailearen paperetan ikus dezakek.

Nik uste nian...

Bazakiat, Felix, baina sarritan gauzak ez dituk diruditena. Hik, Maitek bezala, Eneko erabat errugabea zela uste huen, atxiloketa eta gainerako guztia Astorekaren mendekua zela, haren azpikeria. Badaitekek hala izatea, ez diat nik ezetz esango, baina, hik sine-tsi edo ez, Eneko kale borrokarako talde batean zegoan, Aritz Zengotita eta gainerakoekin batera. Ertzainak ez zebiltzaan itsumustuka. Hanka sartu zitean, modu txarrean gainera, baina bazekitean Enekok eta haren lagunek zer edo zertan zihardutela. Horretan, behintzat, ez zeudean oker. Gauza txikiak egin omen zitiztean: kutxazain automatiko batzuk erre eta hala-koak, baina haien atzetik zebiltzaan zenbait hilabete lehenagotik.

Isilune luzea egin da. Goñiri amatatu egin zaio bihotzaren beroa. Rodera deseroso mugitu da sofán. Eta Goñiri totalka atera zaizkio hitz mikatz batzuk:

Dena gezurra... Dena alferrik.

Ez du besterik esan. Negar anpulu bat etorri zaio masailean behera eta, ahoa berriz zabaldu duelarik, intziri suerte batek ihes egin dio; auhen mehe bat izan da hasieran, harik eta haren ahotsa ustekabeen gorantz sendotu eta Rodera ohartu den arte kantuan atsedean hartu nahi duela adiskideak.

Maite ditut maite gure bazterrak, lanbroak izkutatzen dizkidanean...

Roderak bafada handi bat atera dio Habanakoari, kotoizko arbola bat dirudien kezko hodei bat sortu du, eta Goñiri kantuan lagundu dio berak ere, Mikel Laboaren doinuan. Eta berriro armagnacak eta whiskiak edatearekin laketu dira abesti gogoangarrien artean: Laboarenak, beste batzuenak eta are herri kanta ere. Eta edanean eta kantuan atseginez jarraitu dute inolako presa eta grinarik gabe egunsentira arte.

Mikel Arregiri, Xabier Mendigureni eta, bereziki, Edorta Mataukori eskertu nahi diet liburu hau idaztean emandako laguntza. Zordun naute betiko.